



EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO  
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA  
LURRALDE ANTOLAKETA ETA SUSTAPENERAKO DEPARTAMENTUA  
DEPARTAMENTO PARA LA ORDENACIÓN Y PROMOCIÓN TERRITORIAL

# UROLA-KOSTAKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA

## I. LIBURUA

“A” DOKUMENTUA  
INFORMAZIO- ETA AZALPEN-MEMORIA

2006EKO OTSAILA

LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN AURKIBIDEA.-

**I. LIBURUA**

**“A” DOKUMENTUA – INFORMAZIO ETA AZALPEN MEMORIA**

**II. LIBURUA**

**“B” DOKUMENTUA – ANTOLAMENDU ARAUAK**

**“C” DOKUMENTUA – AZTERLAN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA**

**“D” DOKUMENTUA – EGIKARITZE PROGRAMA**

**III. LIBURUA**

**“E” DOKUMENTUA – INFORMAZIO PLANOAK**

**IV. LIBURUA**

**“F” DOKUMENTUAK – ANTOLAMENDU PLANOAK**

## **LURRALDEAREN ZATIKO PLANA SUSTAPENA ETA ZUZENDARITZA:**

### **Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentua**

|  |                                |
|--|--------------------------------|
| Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Diputatua: | Koldo Azkoitia Zubizarreta     |
| Lurralde Antolaketako Zuzendaria Nagusia:        | Jose Ramón Izkeaga Zinkunegi   |
| Lurralde Plangintzako Zerbitziburua. Arkitektoa: | Maite Celaia Errazu            |
| Arkitektoa:                                      | Felipe Setien Loidi            |
| Atal Burua Juridikoa. Zuzenbidean Lizenziatua:   | Maite Iribarren Goicoecheandia |

### **Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila**

|   |  |
|---|--|
| Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailburua:   | Esther Larrañaga Galdós                  |
| Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaria:  | Martin Arregui San Miguel                |
| Lurraldearen Antolamendurako eta Planeamendurako Zerbitzuaren Arduraduna. Arkitekturan Doktoa:      | Jesús M <sup>a</sup> Erquicia Olaciregui |
| Gipuzkoako Lurraldearen Antolamendurako Arduraduna. Arkitektoa:                                     | José Ramón Varela Balenciaga             |
| Bizkaiko Lurraldearen Antolamendurako Arduraduna. Arkitektoa:                                       | Pilar Monjas Rubio                       |
| Zuzenbidean Lizenziatua. Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzako Arduradun Juridiko-Ekonomikoa: | Teodoro Olea Iturregi                    |

## **PLANA IDAZTEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK:**

### **Zuzendaritza teknikoa:**

Arduraduna: Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa

### **Talde idazlea:**

Idazketa eta koordinazioa: Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa

Alderdi sozio-ekonomikoak: Carmen Segurola Lázaro, geografoa

Hiri-kokalekuak: Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa

Ingurune fisikoa: Carmen Segurola Lázaro, geografoa

### **Edizioa eta irudikapena:**

Koordinazioa eta egikaritzea: Juan Ignacio Cortés Arzallus, delineatzailea

Maria Jose Fernández Calonge, Delineatzailea

### **Lanaren aurretiazko fasean lagundu duen taldea:**

Azpiegiturak: ETT, SA, ingeniariak

Arduraduna: Jaime Aldama, bide, ubide eta portuetako ingeniaria

## **“A” DOKUMENTUA**

### **INFORMAZIO ETA AZALPEN MEMORIA**

---

**TALDE IDAZLEA:**

**SANTIAGO PEÑALBA GARMENDIA ETA MANU ARRUBARRENA FLOREZ - Arkitektoak**  
**CARMEN SEGUROLA LÁZARO - Geografoa**

---

| <u>AURKIBIDEA.-</u>  | Orrialdea |
|--|-----------|
| <b>I.- SARRERA</b>   | 9         |
| I.1.-Xedea.  | 9         |
| I.2.-Aurrekariak.10  |           |
| I.3.-Indarrean dagoen legegintza-esparrua.   | 14        |
| I.4.-Planaren dokumentazioaren edukia.   | 16        |
| <b>II.- EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN GAUR<br/>EGUNGO EGOERARI ETA EGOERA SOZIO-<br/>EKONOMIKOARI BURUZKO DIAGNOSTIKOAREN<br/>LABURPENA</b> | 17        |
| II.1.- Informazioa.  | 17        |
| II.2.- Lekua.  | 19        |
| II.3.- Biztanleria.  | 20        |
| II.4.- Egoera sozio-ekonomikoa.  | 25        |
| II.5.- Lurraldea, kokalekuak eta horien egituratzea  | 28        |
| II.6.- 16 urteko horizonterako aukerak.  | 34        |
| <b>III.- EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE<br/>ANTOLAMENDUAREN HELBURUAK</b>  | 35        |
| <b>IV.- PLANAREN KOMENIGARRITASUNARI ETA AUKERARI<br/>BURUZKO JUSTIFIKAZIOA</b>  | 48        |

**V.- INDARREAN DAGOEN ETA BIDERATZEN ARI DEN  
LURRALDEAREN ARLOKO PLANGINTZA 49**

AURKIBIDEA.- (jarraipena)

Orrialdea

|  |           |
|--|-----------|
| <b>VI.- UDALERRIETAN INDARREAN DAGOEN ETA BIDERATZEN ARI DEN HIRI PLANGINTZA</b>                             | <b>51</b> |
| VI.1.- Aiako Arau Subsidiarioak.   | 52        |
| VI.2.- Aizarnazabalgo Arau Subsidiarioak.  | 53        |
| VI.3.- Azkoitiko Arau Subsidiarioak.   | 54        |
| VI.4.- Azpeitiko Arau Subsidiarioak.   | 55        |
| VI.5.- Beizamako Arau Subsidiarioak.   | 56        |
| VI.6.- Errezilgo Arau Subsidiarioak.   | 57        |
| VI.7.- Getariako Arau Subsidiarioak.   | 57        |
| VI.8.- Orioko Arau Subsidiarioak.  | 58        |
| VI.9.- Zarauzko Arau Subsidiarioak.  | 59        |
| VI.10.- Zestoako Arau Subsidiarioak.   | 60        |
| VI.11.- Zumaiako Arau Subsidiarioak.   | 61        |
| VI.12.- Udal-plangintza orokorrari buruzko laburpena.  | 61        |
| <b>VII.- PLANAREN EDUKIEN DESKRIBAPENA</b>   | <b>62</b> |
| VII.1.- Deskribapen orokorra. Lurralde-eredua.   | 62        |
| VII.2.- Eremu funtzionaleko ingurunea antolatzeko proposamenen deskribapena.                                 | 65        |
| VII.3.- Azpiegitura handiak hartzeko egokiak diren espazioen deskribapena                                    | 94        |
| VII.4.- Eremu funtzionalerako interes komuna duten ekipamenduen eta espazio libreen kokapenaren deskribapena | 113       |

| <u>AURKIBIDEA.- (jarraipena)</u>  | Orrialdea |
|---|-----------|
| VII.5.- Leheneratzearen xede diren espazioen deskribapena   | 116       |
| VII.6.- Prezio mugatuko etxebizitzetarako lurzoru-erreserbaren kuantifikazioaren deskribapena eta kokaleku horietarako orientabide-proposamenen deskribapena. | 117       |
| VII.7.- Ekonomia-jardueretarako lurzoruaren sustapen publikorako lurzoru-erreserbari dagokion kuantifikazioaren deskribapena.                                 | 128       |
| VII.8.- Kultur ondareari dagozkion proposamenak.  | 134       |
| VII.9.- Lurzoruaren poluzioa prebenitzeko eta zuzentzeko proposamenak.  | 135       |
| VII.10.- Plangintzaren koordinazio eta bateragarritasuneko esparruen deskribapena.  | 136       |
| VII.11.- Eremu funtzionalen arteko erlazioen erregulazioa   | 137       |
| <b>VIII.- PLANAREN ESKU HARTZE ESTRATEGIKOEN LABURPENA</b>  | 139       |
| <b>IX.- PLANA APLIKATZEKO ARAUAK</b>  | 144       |
| <b>X.- INDARREAN DAUDEN HIRIGINTZA PLANETAN PLANAK DUEN ERAGINA ETA BATERAGARRITASUNA</b>   | 145       |
| <b>XI.- PLANA BIDERATZEA ETA INDARREAN JARTZEA</b>  | 148       |

| <u>AURKIBIDEA.- (jarraipena)</u> | Orrialdea |
|----------------------------------|-----------|
|----------------------------------|-----------|



- 1. ERANSKINA.- UROLA-KOSTAKO LURRALDEAREN  
ZATIKO PLANAREN PROPOSAMENEN  
EZAUGARRIEI BURUZKO TAULAK 150**
- 2. ERANSKINA.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
LURZORUA POLUI DEZAKETEN JARDUEREN  
KOKALEKUEN INBENTARIOA, EUSKO  
JAURLARITZAKO INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILAK IDATZIA, EREMU  
FUNTZIONALARI DAGOKION ZATIA 153**

## **I.- SARRERA**

### **I.1.-XEDEA**

Dokumentu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak Urola-Kostako eremu funtzionalean garatzea. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak –aurrerantzean LAA– otsailaren 11ko 28/1997 Dekretu bidez onartu ziren. Dena den, dokumentu honetan LAA horien antolamenduko irizpideak zehaztu egiten dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen arabera.

Xede horri dagokion lurralde-antolamenduko tresna Lurraldearen Zatiko Plana edo LZPa da, hain zuzen ere.

LAAetan aurretik finkatutako mugapenaren arabera, Planaren esparruak honako udalerriak hartzen ditu: Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia, guztiak Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta egin da lana, erakunde horrek baitu horretarako eskumena, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 13.1. artikuluari jarraituz. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidrauliko eta Hirigintza Departamentuak eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten 1992ko uztailaren 13an. Hitzarmen horretan Lurraldearen Zatiko Plan hau eta beste batzuk idazteko, kontratatze, finantzatzeko eta bideratzeko bi erakunde horien arteko lankidetzaren arautu zen.

1998ko urriaren 28ko kontratuaren arabera, Santiago Peñalba Garmendia jaunari –lan hauen arkitekto zuzendariari– luzatutako aholkularitza eta laguntza teknikoaren esparruan idatzi da dokumentua. Dokumentuak ezarri den baldintza teknikoen orriaren edukiari jarraitu dio, eta, lanak landu eta zehazteko prozesuan, Administrazioak egin duen jarraipenean planteatu dituen artezpideak hartu ditu aintzat.

2005eko otsailean Gipuzkoako Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari aurkeztu zaion dokumentuak 2002ko iraileko dokumentuan jasotzen zen proposamena barne hartzen du –Diputatuen Kontseiluak 2003ko urtarrilaren 14an hasiera batean onartutakoa–. Gainera, dokumentua behin-behineko onartzea erabaki duen Diputatuen Kontseiluko 2005eko otsailaren 1eko erabakiaren arabera bideratzearen emaitza ere jasotzen du.

## **I.2.-AURREKARIAK**

Goraxeago adierazi den erakundeen arteko 1992ko hitzarmenaren ondorioz, Jarraipen eta Zuzendaritzako Batzordea eratu zen, eta Batzorde horrek, hain zuzen ere, Bultzatu zuen beharrezko lanak egitea.

Horrenbestez, bidezko informazioa bildu ostean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 13.4. artikuluari jarraituz, 1995eko otsailean gaur egungo Urola-Kostako eremu funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planaren aurrelaburpena idatzi zen. Dokumentu hori Herri Administrazio interesdun guztiei igorri zitzairen, bidezko oharrak, iradokizunak, ordezkoko aukerak eta proposamenak egin zitzaten.

Hasitako prozesua denboraldi batez eten egin behar izan zen, LAAK 1997ko otsailean behin betiko onartu ziren arte alegia. Prozesuari jarraipena eman zitzaion, baina LZP guztietarako metodologia komun bat finkatu zen. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Zatiko Planak idazteko oinarri metodologiko eta kontzeptualen dokumentua idatzi zen. Bertan eremu funtzionalerako beste hurbilketa bat egiten zen plangintza estrategikoaren eta metodologikoaren ikuspegitik, eta bertan eremu funtzionalen aukerak eta ahalmenak identifikatu ziren, batez ere ingurune fisikoari zegozkionak.

Prozesuari jarraipena emanez, 1997. urtean jendaurrean jarri ziren idatzitako Aurrerapenaren irizpideak, eta Aurrerapena Herri Administrazio interesdunei igorri zitzaien entzute-izapidea egiteko.

Bidezko entzute eta jendaurreko aldietan askotariko iradokizun-idatziak aurkeztu ziren. Guztiak aztertu eta baloratu ondoren, dokumentu tekniko bat egin zen 1997ko azaroan, eta dokumentu horretan eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana idazteko irizpideak eta helburuak finkatu ziren.

Dokumentu hori berriro hedatu zen jendaurrean 2000. urteko uztailean, eta beste iradokizun-idatzi batzuk egin zizkioten lurraldeko herri-administrazioek eta eragile publikoek eta sozialek. Iradokizun-idatzi horiek oso-osorik aztertu eta baloratu ziren, eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta Gipuzkoako Obra Hidrauliko eta Hirigintza Departamentuak planteatutako oharra hartu ziren kontuan. Horren guztiaren ondorioz, 2000ko azaroan txosten bat idatzi zen.

Prozesu horren guztiaren emaitza gisa, 2001eko martxoaren 20an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak zein Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak onartu egin zituzten Urola-Kostako eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko

Planaren dokumentu hau egiteko irizpide, Helburu eta Irtenbide Orokorrak. Erabaki horiek baliozkoa egiten dute 1997ko azaroan egindako dokumentua eta hainbat alderdi bideratzen dituzte berriro. Erabaki horien eduki osoa memoria honen 1. Eranskin gisa jasotzen da.

2002ko irailean bidezko dokumentua egin ondoren, 2003ko urtarrilaren 14ko Diputatuen Kontseiluak onartu zuen hasiera batean Lurraldearen Zatikoa Plana, eta jendaurrean jarri zen. Jendaurreko izapide horretan hainbat alegazio-idatzi aurkeztu ziren. Honakoek aurkeztu zituzten: Promotora Vascongada, SAK; Inmobiliaria de Orio Txoko Txiki, SLk; Jose M<sup>a</sup> Elozegi Amundarain jaunak; Kalapie elkarteak; Gipuzkoako EHNEk; Orioko Ur eta Lur, SAK; Itziar Onandia andreak; Arkamurka Natur Elkarteak; Gipuzkoako hiri-jabetzako ganberak; Azpeitiko Sozialista Abertzaleak taldeak; eta Asfargik.

Aplikatzekoa den legeriaren arabera, dokumentua entzute-izapidearen mende jarri zen eta honako administrazio publikoek egin zituzten alegazioek: Eusko Jurlaritzako Osasun Sailak; Zumaiako Udalak; Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Ordezkaritzak; Zestoako Udalak; IHOBE, SAK; Getariako Udalak; Azkoitiko Udalak; Eusko Jurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak; Eusko Jurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritzak; Orioko Udalak; Aizarnazabalgo Udalak; Energiaren Euskal Erakundeak; Azpeitiko Udalak; Zarauzko Udalak; Eusko Jurlaritzako Energia Zuzendaritzak; Zientzia eta Teknologia Ministerioak; eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak.

Bestalde, Ingurumen Ministerioko Kostako Zuzendaritza Nagusiak eta Garraio eta Errepideetarako Foru Departamentuak egin dute planari buruzko txostena.

2004ko uztailean, halaber, Planak ingurumenaren ganean duen eraginaren baterako ebaluazioari buruzko azterlana idatzi zen. Plan horren edukiaren arabera dokumentu horretan ez da eragin kritikoa sortzen duen jardunik identifikatu, a priori bederen.

Jendaurrean jartzearen ondorioz eta entzute-izapidearen emaitza gisa, eta beste alderdi batzuk kontuan hartuta eta huts-egiteren bat zuzendu behar dela ohartaraziz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2005eko otsailaren 1ean behin-behineko onartu zuen Urola-Kostako eremu funtzionalaren Lurraldearen Zatikoa Plana.

Erabaki horren hirugarren idatz-zatian Planaren beste dokumentu bat lantzea eskatu zen, eta dokumentu berri horrek hartutako erabakiaren arabera onartutako aldaketak, baldintzak eta zehaztapenak jaso beharko zituen.

Honako dokumentu hau da, hain zuzen ere, agindu horren emaitza.

Horrenbestez, Urola-Kostako eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatikoa Plana edukiak, gaur arte hartutako erabakien arabera, antolatu nahi du esparrua. Horretarako, 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren EAEko Ingurumen Estrategiaren esparruan, bateragarriak egin daitezke mugatutako lurraldearen ganean bat egiten duten askotariko ekimenak. Haatik, iraunkortasunaren irizpideei jarraituz garapena egin ahal izatea hartuko da abiapuntu.

### **I.3.-INDARREAN DAGOEN LEGEGINTZA ESPARRUA**

Azken urte hauetan, lurraldearen eta hirigintzaren antolamenduaren alorreko legerian aldaketa nabarmenak ari dira gertatzen, eta aplikazioaren legezko ikuspegi berria ari da definitzen.

Arlo horretan, garrantzi handia du 1990eko maiatzaren 31ko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legeak.

Era berean, ondoren zerrendatzen diren xedapenak nabarmendu behar dira:

- \* Euskal Kultur Ondareari buruzko Legea, 90/7/3koa.
- \* Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen Legea, 94/6/303koa, 1997ko martxoaren 14ko Legeak eta garapen-xedapenek aldatua.
- \* Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen 3/98 Legea.
- \* Gipuzkoako mendiei buruzko 6/94 Foru Araua, uztailaren 8koa.
- \* EAEko Errepideen Plan Orokorra.
- \* Gipuzkoako errepide eta bideei buruzko Foru Araua, 94/11/25ekoa, 2000ko abenduaren 28ko Arauak aldatua.
- \* Uren Legea ( uztailaren 20ko 01/01 ED).
- \* Kosta Legea, 88/7/28.
- \* Irisgarritasuna sustatzeko Legea, 1997ko abenduaren 4koa.
- \* Ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jardun babestuei buruzko Dekretua, 02/12/30ekoa.

Bestalde, aplikatzekoa den hirigintza-legeria nabarmendu behar da, eta, zehazki, ondoren adierazten diren xedapenak:

- \* Lurzoruaren erregimenari eta balorazioei buruzko Legea, 1998ko apirilaren 13koa.
- \* Higiezinaren eta garraioen sektorea liberalizatzeko premiazko neurriei buruzko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 23koa.
- \* Etxebizitzaren arloko presako neurriak eta hirigintza plangintzako zein kudeaketako tresnak izapidetzeko neurriak zehazteari buruzko Legea, 1994ko ekainaren 30ekoa.
- \* Hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan Erkidegoak izan behar duen partaidetza zehazten duen Legea, 1997ko apirilaren 25ekoa. 1998ko apirilaren 20ko Legeak aldatua.
- \* Lurraren araubide eta hiri antolaketaren arloko presako neurriak zehazteari buruzko Legea, 1998ko martxoaren 6koa.
- \* Lurzoru ondare publikoei buruzko legea, 1998ko ekainaren 29koa.
- \* 1976ko Lurzoruaren Legea (1976ko apirilaren 9ko ED), aurreko legeetan ezartzen denaren aurka edo kontraesanean ez dagoen guztian.
- \* 1976ko Lurzoruaren Legearen garapenean edo osagarri gisa egiten diren araudiak eta gainerako xedapenak, aurretik aipatutako xedapenek ezarritakoaren aurka edo kontraesanean ez dagoen guztian, eta zehazki, hiri-plangintzako, hirigintza-kudeaketako eta hirigintza-diziplinako araudiak.

Aintzat hartu behar diren lege-xedapenen artean ezin ditugu ahaztu Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, 1998ko abenduaren 22ko dekretu bidez onartuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, 2001eko otsailaren 27ko dekretu bidez onartua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Haize Energia Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, 2002ko ekainaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua.



Era berean, duela gutxi onartutako beste Lurraldearen Arloko Plan batzuk aipatzen dira, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana eta Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

Azkenik, udalerrri bakoitzean indarrean dagoen plangintza orokorra hartu beharko da kontuan, eremu funtzionaleko 11 udalerrietako udal-plangintzako Arau Subsidiarioak hain zuzen ere.

Atal honetan espresuki aditzera ematen diren lege-xedapenek ez dute indarrean dagoen legeria-esparrua mugatzen. Ildo horretan, Planaren edukian zuzenean edo zeharka eragina duten eta aditzera eman ez diren lege-xedapen guztiak ere indarrean daudela ulertu beharko da.

#### **I.4.-PLANAREN DOKUMENTAZIOAREN EDUKIA**

Lurralde-antolamenduaren arloan indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen zehaztapen eta dokumentu guztiak biltzen ditu Plan honek.

Zehazki, Lurraldearen Zatik Plan honek honako dokumentuak barne hartzen ditu:

- \* "A. Informazio- eta azalpen-memoria" dokumentua.
- \* "B. Antolamendu Arauak" dokumentua.
- \* "C. Azterlan Ekonomikoa eta Finantzarioa" dokumentua.
- \* "D. Egikaritze Programa" dokumentua.
- \* "E. Informazio Planoak" dokumentua.
- \* "F. Antolamendu Planoak" dokumentua.

Lana egiteko baldintza teknikoen edukiaren arabera eta gaineratutako jarraibide teknikoen arabera osatu da dokumentazioa, betiere Administrazioak dokumentua idazteko adierazitako iritziak kontuan izanik.

Horrenbestez, planoetako adierazpen grafikoa planaren Administrazio sustatzaileak ezarritako sistematikaren arabera egin da; izatez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko sei Lurraldearen Zatik Planak lantzeko sistematika bera ezarri du Administrazio sustatzaileak.

## **II.- EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN GAUR EGUNGO EGOERARI ETA EGOERA SOZIO-EKONOMIKOARI BURUZKO DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA**

### **II.1.- INFORMAZIOA.**

Deskribatutako prozesuaren barruan askotariko dokumentuak landu dira eta guztiak izan dira oinarri honako plan hau idazteko.

Hala, 1992. urtean hasiera eman zitzaion lehen fasean, Ortegi, SL enpresak aurretiazko azterlanak egin zituen. Azterlan horietan informazio zehatza bildu zen eta lehen diagnostikoa egin zen. Lan horiek abiapuntu izanik, hain zuzen ere, egin zen 1995eko otsailean Aurrerapena.

Aurretiazko azterlan horietan askotariko profesionalek jardun zuten elkarlanean, eta, hala, askotariko ikuspegitatik eremu funtzionalaren egoera zehatz-mehatz aztertu zuten zazpi monografia idatzi ziren.

Lanen bigarren faseari 1997an eman zitzaion hasiera, eta, hasteko, aurreko informazio hori guztia eguneratzeari ekin zitzaion. Egoera berraztertu egin zen, eta azken bost urteetan Administrazioeko sektoreko politikek eta Udalek sustatu zituzten jardunak eta ekimenak baloratu ziren.

Aldi horretan, talde horrek eta lanen jarraipena egiteko administrazioak jarritako arduradunek egindako lanez gain, beste dokumentu batzuk landu ziren testuinguru horretan. Dokumentu horietan, bestalde, Lurraldearen Zatik Planak idazteko lagungarriak izango ziren oinarri metodologikoak eta kontzeptualak proposatu ziren.

Gauzak horrela, hasiera batean onartutako dokumentua formulatzeko fasean –2001eko urtarrila/2002ko iraila–, berriro eguneratu zen lurraldearen antolamenduan eragina duten askotariko arloei buruzko informazioa: erakundeen eta legen esparrua; demografia; egoera sozio-ekonomikoa; natura-ingurunea; landa-ingurunea; hiri-antolamendua; arloko lurralde-plangintza eta udal-plangintza orokorraren egoera; lurzoru-erabilgarritasuna; garraioa; azpiegitura-sareak; mota guztietako zerbitzuak; ekipamenduak; eta abar. Informazio hori guztia eguneratzeko eskura dauden iturri estatistikoak hartu dira kontuan, eta beharrezko kontsultak eta azterketak egin dira.

Halaber, lurraldearen gainean esku hartzen duten erakunde-agente guztiekin izan gara harremanetan prozesuan, eta horien aurreikuspenak hartu dira aintzat.

Azken dokumentu hau idazteko fasean, indarrean dagoen plangintzaren egoera hartu da aintzat berriro ere –hirigintzaren arlotik zein lurralde-iritsieraren arlotik–. Horrela, espresuki identifikatu ahal izango dira dokumentu honek bi arlo horietan, batez ere, dituen eraginak.

Edozein informazio zehatza nahi izanez gero, planak adierazitako informazio-dokumentuetara jotzen du; alabaina, ondorengo ataletan, eremu funtzionaleko lurraldearen abiapuntuko egoerari eta egoera sozio-ekonomikoari buruzko diagnostikoaren laburpena barne hartzen da. Bestalde, egoera hori labur-labur argitzen duten zenbait informazio-plano ere gaineratu dira.

## **II.2.- LEKUA.**

Lurraldearen Zatik Plan honen mende dagoen lurralde txiki samarra den arren, bertan askotariko ekosistemak biltzen dira. Ekosistema horien aniztasun handia, kontserbazio-egoera eta garapena kontuan izanik, ekosistema horiek ingurumen-kalitate handiko gunek bihurtzen dute Plan honen xede den lurraldea.

Iparraldean Kantauri itsasoko kostaldea muga izanik, Urola-Kostak kostalde horren zati txiki bat besterik ez du hartzen, 20 kilometro inguruko zabalera duen tartea hain zuzen ere. Gainera, itsasotik hurbil, aspaldi-aspalditik bizi izan dira izaki bizidunak bertan, eta horren lekuko ditugu Irikaitz, Ekain, Amalda eta Altxerriko historiaurreko aztarnategi garrantzitsuak.

Oria eta Urola ibaiek –azken horrek bereziki–, eta horien ibaiadarrek modelatu dute lurralde hau. Lurrak altueran gora egiten du itsasoaren mailatik Gazume-Ernioko eta Izarraitzeko mendigune karstikoetako gailurrik garaienetara, 1.000 metrotik gora gaindituz. Dena den, landazabaleko paisaia da nagusi.

Itsasoa eta lurra, kostaldea eta mendia, eta izaki bizidunen belaunaldi ugariaren legatu historikoa dira Plan honen antolamendu-proposamenen helburua.

Hala, lurralde honetan baserri barreiatuak, landagune txikiak eta hiriak daude, bigarren milurtekoan kostaldean zein barrualdean sortu direnak. Azken horien sorreran, hau da, barrualdeko hirien sorreran, eragin handia izan zuen zenbait bide erabili behar izateak. Izan ere, Getariatik Urola ibaiaren haranaren barrualderako bidearen eraginpean sortu ziren batik bat.

Erreferentzia horretan nabarmendu behar dugu, XV. mendearen amaieran, lurralde honetan, bi pertsonaia unibertsal jaio zirela: Juan Sebastian Elkano eta Iñigo Loiolakoa, bata kostaldean (Getarian) eta bestea barrualdean (Azpeitian). Bi pertsonaia horiek eremu funtzionalak eskaintzen duen aniztasun horren lekuko dira.

Pertsonaia horien eta horien garaikideen, aurrekoen eta ondorengoen jarduna eta ilusioa funtsezko oinarri dira zeregin horretan; etorkizuneko garapenekin eta proposamenekin finkatu beharreko oinarria dira. Izatez, gorabehera guztien gaintik irauten duen leku batean, belaunaldiz belaunaldi aurrera egiteko zeregina eutsiko duten oinarria dira.

### **II.3.- BIZTANLERIA.**

66.500 biztanle inguru dago lurralde horretan (2001eko azken eroldaren arabera). Hortaz, lurraldearen batez besteko dentsitatea 2 bizt./ha-koa da, Gipuzkoako batez bestekoa baino askoz txikiago (%60 inguru txikiago).

Herritar horiek eta haien etorkizuna dira Plan honen xedea, nahiz eta Plana gizarteak eskatzen duen bizi-kalitatea lortzeko lurraldean definitu behar diren ekintza eta jarraibideetan oinarritzen den.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren gainerakoan ez bezala, eremu funtzionalean demografiak gora egin du etengabe eta nolabaiteko orekan azken mendean, hurrengo orrialdean agertzen den taulan islatzen den bezalaxe.

Eremu funtzionaleko biztanleriak bizi duen etengabeko goranzko prozesu horrez gain, taula horri esker beste bi alderdi garrantzitsu egiaztatu ahal izango dira:

- Kuantitatiboki, duela gutxi joan zaigun mendean, biztanleria 2,22 aldiz gehitu da lurralde honetan.
- Aztertu den azken hamarkadan, biztanleriaren gehikuntza kuantitatiboa % 7tik gorakoa izan da, eta tasa hori mende honen osotasunaren emaitzazko hamarkadako gehikuntzaren batez bestekoaren baliokidea da ia (% 8).

Bestalde, beste adierazle demografiko batzuk kontuan izanik, taulan deskribatzen den aldiko azken bi hamarkadetan, beste dinamika batzuk sortu direla hautematen da: hazkunde-prozesua mantsotu egin da, garapena polarizatuago dago, biztanleriak bizi-itxaropen handiagoa du, "adin-piramidea" errotik aldatu da, familien batez besteko tamaina murriztu da, bizi-kalitatea areagotu da, eta abar. Alderdi horiek guztiek baldintzatzen dute gaur egungo egoera demografikoa.

| <b>BIZTANLERIA</b>       | <b>1.900</b>  | <b>1.950</b>  | <b>1.960</b>  | <b>1.970</b>  | <b>1.981</b>  | <b>1.991</b>  | <b>2.000<sup>1</sup></b> |
|--------------------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|--------------------------|
| AIA                      | 2.261         | 2.633         | 2.617         | 2.393         | 1.935         | 1.680         | 1.648                    |
| AIZARNAZABAL             | 409           | 501           | 563           | 559           | 513           | 528           | 533                      |
| AZKOITIA                 | 5.506         | 7.714         | 8.561         | 10.317        | 11.029        | 10.470        | 10.245                   |
| AZPEITIA                 | 6.066         | 8.991         | 9.628         | 10.843        | 13.196        | 12.882        | 13.654                   |
| BEIZAMA                  | 634           | 514           | 460           | 306           | 175           | 175           | 156                      |
| ERREZIL                  | 1.530         | 1.377         | 1.419         | 1.193         | 762           | 675           | 617                      |
| GETARIA                  | 1.351         | 2.045         | 2.253         | 2.658         | 2.415         | 2.338         | 2.464                    |
| ORIO                     | 1.268         | 2.374         | 2.843         | 3.899         | 4.359         | 4.258         | 4.392                    |
| ZARAUTZ                  | 2.838         | 6.729         | 8.168         | 11.764        | 15.351        | 17.517        | 21.162                   |
| ZESTOA                   | 2.661         | 3.552         | 4.309         | 4.402         | 3.835         | 3.366         | 3.144                    |
| ZUMAIA                   | 2.404         | 3.541         | 4.444         | 6.341         | 7.840         | 8.133         | 8.447                    |
| <b>EREMU FUNTZIONALA</b> | <b>29.928</b> | <b>39.971</b> | <b>45.265</b> | <b>54.675</b> | <b>61.410</b> | <b>62.022</b> | <b>66.462</b>            |

Diagnostiko horri jarraituta eta planaren amaierako horizonteari begira, hiru agertoki demografiko irudikatu dira eremu funtzionalaren esparruaren osotasunerako.

Hala, 1. agertokiak hazkunde jarraitua hartzen du aintzat, azken mendean antzemandako hamarkadako batez besteko tasa aplikatuz. Izan ere, azken hamarkadari dagokion batez besteko tasaren parekoa da.

2. agertokiak azken bi hamarkadetako osotasunaren batez besteko tasa hartzen du aintzat, dinamismo txikiagoko erreferentziazko aldia baita.

<sup>1</sup> 2000ko abenduaren 31ko erroldaren arabera.

3. agertokian, aitzitik, azken hamarkadako joera areagotu egingo dela eta % 25era bitartean haziko dela hartzen da aintzat. Hori pentsatzeko hiru arrazoi daude: Donostia-Beterriko eremu funtzionalarekiko hurbiltasuna, kostaldearen eta barrualdearen arteko komunikazioen hobekuntza (Eibar-Gasteiz ardatza), eta eremu funtzionalaren ingurumen arloko kalitatea.

Planteatutako hiru agertokietan adierazten diren hazkunde-proposamenak indartzeko, kontuan izan behar dugu Urola-Kostako eremu funtzionalak duela Euskal Autonomia Erkidegoko eremu funtzionalen artean jaiotza-tasarik handiena, baita hazkunde naturaleko tasarik handiena ere 1991-1995 aldian.

Honako tauletan, aurretik aipatutako hiru agertokien ondoriozko parametroak kuantifikatzen dira.

| 1. AGERTOKIA                       | 2000KO BIZTANLERIA | 2018KO BALIZKO BIZTANLERIA |
|------------------------------------|--------------------|----------------------------|
| UROLA-KOSTAKO<br>EREMU FUNTZIONALA | 66.462             | 76.337                     |

| 2. AGERTOKIA                       | 2000KO BIZTANLERIA | 2018KO BALIZKO BIZTANLERIA |
|------------------------------------|--------------------|----------------------------|
| UROLA-KOSTAKO<br>EREMU FUNTZIONALA | 66.462             | 71.363                     |

| 3. AGERTOKIA                       | 2000KO BIZTANLERIA | 2018KO BALIZKO BIZTANLERIA |
|------------------------------------|--------------------|----------------------------|
| UROLA-KOSTAKO<br>EREMU FUNTZIONALA | 66.462             | 77.293                     |



Hiru egoera horiek alderatuz gero, antzeman daiteke, 3. agertokia egiazko iguripena den arren, urrunagoko horizonte batean gerta daitekeela, Planaren denbora-esparruaz kanpo. Planaren proposamenak ildo horretara bideratzen badira, batez ere, gertatuko da hori. Bestetik, 2. agertokiak egungo joera aldatzea dakar, eta egungo egoerak ez du itxuraz joera aldaketa hori eragiten. Joera aldaketa hori gertatzeko eremu funtzional mugakideetan (Donostia-Beterrin izan ezik) berrorekatzeko esku-hartze irmoko politikak garatu beharko dira, eta politika horien ondorioz soilik gerta daiteke Urola-Kostako eskaria murriztea.

Horrenbestez, lortutako emaitzak neurri batean edo bestean haztatuta, eta, horretarako, 81-91 aldian udalerrri askotan biztanleria benetan murriztu zela kontuan hartuta –eta, hala, garai hartako Zarauzko dinamismoa konpentsatu zuela aintzat hartuta–, eta, bestalde, 3. agertokian aurreikusten den ondorioa Planaren garapeneko azken aldian soilik gauza daitekeela gogoan izanik, honako proposamena egin da:

| AGERTOKIAK                     | 2018ko biztanleria | Haztapan-koefizientea | Haztatutako biztanleria |
|--------------------------------|--------------------|-----------------------|-------------------------|
| 1. agertokia                   | 76.337             | 0,95                  | 72.520                  |
| 2. agertokia                   | 71.363             | 1,15                  | 82.067                  |
| 3. agertokia                   | 77.293             | 0,90                  | 69.564                  |
| <b>PROPOSATUTAKO AGERTOKIA</b> | -                  | 1,0                   | <b>74.717</b>           |

Aurreko guztiari erreparatuz, eta planaren gaur egungo denbora-horizontea aintzat hartuta (2020. urtea), Urola-Kostako eremu funtzionaleko biztanleria denbora-erreferente horretan 75.000 biztanle ingurukoa izango da, eta horren arabera dimentsionatu dira proposamenak.<sup>2</sup>

Batetik, biztanleria oso zahartuko dela, eta, horrenbestez, gizartearen premiak aldatuko direla antzematen da. Bestetik, familiaren batez besteko tamaina 2,4 inguruko indizera murriztuko dela kalkulatzen da, eremu funtzionalean eta hurbileko inguruan aurreikusten denari moldatuz.

#### **II.4.- EGOERA SOZIO-EKONOMIKOA.**

Eremu funtzionalak ehun ekonomiko garrantzitsua du, betez ere industrian oinarritua. Ehun ekonomikoak 300 ha baino zertxobait gehiagoko azalera hartzen du, hau da, biztanle bakoitzeko industria-lurzoruko 50 m<sup>2</sup> gordineko ratioa. Industriaz gain, beste jarduera batzuk ere garatzen dira bertan, hala nola zerbitzuak, merkataritza, sektore turistikoa, lehen sektoreak (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza), zuzkidurak, eta abar. Hortaz, eremu funtzionaleko ekonomia askotarikoa da.

1996ko eremu funtzionaleko enpleguari buruzko datuen arabera, data horretan 21.089 enplegu zeuden eremu funtzionalean, % 50 barrualdean eta beste % 50 kostaldean. Kopuru horren ondorioz, 1.000 biztanleko 329 enplegu zeuden, eta ratio hori Gipuzkoako batez besteko ratioa baino txikiagoa da.

---

<sup>2</sup> Etxebizitza publikoen sustapenerako Lurraldearen Arloko Planaren Aurrerapenean aurreikusten dena baino zenbatespen handiagoa (66.682 pertsona 2008rako, 2000. urtean ia lortu den kopurua, eta 69.644 pertsona 2016. urterako).

Datu horiei erreparatuta, ikus dezakegu barrualdean (Iraurigin) emaitzazko ratioa batez besteko hori baino askoz ere handiago dela, eta kostaldean, aitzitik, ratioa batez bestekoa baino txikiagoa dela eta bizitegi-lan fluxuak gertatzen direla. Fluxu horiek nagusiki Donostialderantz bideratzen dira.

Horri guztiari gaineratzen badizkiogu eremu funtzionalaren kokapen, ingurune, irisgarritasun eta lurzoru-erabilgarritasuneko baldintzak, argi eta garbi antzematen da aniztasuna sendotu eta sustatu behar dela. Horrela, kanpoko zein bertako eskariari erantzun behar zaio, eta tamaina ertain eta handiko ekonomia-jardueretarako lurzoria prestatu beharko da, betiere ekimen publikoaren bitartez. Azken lan-ildo hori nagusiki kostaldeko esparruan gauzatu beharko da.

Nolanahi ere, eskari naturalek aurretik ere jarduerak dauden inguruneetan jarraitu beharko dute erantzuna aurkitzen, eta aldeztu aurretik ezarpen handia duten industria-sektoreak finkatuko dira: metalen produkzioa eta eraldaketa, zuraren industria eta abar. Dena den, kasu jakin batzuetan erabilerak aldatzeko esku-hartze konplexuagoak egiteko premia nabarmentzen da: zaharkituta dauden edo hiri-continuumean gaizki integratuta dauden industria-espazioak leheneratu behar dira, industria-jarduerak lurraldean egoki kokatu beharko dira berriro, eta industria-jardueretarako baldintza funtzional hobeak eta modernoagoak zuzkitu beharko dira.

Era berean, aisialdiarekin eta turismoarekin lotzen diren sektoreak sustatu behar dira. Sektore horiek lurraldearen osotasunean garatu beharko dira, eta barrualdeko zein kostaldeko baliabide naturalak, kulturalak eta abar optimizatu beharko dira.

Bestalde, salerosketaren arloan, kontsumoak Donostialdera "ihes" egiten duela antzeman da, eta horri aurreikusten den biztanleria-joera

gaineratzen badiogu, ondoriozta daiteke bertan merkataritza-eskaintza garrantzitsuagoa –kualitatiboki zein kuantitatiboki– finkatzeko baldintza egokiak daudela.

Ingurumen-kalitateak, lurzoru erabilgarria edukitzeak eta teknologia berriek, halaber, erraztu egiten dute eremu funtzionalean zerbitzu-sektorearen garapena. Industriaren sektoreari, heziketari eta eremu funtzionalaren ahalmenekin lotzen diren arlo berriei (kultura, ingurune, medikuntza eta abarri) lotuko zaie zerbitzu-sektore hori .

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren jarduera sendotu egin beharko da, eta ildo horretan jarraipena eman beharko zaie finkatu diren jardun ildoei, hau da, landa-garapen iraunkorrari dagokionez eta arrantza-portuei eta horien ekipamenduei dagokienez garatzen diren jardun ildoei. Ildo horretan, Getariako udalerria txakolina ekoizteko mahastigintzan espezializatu izana nabarmendu behar da.

Esparru horretan, giza faktoreak balio berezia hartzen du, kuantitatiboki zein kualitatiboki, eta gaur egun eremu funtzionalean dauden baldintzei gaineratu behar zaien garrantzi handiko aktiboa da.

Eremu funtzionalak, orokorrean, enplegu, zuzkidura eta bizi-kalitateko kuota handiak eskaintzen dizkio bertako biztanleriari; alabaina, etengabe egokitu beharko zaio eskariari eta lurraldearen beraren ezaugarriari eta aukerei.

Horrenbestez, eremu funtzionalean langabezia-tasa Euskal Autonomia Erkidegoko osotasuneko batez bestekoaren oso azpitik dago, eta, planteatzen den testuinguruan, horrek okupazioari dagokionez dinamika berriak aurreikusarazten ditu, aktiboen proportzioa asko gehitzea esate baterako.

Biztanleria zahartzea ere kontuan izan behar den beste alderdietako bat da. Ekipamenduen arloan egin beharreko beste ekintza askoren artean, aisialdiaren, osasunaren, laguntzaren eta antzeko beste arlo batzuen ondoriozko premiei erantzun behar zaie.

Urola-Kostako eremu funtzionala eraikitzeke prozesuari jarraipena emateak giza faktorea indartzea dakar. Lurralde honetan bizi, lan egin eta gozaten duen giza faktoreak erreferente sendoa izan behar du proiektuari jarraipena emateko.

Hori guztia, azkenik, eremu funtzionala definitzen duten ekosistemak orokorrean hartuta egin behar da, hau da, berehalako premiei eman beharreko erantzunen eta tokiko ezaugarrien eta bertan bizi diren izakien ezaugarrien arteko orekan egin behar da.

## **II.5.- LURRALDEA, KOKALEKUAK ETA HORIEN EGITURATZEA .**

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek Gipuzkoako Lurralde Historikorako bereizten dituzten sei eremu funtzionaletako bat Urola-Kostako eremu funtzionala da. 327 km<sup>2</sup>-ko azalera du, Gipuzkoak guztira hartzen duen azaleraren seiren bat. Iparraldetik hegoaldera 22 kilometro inguruko luzera du, eta ekialdetik mendebaldera 15 kilometro inguruko zabalera. Oinarrizko neurri horiek iparraldean 20 kilometro baino gehixeagoko kosta zorrotza duen paralelogramo irregularra definitzen dute.

Eremu funtzionala osatzen duen lurraldearen kalitatearen eta aniztasunaren lekuko nabarmenak dira bertako hondartza eta itsaslabar harritsuak –Zumaia eta Endata muturraren arteko marearteko

zabalgunetik Oria ibaiaren bokaleko ezker aldean nagusi diren lurraren tolestura bihurrietaraino-, baita bertako lurraldean zabaltzen den paisaia karstiko nabarmena ere -Izarraitz, Gazume-Ernio, Aizarna, Altzolara, eta abar-.

Egoera horren ondorioz, zaila izan da beti biztanleriaren kokaleku-premien eta ingurunearen balioa kontserbatzearen arteko beharrezko oreka. XII. mendera arte baserri barreiatuak eta landa-kokaleku txikiak nagusitu dira, gehienak eremu garaietan kokatuak (Aia, Aizarna eta abar). Ondoren, hiribilduak indartu ziren, eta horiek haranetan kokatzen hasi ziren: Zestoa, Azpeitia, Azkoitia eta abar. Adierazitako beharrezko oreka hori bilatzeko etengabeko jardun horren lekuko berezia da Getariako hirigunea. Jatorriz itsasoaren eta San Antonen aurrean altxa zen, itsaslabarren gainean, eta, pixkanaka, lekuarekin bat egin eta bere kaiak eta bere hareazko hondartzak hirigunean bertan integratu ziren.

Inguruneari dagokionez gaur arte egindako dokumentuek lurralde honen kalitateak jasotzen dituzte. Hala ere, kalitate horiek zehaztu egingo dira dokumentuan beren balioaren eta behar dituzten babes-neurrien arabera. Babes-neurri horiek, ordea, ez dira sakonak izango, dokumentu honen hedadurara egokituak baizik.

Urola-Kostako eremu funtzionala Gipuzkoako Lurralde Historikoko gainerako eremu funtzionalekin muga egiten duen eremu funtzional bakarra da, eta horrek zalantzan jarri ezin den zentraltasuneko baldintzak gaineratzen dizkio eremu funtzional honi.

Toloserriko eremu funtzionalarekin batera, Gipuzkoako espaziorik dinamikoena erekin -Donostialdea eta Bidasoa Beherearekin- zuzenean muga egiten duen eremu funtzional bakarra da. Gainera, Baiona eta

Donostia artean finkatu nahi duen mugaz gaindiko metropoli berriaren mendebaldean zuzenean kokatzen da.

Lehentxeago aditzera eman dugun moduan, lurralde honetako kokalekuak hasiera batean oso barreiatuta zeuden, eta, ondoren, garapen handiagoa izan zuten kostaldean eta haranen funtsetan. Lau herrik dute eremu funtzionalen 8.000 biztanletik gora: Zarautzek eta Zumaiak, kostan, eta Azpeitiak eta Azkoitiak, Urolaren ibarraren barrualdean. 2.000 biztanletik gorako beste hiru herri daude, eta tamaina txikiagoko beste gune ugari (horietako lau udalburu ere badira).

Donostia-Beterriko eremu funtzionala baztertuta, Urola-Kostako eremu funtzionala dugu Gipuzkoan 8.000 biztanletik gorako hirigune gehien duen eremu funtzionala, lurralde-oreka onaren lekuko. Errealitate horren isla dugu eremu funtzionalaren barruan, Azpeitia gisako hirigune batek biztanleria-pisua mantendu izana (% 22,5 1900. urtean - % 22,5 1950. urtean - % 20,5 2000. urtean). Azpeitia eta Azkoitia batera hartuta ere mantendu egiten da biztanleria-pisua –neurri txikiagoan bada ere– (% 43 1900. urtean - % 41,8 1950. urtean - % 36 2000. urtean). Izan ere, egoera hori ez da Gipuzkoan orokorrean gertatzen.

Lurraldeko kokalekuei dagokienez, bi aldaketa-prozesu gertatu direla ere antzematen da. Batetik, landaguneen biztanleria-pisua murriztu egin da, kuantitatiboki zein ehunekoetan (Aiak eta, pixka bat urrutixeago, Errezilek 1900. urtean ia Zarautzen biztanle kopuru bera zuten eta Getaria eta Orio baino biztanle gehiago zuten). Bestetik, Zarautzek hazkunde berezia izan du, XX. mendean ia 7,5 aldiz gehitu du bere biztanleria –eremu funtzionalak batez beste 2,22 aldiz gehitu du aldi horretan–.

Dinamika horiek aztertu ondoren, eta dinamika horiek zein egoeratan gertatu diren jakinda, Planari dagokio eremu funtzionaleko kokalekuak garatzeko prozesua bideratzea eta oreka egokia lor dadin saiatzea.

Ildo horretan, honako jardunak jo dira lehentasuneko ekintzat: Urola eta Narrondo ibaien bokalean hirigune bat finka dadin sustatzea, Zumaia Arroarantz hedatuz; Azkoitia-Azpeitia hiri-multzoak eremu funtzionalean duen biztanleria-pisua finka dadin sustatzea; gutxienez 100 biztanletik gorako hiriguneen tamaina murrizteko prozesua eten dadin saiatzea (Aiako eta Errezilgo hiriguneak eta beste gunek batzuk); eta berrorekatzeko proposamen horien esparruan, Zarautzen hazkunde eta dinamismo kontrolatuagoa bultzatzea.

Oria ibaiaren bokalean hirigune bat finkatzea planteatu da bigarren lehentasuneko ekintza gisa. Horrek epe luzera –Plan honen horizontez harantzago– Donostia-Beterriko eremu funtzionalean formulatuko diren proposamenekin bateragarri izan beharko du.

Orain arte gogoan izan ditugun bizitegi eta zuzkidurako kokalekuez gain, eremu funtzionalean ekonomia-jardueretarako askotariko kokaleku bereziak agertzen dira –denboraren poderioz bilakaera handia izan duten kokalekuak–.

Beren tamainagatik eta kokapen-baldintzagatik, Ibaieder ibaiaren ibarreko (Azpeitia) eta Azkoitiaren mendebaldeko kokalekuak nabarmentzen dira. Horiez gain, Aiako Ubegungo eta Santio erreko kokalekuak, Zarauzko Abendaño eta Errotaberrikoak, eta Oikia-Zumaiakoak eta Aizarnazabalgoak –Urola ibaiaren ibarrean– nabarmendu behar dira. Horien aurrean beste ezarpen-tipologia batzuk gertatzen dira. Isolatuago edo ez hain isolatu dauden ezarpen horiek, bestalde, mailaz maila erantzun zehatzak eskatzen dituzten beste hiri-erabilera batzuekin egiten dute lehia.



Aurreko guztian oinarriturik, 1995eko aurrerapenean formulatzen ziren hasierako proposamenen aurrean, lau lurralde-esparru (LE) bereiztea proposatzen da:

- Mendebaldeko Kostako LE: Urola eta Narrondo ibaien bokalea, Iraetaraino.
- Erdialdeko Kostako LE: Getaria eta Zarauzko kostaldea, Orruagatik Inurritzaraino, barrualderantz Pagoeta eta Aiara arte zabalduz.
- Ekialdeko Kostako LE: Oria ibaiaren bokalea eta Santio erreka, San Pedroraino, hegoaldean.
- Iraurgiko LE: Iraurgiko harana eta mendebaldean, hegoaldean eta ekialdean besarkatzen duen zirku menditsua –Izarraitz, Irukurutzeta, Oleta, Murumendi, Ernio eta Gazume–, Zestoa eta Aizarnako hiriguneetaraino, iparraldean.

Bestalde, eremu funtzionala, horren lurralde-esparruak eta bertako udalerrri eta gunek behar bezala egituratu beharra diagnostikatu da. Nabarmendu diren eremu funtzionalaren zentraltasun eta hurbiltasuneko baldintzek (Gipuzkoari eta Donostialdeari dagokionez hurrenez hurren) arindu egiten dute gero eta agerikoagoa egiten ari den problematika bat.

Kostatik hurbil bideratzen den autobideak egoki betetzen du bere funtzioa, Ekialdeko Kostako lurralde-esparruan dagoeneko proiektatu den sarbide baten faltan. Alabaina, eremu funtzionala egituratzen duten bide-sarea eta trenbide-sarea ez dira barne-mugikortasunaren baldintzetara egokitzen. Ez dira egokitzen beharrezko lotura-baldintzetara, hau da, hedatzen ari den lurralde batek gaur egun eskatzen duen eremu funtzional mugakideetarako lotura-baldintzetara, ezta etorkizun hurbilerako formulatzen diren proposamenetara ere.

Egoera horretaz jakitun, arlo horietan eskumena duten Administrazioak problematika hau jorratzen duten irtenbideak ari dira aztertzen eta proiektatzen.

Hortaz, lehen maila batean, kostarekiko paralelo bideratzen den barrualdeko ardatzean eta Urola haranaren ardatzean, bide-azpiegiturak eta trenbide-azpiegiturak hobetzeko premia nabarmentzen da, baita Zumaiako eta Zarauzko zeharbideak ebaztea ere, Getariarako sarbiderako.

Testuinguru horretan, garrantzi handikoa da Iraurgiko haranaren eta Urola Garaiaren (Urretxu, Zumarraga eta Legazpia) arteko konexioa hobetzea – gaur egungo fluxu sozio-ekonomikoak kontuan izanik–, Besain-Bergara ardatz berria gauzatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berrian Santa Luzian geltokia egitea.

Garrantzi handikoa da kostarekiko paralelo eta elkarzut –Urolako haranean zehar– bi ardatz egikaritzea, Oriotik Arroaraino eta Arroatik Zumarragaraino, hurrenez hurren, eta kasurik onenean bide-ardatzak zein trenbide-ardatzak izatea. Bi ardatz horiek gauzatuta, areagotu egingo litzateke eremu funtzionalak Gipuzkoako Lurralde Historikoan duen integrazioa eta, era berean, hobetu egingo litzateke Debabarreneko eta Goierriko eremu funtzionalekiko integrazio-baldintzak.

Jardun horiek zilegi eta beharrezkoak dira lurralde hau balioztatzeke, hau da, funtzionaltasuneko eta ongizateko kuotarik handienez zuzkitu daitekeen eta Gipuzkoaren osotasuna zuzki dezakeen lurralde bat balioztatzeke.

## **II.6.- 16 URTEKO HORIZONTERAKO AUKERAK.**

Dokumentu hau idazteko prozesuaren aldi berean bideratzen ari dira eremu funtzional mugakideetako Lurraldearen Zatik Planak, eta idazten ari dira askotariko Lurraldearen Arloko Planak. Aldi berean, “Baiona-Donostia euskal-eurohiria” ideiarengatik inguruko azterlanak idazten ari dira, eta Gipuzkoa 2020 (G2020) gogoeta prozesua garatzen ari da.

Plan bat denez gero, eta, zehazki, laster behin betiko onartzea proiektatzen den plan bat denez gero, epe labur eta ertainera jarraitu beharko diren jardun-ildoak definitu beharko dira. Hori dela eta, plan hau lantzen den aldi berean egiten diren etorkizuneko lanek ez dute erantzun zuzena dokumentu honetan. Dena den, dokumentu honen jarraipeneko prozesuan hartu ahal izango dira aintzat, edota dokumentu hau aldatzea edo berraztertzea eragin dezakete.

Horrenbestez, Urola-Kostako eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatik Plana 2005-2020 aldirako formulatu da.

2025. urteko horizonterako, baita 2020. urterako ere, zalantza asko antzematen dira, G2020 gogoeta-prozesuan jada nabarmentzen den moduan. Alabaina, horizontea laburtu ahala eta, zehazki, aztergai ditugun hurbilenean aldietan, zalantzak askoz ere txikiagoak dira, baita 2020. urterako ere.

Planean aztergai dugun aldia, beraz, hurbilagokotzat eta atzemangarriagotzat hartzen da. Aitzitik, migrazio-fenomeno kuantitatiboki handien ondoriozko edo beste egoera batzuen ondoriozko aldaketa handien balizko prozesuak urrunagokotzat hartzen dira.

Hala eta guztiz ere, nahikoa zalantza gaineratzen dituzte ongizatearen gizarteak, kalitatezko espazioen eskariak, iraunkortasunerako politikek, azpiegitura berri eta hobeen beharrak, ingurunearen zaintzak, familiaren irudian gertatzen diren aldaketa handiek –hiru bikotetatik bat desegin egiten da–, eta bizi-itxaropenen aurreikuspenek. Planak, beraz, zalantza horiek guztiak gaineratu egin beharko ditu.

Ildo horretan, egindako diagnostikoen eraginez eta plana lantzeko eta adosteko izapideetan orain arte jarraitu den prozesu luzearen ondorioz, aintzat hartu den horizonterako dokumentua idazteko oinarri sendoak finkatu dira. Ingurunearekiko eta elkarbizitza baketsuarekiko errespetuan oinarriturik, gizakiaren premien osotasunari erantzungo dien lurralde-eredua proiektatzen da. Hots, bizileku, heziketa, mugikortasun, aisialdi, gizarte-laguntza, osasun-laguntza, teknologia berrietarako sarbide eta abarri erantzungo dien lurralde-eredua proiektatzen da.

### **III.- EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN HELBURUAK**

Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen edukiei jarraituz, proposamenak Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen zehaztapenak garatzen ditu dagokion eremu funtzionalean 16 urteko denbora-helburuan, hau da, 2005-2020 aldian.

Lurralde Antolakuntzari buruzko Legea onartu zenez geroztik ia hamabost urte pasa dira, eta tarte horretan lekura hurbiltzeko eta lurraldea antolatzeko kultura berri bat sortu da. Kultura berri horretan garapen-iraunkortasunari buruzko irizpideak eta ingurunea babesteari buruzko irizpideak finkatu dira.

Kultura berri horri garrantzi handiko beste aldaketa bat gaineratu behar zaio azken hamarkada honetan. Erabakiak hartzeko adostasuneko giltzarriak aldatu egin dira, eta arlo horretan gizarte zibilaren zeregina alda dezaketen joerak antzematen hasi dira, baita Administrazioak edo administrazioek gizarte zibilarekiko duten zeregina alda dezaketen joerak ere. Dena den, liberalizazio azkarrak, segur aski, eragin negatiboa izango du batzuek aurreikusten duten aldaketa horretan.

Testuinguru horretan aurkezten da, halaber, 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren EAeko Ingurumen Estrategia, eta horrek ere Plan honen antzeko denbora-hedadura du.

Plan hau idazteko erabakia hartu zenetik, 1992. urtetik alegia, gaur egunera arte pasa den aldian, hau da, hamabi urte geroago, ideiak errotu ahal izan dira. Denboraldi horretan gertatutakoa baloratzeko aukera dago, baita lurraldean bertan gertatutako ere. Bestalde, eremu funtzionalaren funtsezko helburuak eragile interesdun guztiekin luze eta zabal aztertzeke aukera izan da.

Gure iritziz, ekintza adostuko prozesua gertatu da, beharrezko Plana eta, aldi berean, Plan bideragarria sortzeko asmoz guztiak eta dena aintzat hartu duen prozesua gertatu da.

Hortaz, gizartearen premiak eta ingurunearen errespetua abiapuntu izanik, eta lurraldea antolatzeke ekintza adostuan oinarritzen diren helburu orokor horiek kontuan izanik, bideratuko dira Planaren esparruan aztertu beharko diren helburu zehatzak.

Ildo horretan, ikuspegi sozio-ekonomikotik, gaur egun eremu funtzionalean dagoen oreka finkatu nahi da, eta ekonomia-sektoreen aniztasuna sendotu eta sustatu nahi da.

Horrela, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek planteatzen duten moduan, industria-sektorea finkatzea planteatzen da, hirugarren sektoreko jarduerak ezartzeari eta anizteari bultzada handia eman nahi zaio –industriarekin zuzenean lotzen diren zerbitzu zehatzak eta aisialdiarekin eta turismoarekin lotzen direnak, kostaldeari zein barrualdeko landa-inguruneari dagokionez–. Gainera, eraikuntza-sektoreak gaur egun duen kotari eutsi nahi zaio, eta lehen sektorearen jarduna mantendu nahi da, arrantzaren arloan zein nekazaritza eta abeltzaintzaren arloan.

Zehazki, eremu funtzionalaren barruan, lanaren eskaintzaren eta eskariaren arteko barne-oreka lortu nahi da, ingurunea metropolizatzeko balizko prozesuaren esparruan gertatzen diren bizilekua-lanlekua fluxuak edozein izanik ere. Horrenbestez, eta azken urteetan gertatzen ari denaren ildotik, 2020. urterako langabezia-tasa oso murrizteko helburua aurreikusi da; horretarako, teknologia berrien erabilera orokortu egingo da, eta enplegu berriak sortuko dira. Sortuko diren enplegu horiek gauza izango dira, era berean, gaur egungo aktiboen proportzioan espero den gehikuntza bere gain hartzeko.

Planaren horizontean honako aktiboen proportzioak sortzea proposatzen da ekonomia-sektoreen arabera (parentesi artean 1996an eremu funtzionalean agertzen ziren proportzioak adierazten dira, eta parentesi bikoitzaren artean data horretan bertan Gipuzkoako osotasunari dagozkionak):

|                        |      |         |          |
|------------------------|------|---------|----------|
| Lehen sektorea         | % 5  | (% 7,5) | ((% 3))  |
| Bigarren sektorea      | % 38 | (% 43)  | ((% 39)) |
| Hirugarren sektorea    | % 49 | (% 41)  | ((% 51)) |
| Eraikuntzaren sektorea | % 8  | (% 8,5) | ((% 8))  |

Horretarako, honakoak hartuko dira sektore indartsutzat: eremu funtzionalean tradizioz ezarri diren jarduera horiek (metalen produkzioa eta eraldaketa eta zuraren industria); nolabaiteko tradizioa duten beste jarduera batzuk, hala nola trenbide teknikak (Urolaren trenbidea, trenbidearen museoa eta abar), medikuntza eta gerontologia (Zestoako bainu-etxea), kultura (historiaurreko ondarea eta pertsonaia unibertsalak, Loiola eta Elcano esate baterako), eta ingurumen-teknikak (jasotako lurraldearen kalitatea eta aniztasuna); eta, azkenik, gaur egun aukera handiak eskaintzen dituzten beste jarduera batzuk, hala nola komunikazioko teknikak.

Jarduera horiei guztiei sektore turistikoko garatuago baten aldeko apustua gaineratu behar zaie. Sektore turistikoa turismoa urtaro jakin batzuetan metatzearen joera gairatu beharko du. Horretarako, eremu funtzionalaren aniztasunean eta Planak aurreikusten duen zuzkidura, kultura eta ingurumenaren arloko eskaintzan oinarrituko da.

Helburu horiek lortuko badira, bertakoek emaitzazko premietarako egoki prestatu beharko dute. Hori dela eta, helburu osagarri gisa lanbide-heziketa egokitzea planteatu beharko da, betiere lanbide-heziketaren gaur egungo oinarriak abiapuntu izanik.

Horrez gain, ezinbestekoa izango da bidezko lurzorua prestatzea eta lurzoru horrek baldintza egokiak edukitzea (kokapena, irisgarritasuna...), eta, hala, eremu funtzionala behar bezala egituratzeko funtsezko helburua jorratzea.

Prozesu horrek guztiak ingurunea zaintzea izan beharko du kontuan. Lurraldearen ingurunea babestea eta formulatzen diren proposamenetan eta helburuetan barne hartzea funtsezkoa izango da.

Horrenbestez, aurretik aditzera eman diren helburu guztiei beste funtsezko helburu bat gaineratu behar zaie: lurraldearen ingurumen-kalitate handia balioztatzea. Izan ere, lurralde-esparru honetan ingurunea ez da kalitateko alderdi hutsa, kantitate eta aniztasuneko alderdia ere bada. Kostaren interes naturalistikoa itsaslabar, hondartza eta itsasadarretan da nagusi. Barrualdearen interes naturalistikoari dagokionez, berriz, Pagoeta-Gazume-Ernio eta Izarraitzeko mendiguneak nabarmendu behar dira –mendigune horiek kostatik hurbil izanik ere 1.000 metrotik gorako altuera dute–. Eremu funtzionalaren interes naturalistikoa babestu eta behar bezala balioztatu behar den aktiboa da.

Ikuspuntu demografikotik ikusi dugu, Gipuzkoan gertatzen den atzerako joeraren aurka, eremu funtzionalean etengabeko gorako hazkundera gertatzen dela. Hortaz, joera horrek eta lurraldearen berezko aukerek eraginda, hazkunde demografiko positiboa planteatzen da Planaren 16 urteko horizonterako. Aurretiazko diagnostikoan aditzera eman den moduan, 8.500 biztanle berri inguru kalkulatu da, eta horrek urtean batez beste % 0,67ko hazkundera eta 2020. urterako 75.000 biztanle inguruko populazioa izatea dakar. Egindako diagnostikoan eta azken urteetan gertatukoan oinarrituta egin da hipotesi hori.

Hipotesi demografiko horren arabera kuantifikatu da, bestalde, etxebizitzaren arloan garatu beharreko eraikuntza-ahalegina, hipotesi horren ondoriozko eskariari erantzun egokia eman behar zaio-eta.

Helburu hori finkatzeko, etxebizitza-premien dimentsionamenduan eta etxebizitzaren tipologia egokiak finkatzeko garaian eragina duten aldagai guztiak hartu dira kontuan. Ildo horretan, Planaren horizontean adierazle hauek duten eragina hartu da aintzat:



- Eremu funtzionalaren osotasunerako aurreikusi den hazkunde demografikoak (8.500 biztanle gehiago).
- Familia berriak osatzearen ondoriozko premiak, gaur egungo “adin-piramidearen” ezaugarriak kontuan izanik.
- Familia berriak sortu ondoren, jaiotza-tasak zertxobait gora egingo duen aurreikuspenak.
- Bizi-itxaropena areagotzeak eta, beraz, biztanleria zahartzeak.
- Familiaren batez besteko tamaina murrizteak.
- Gaur egun dagoen etxebizitza-parkea birjartzeko eta egokitzeko premiak (etxebizitzen batez besteko tamaina txikitu beharrak).
- Hutsik dauden etxebizitzen eta bigarren bizitegiko etxebizitzen parkearen bilakaerak.
- Prezioak eskaintzaren eta eskariaren arteko orekan duen eraginak.
- Eskariari erantzun ahal izateko dimentsionamenduan kontuan izan behar den zuzenketak, Plana garatzeko epean horren kudeaketak dituen zailtasunak aintzat hartuta.

Adierazitako biztanleria-helburua lehentxeago justifikatu ostean, jarraian labur-labur baloratuko dira nabarmendutako honako aldagaien ondorioak.

Hala, eremu funtzionaleko “adin-piramideen” azterketa eginez gero, emantzipatzeko adinean daudenen multzoa zabaldu egiten dela ikus dezakegu, hau da, etxebizitza eskatzeko daudenen multzoa gero eta handiagoa da. Hori dela eta, premiazko helburu zehatza definitu behar da: eskari horri epe laburrean edo epe ertainean erantzun beharko zaio.

“Adin-piramidearen” osaerak berak murriztu egiten du aldagai horren eragina planaren amaierako horizontean; hortaz, garrantzi handikoa da arlo horretako irtenbideak denboran programatzea.

Egoera horretan, jaiotza-tasak gora egiteak ez du ondorio adierazgarririk izango Planaren horizonte zehatzean; alabaina, epe luzerako ondorioak izango dituelakoan eman dugu aditzera bertan.

Aitzitik, bizi-itxaropena areagotzea garrantzi handiko zalantza da, eta gizarteak berehala prestatu beharko du bere burua horren ondoriozko premia berriei behar bezala erantzuteko. Premia horien artean bizitegien premia dago, eta bizitegien premia horrek askotariko modalitateak hartzen ditu: etxebizitza komunak, babespeko etxebizitzak, etxebizitza taldekatuak, egoitzak eta abar.

Biztanleria zahartzeak, jaiotza-tasa jaisteak, familiaren krisialdiak eta beste aldagai batzuek guztiz aldatzen dute beste aldagai bat: familien batez besteko tamaina murriztu egin da. Dena den, fenomeno hori aspalditik gertatzen da, eta dagoeneko lehen erantzuna eman zaio 1996-2001 aldian Zarautz, Azpeitia eta Orioko bizitegi-garapen garrantzitsuetan, besteak beste.

Eremu funtzionalean etxebizitza nagusien kopurua % 31,33 hazi zen 1981 eta 1996 artean, eta aldi horretan bertan biztanleria % 4,5 baino ez zen hazi.

1996ko erreferentzien arabera, etxebizitza bakoitzeko 3,33 biztanleko batez besteko ratioa lortzen da.

Aitzitik, 1981. urteari dagozkion datuen arabera, 60.500 biztanle zeuden bertan, eta etxebizitza bakoitzeko biztanleen batez besteko ratioa 4,31koa zen. Datu horiek alderatuz gero, argi eta garbi ikus daiteke dokumentu honetan proposatzen denaren antzeko denbora-horizontean gertatu den joera.

Dena den, dagoeneko gertatu da aldaketarik handiena. Aditzera emandako datuek hala frogatzen dute, eta, etxebizitza nagusiaren okupazioa beheranzko joeran jarraituko duen arren, beherakada hori aurrerantzean makalagoa izango da, dagoeneko lortu diren indizeak kontuan izanik.

Alabaina, nabarmendu behar da Urola-Kostako eremu funtzionalak duela etxebizitza bakoitzeko biztanle-okupazioaren tasarik handiena (3,33) Euskal Autonomia Erkidegoko eremu funtzional guztien artean. Lehentxeago aditzera eman ditugun etorkizunerako egoera berri horiez gain, azken egoera horrek ere baldintzatu egingo du eremu funtzionalean familiaren batez besteko tamaina murrizteko fenomeno orokorraren erritmoa. Horrenbestez, eragina izango du bizitegi-eskaintza berria kuantifikatzean eta beren tipologia eta tamaina zehaztean ere.

Ildo horretan, garrantzitsua gertatzen da aurretik dauden eraikuntza-tipologiak aldatzeko fenomeno eta, zehazki, etxebizitzaren batez besteko tamaina murrizteko prozesua, betiere ondare eraikia birgaitzeko prozesuen esparruan. Birgaitzeko eragiketa horrek bizitegi-eskaintza garrantzitsua gaineratzen du etxebizitza-unitateei dagokienez.

Eremu funtzionalean badago beste aldagai garrantzitsu bat, hutsik dagoen etxebizitzaren kopurua oso handia da. Batzuk beti daude hutsik, eta beste batzuk, berriz, urtaro jakin batzuetan soilik daude okupatuta. Azken kasu horretan, bigarren bizitegi gisa erabiltzen dira, eta zati batean erantzun egiten diote eskaera turistikoari. Izan ere, gerta daiteke eskaera turistikoa bera urtaro jakin batzuetan metatzearen eraginez, eremu funtzionalak ez edukitzea sektore horretan eskaintza egokirik. Horrenbestez sektore turistikoa behar bezala garatu beharko da.

Eskura ditugun datuak aztertuz gero, nabarmendu behar dugu okupatu gabeko etxebizitzaren ehunekoa, hau da, hutsik dagoen etxebizitzaren eta bigarren bizitegiaren ehunekoa murriztu egin dela, 1981. urtean % 33 kalkulatu zen, eta 1996. urtean % 27. Datu horien arabera, okupatu gabeko etxebizitza 6 puntu murriztu da 1981-1996 aldirian, eta datu garrantzitsu hori dokumentu honek proposatzen duen denbora-horizontearen antzeko denbora-tartean gertatzen da.

Bestalde, arlo honetan beste balorazio bat egin behar da; okupatu gabeko etxebizitzaren kopurua kuantitatiboki egonkor samar mantendu da aldi horretan: 7.261 etxebizitza 1981. urtean, eta 7.317 etxebizitza 1996. urtean. Horrek agerian uzten du gaur egun merkatuaz kanpo dauden eta birgaitu behar den etxebizitza zaharren kopurua handia dela, eta bigarren etxebizitzaren eskaintza egonkorra dela. Horrenbestez, bizitegi-eskaintza orokorrean duen eragina –ehunekoetan– murriztu egingo da, eta hori positiboa da, nahiz eta proposatzen den ereduak turismoari erantzuteko beharrezko ordezkari azpiegitura sortzea hartu behar duen aintzat.

Gauzak horrela, hurbileko etorkizunerako antzematen den egoeran, ez da aldaketa nabarmenik hauteman bigarren bizitegiaren inguruko portaerari dagokionez. Dena den, planaren amaierako horizontean, eta eremu funtzionalak dituen ahalmenak kontuan izanik, eremu funtzionalean eskari hori gehiago garatzea ekarriko duen egoera hartu da aintzat, eta halaxe proposatu da. Alabaina, eskari turistikoak sektoreko neurrietan aurkitu behar du erantzuna, eta zati batean soilik bideratu beharko dira bigarren bizitegiko etxebizitzaren moduan.

Horren guztiaren ondorioz, hutsik dauden etxebizitzaren parkea berritzea ekarriko duten birgaitze-prozesuak bideratzea aurreikusten da. Etxebizitza horiek, ondoren merkaturatu egingo dira eta, hala, murriztu egingo da okupatu gabeko etxebizitzaren ehunekoa. Bestetik, bigarren bizitegiko eskaria

asetzeko 1.000 etxebizitza inguru egingo dira. Ondare eraikiaren gainean orokorrean egin beharreko birgaitzeko esku-hartzeen bitartez, etxebizitzaren batez besteko tamaina murriztea eta, hala, 500 etxebizitza berri inguruko eskaintza sortzea aurreikusten da.

Testuinguru horretan, etxebizitzaren prezioa da, inolako zalantzarik gabe, kontuan hartu beharko den beste aldagai bat. Etxebizitzaren prezioak oso azkar egin du gora –eta oraindik ere oso azkar egiten ari da gora–, batez ere tamainarik handieneko hiriguneetan. Hori dela eta, behar-beharrezkoak dira etxebizitza berriak osa eta finka daitezen erraztuko duten sektoreko politikak.

Hala ere, eremu funtzionalean babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeak ez dio behar bezala erantzun egoera horri, ez da bidezko eskaintza egin. Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurraldearen Arloko Planaren Aurrelaburpenean ohartarazten den moduan, 1986-2000 aldian 886 babes ofizialeko etxebizitza soilik eraiki da eremu funtzional honetan, eta horietako 71 baino ez da etxebizitza sozialaren erregimenpean sustatu.

Zenbateko horiek erakusten dutenez, urtean batez beste 60 babes ofizialeko etxebizitza eraiki da eremu funtzional honetan, hots, 65.000 biztanle baino gehiago dituen eta hazten ari den eremu funtzional honetan. Ratio hori Euskal Autonomia Erkidegoko osotasunerako batez besteko ratioa baino askoz ere txikiagoa da.

Premia horri erantzuteko, ordea, ez da zuzenean etxebizitza berriak eraiki behar –lehen fase batean nahitaez egin beharko den arren–, egokiagoa izango da aldi berean beste neurri batzuk bideratzea: etxebizitza publikoen parkearen erabilera txandakatzea erraztuko duten neurriak, lehen etxebizitza eskuratzea sustatuko duten neurriak (gazteentzako apartamentuak edo beste batzuk), eta beste neurri batzuk.

Azkenik, eta beste aldagai batzuk aintzat hartzearen kalterik gabe, bizitegi-eskaintzaren kuantifikazioa behar bezala dimentsionatu beharko da. Izan ere, etxebizitzaren eskaintzari erantzutean, Planaren garapen-epean etxebizitzak kudeatzeko eta merkaturatzeko dauden zailtasunak hartu behar dira kontuan (lurzorua sailkatzea eta kalifikatzea, lurzorua prestatzea –kudeaketa eta urbanizazioa–, lurzoruak atxikitzea eta abar). Ildo horretan, Plan honen denbora-dimentsioa zabal samarra denez gero, aplikatzen diren koefiziente zuzentzaileak udal-plangintza orokorrean aplikatzen direnak baino askoz ere txikiagoak dira, azken horien denbora-horizontea erdia baita. Izatez, Plan honen denbora-horizontearen ondorioz, eta prozesuen ebaluazioen eta proposatzen diren jarraipeneko estrategien eraginez, formulatutako hipotesiak garaiz berraztertzeko aukera dago. Horrenbestez, Planaren esparruan 1,2ko koefiziente zuzentzailea hartzea aurreikusi da eremu funtzionalaren osotasunerako.

Aldagai horiez gain, orain arteko errealitatea baloratuko da. Batetik, eremu funtzionalean egin den eraikuntza-ahaleginaren ondoren, 4.596 etxebizitza eraiki ziren koiuntura aldakorren mende izan zen 1981-1996 aldirian, hau da, urtean batez beste 306 etxebizitza eraiki zen.

Haatik, Udalek eskainitako datuen arabera, azken zortzi urteotan 600 etxebizitza baino gehiago eraiki dira urteko, eta zenbateko hori bat dator 1997-2000 aldirako eremu funtzionalean eman den lizentzia kopuruarekin, EUSTATen datuen arabera. Urteko eta 1.000 biztanleko 9 etxebizitza baino gehiagoko ratioa da, normalean aintzat hartzen diren ratioak baino askoz handiagoa (urteko eta 1.000 biztanleko 5 eta 6 etxebizitza artean). Horrek, beraz, argi eta garbi erakusten du eremu funtzionalaren dinamika berezia.

Testuinguru horretan, Planak 2005-2020 aldirako etxebizitzaren arloan dituen helburuak zehaztu dira. Horretarako, kontuan hartu da Urola-Kostako

eremu funtzionaleko biztanleria 22.000 etxebizitzatan baino gehiagotan bizi dela –bertan 30.000 etxebizitzatik gora egonik–, baita 75.000 biztanleko horizonte demografikoa kalkulatu dela, etxebizitzako 2,4 biztanle inguruko okupazioa dagoela, eta adierazitako aldaeren integrazioa gertatuko dela ere.

Hortaz, etxebizitzaren arloan honako helburua formulatu da:

- Eremu funtzionalean, Planaren horizontean, 12.000 etxebizitza berri egitea proposatuko da.
- Aurreikusitako koefiziente zuzentzailea kontuan izanik, dimentsionatze horrek aldi horretan gutxi gorabehera 10.000 etxebizitza berri eraikitzea dakar. Horietako 500 birgaitzeko prozesuen ondorioz sortuko dira. Guztira 40.000 etxebizitzatako parkea finkatuko da.
- Bestalde, okupatutako etxebizitzaren indizeak gora egiten jarraituko duela eta % 78ra arte inguratuko dela kalkulatu da. Bigarren bizitegia kuantitatiboki haziko da (1.000 unitatetik gora), eta hutsik dagoen etxebizitzaren kopurua pixka bat murriztuko da. Etxebizitza nagusien kopurua 31.000 etxebizitzatik gorakoa izango da, hau da, 9.000 etxebizitza baino gehiagoko igoera izango da aldi horretan. Hortaz, eremu funtzionalean urteko batez beste 500 etxebizitza nagusi inguru sortuko dira, eta horiei bigarren bizitegirako batez beste zuzenduko diren 50 unitate baino gehiago gaineratu behar zaie. Etxebizitzako kopuru horretan birgaitzeko prozesuen ondoriozko etxebizitzak ere barne hartu dira.
- Arlo horretan formulatu beharreko helburuen artean, babes ofizialeko erregimenpean sustatu beharreko etxebizitzaren aurreikuspenaren kuantifikazioa barne hartu behar da. Ildo horretan, Etxebizitzaren

Sustapen Publikorako Lurraldearen Arloko Planaren Aurrelaburpenean eskaria 2.600 etxebizitzatan dimentsionatu da 2015. urterako. Zenbateko hori Plan honen horizontera eramanez gero, 3.100 etxebizitza izango lirateke. Hala ere, dokumentu hartan eta dokumentu honetan bertan, demografiari dagokionez, formulatzen diren aukerak kontuan hartuta, eta gaur egun dagoen eskari metatuta aintzat hartuta, zenbateko hori 3.900 etxebizitzatara heltzen da, hau da, guztizko eskaintzaren heren bat. Urteko batez beste 215 babes ofizialeko etxebizitza sortuko dira, eta, hala, gaur egungo eskaintza hirukoiztu egingo da. Eskaintza hori txikia den arren, eremu funtzionalerako Etxebide Planaren zehaztapenetara egokitzen da.

Bizitegi-kuantifikazioari dagokionez, Planaren horizonterako egiten den dimentsionatzeak, eta udal-plangintza orokorra berraztertzearen ondorioz egin beharko den dimentsionatzeak baliokideak izan beharko dute. Bi aldagairi jarraituko zaie: batetik, kasuak kasu bidezko epeari eta koefiziente zuzentzailerik handienari, eta, bestetik, eskarian antzematen den berehalakotasunari –izan ere, aurretik ohartarazi da zatirik handienari epe laburrean erantzun behar zaiola–. Hala, datozen sei urteetan, urteko batez beste 600 etxebizitza baino zertxobait gehiago sortzea aurreikusten da (gaur egungo produkzioaren baliokidea). Ondoren, ratio hori hurrengo hamabi urteetan pixkanaka murriztea eta Planaren amaierako horizonterako urteko 500 etxebizitza inguru sortzea aurreikusten da. Era berean, Plana egikaritzeko aukera emango duten babes ofizialeko etxebizitzak lehenbailehen eraikitzea proposatzen da, etxebizitza eskatzen duen gazteria bertatik ihes egin dezan saihestu beharko baita. Gauzak horrela, eta arlo horren inguruan adierazitako politiken ildotik (etxebizitzak txandakatzeko politika batez ere), datozen sei urteetan babes ofizialeko etxebizitzen urteko eskaintza 300 etxebizitzatakoa izatea proposatzen da, eta hurrengo bi seiurtekoetan urteko 200 etxebizitzatara eta 130 etxebizitzatara murriztea proposatzen da.



Bestetik, eta etxebizitzaren arloan, barreatutako baserriak finkatzea planteatzen da, eta horretarako bizitegi erabilera autonomora bidera daitezzen proposatzen da, betiere eraikinak aurretik etxebizitza gisa erabili izan badira.

Planaren funtsezko helburuak osatzeko, eta eremu funtzionalean ongizatea eta ingurumen-kalitatea lortu nahi izatearen irizpidetik, Urola-Kostako lurraldea udalaz gaindiko mailan egituratuko duten ekipamenduak, espazio libreak eta zerbitzu-azpiegiturak antolatzeari ekingo zaio.

#### **IV.- PLANAREN KOMENIGARRITASUNARI ETA AUKERARI BURUZKO JUSTIFIKAZIOA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legean definitzen den bezalaxe, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak erreferentziazko esparru orokorra dira gainerako antolamendurako tresnak formulatzean. Gainera, antolamendu xehatuaren xede izan behar duten eremuak Lurraldearen Zatiko Planen bitartez definitu behar dira.

Onartu diren eta indarrean dauden Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek, testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eredua definitzen dute. Lurralde-eredu hori grafikoki irudikatzen da dagokion informazio-planoan. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek Urola-Kostako eremu funtzionala mugatzen dute, eta bere esparruan dagokion Lurraldearen Zatiko Plana idaztearen beharra ezartzen dute.

Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen legezko aginteak behar beste justifikatzen du dokumentu hau idaztearen komenigarritasuna eta aukera.

Nolanahi ere, aditzera eman behar da legezko aginte horri gaur egun honakoa gaineratu egiten zaiola: lurralde berean proposatzen diren sektoreko politikak koordinatu beharra –horietako asko dagoeneko Lurraldearen Arloko Planen aurrelaburpenetan bideratuta daude–, eta udalen plangintza orokorra berraztertze ko prozesuak idaztean aintzat hartu behar diren oinarriak definitzeko aukera –Aizarnazabalen, Azpeitian, Azkoitian, Orion, eta Zarautzen, Aian eta Getarian lantzen ari dira–.

Horrek guztiak justifikatu egiten du, beraz, Plana idaztearen eta bideratzearen komenigarritasuna eta aukera.

## **V.- INDARREAN DAGOEN ETA BIDERATZEN ARI DEN LURRALDEAREN ARLOKO PLANGINTZA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen garapenean hainbat Lurraldearen Arloko Plan ari dira bideratzen eta horietako batzuk behin betiko onartu dira jada: Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarrari eta mediterraniarrari dagozkionak), Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbidea Arautzeko Lurraldearen Arloko Plana, Euskal Autonomia Erkidegoko Haize Energia Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, Euskal Autonomia Erkidegoko Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

Lehenengoari dagokionez, lanaren zuzendaritzaren iritziz, honako dokumentu honek Plan horren edukia jaso eta bere proposamen orokorrean barne hartzen du. Bereziki nabarmentzen da proposatutako ibaien tartek bereiztea, bidezko antolamendu-araudia bideratzea, eta ibaien eta erreken ur-bazterretako haltzadiak babestea.

Bigarrenari dagokionez, Plan hori Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sarearen osotasunari dagokio, eta bereizi egiten dira gaur egun dagoen sarea eta sare berria. Horrela, dokumentu honen mende den eremu funtzionalean ez dira proposatutako sare berriaren inguruko eskuhartzeak espresuki planteatzen, nahiz eta Plan horrek Santa Luzian, Azkoitiko udalerritik oso hurbil, geltoki bat kokatzea aurreikusten duen, eta proposamenaren esparruan alderdi hori aintzat hartu behar den. Gaur egun dagoen sareari dagokionez, berriz, Bilbo-Donostia trenbideko Lasarte-Deba tartea eta Urolaren trenbidea nabarmendu behar dira. Lehena gaur egun erabili egiten da, eta bigarrena, aitzitik, Lasao-Azpeitia tartean izan ezik, ez da erabiltzen. Proposamen honek bi sare horiek finkatzea eta osatzea proposatzen du.

Hirugarrenari dagokionez, Plan honek Gazumeko parke eolikoaren proposamena txertatu du, behin-behineko onarpenaren arabera.

Laugarreni dagokionez, bestalde, Planak hezeguneetan –Zarauzko Artikoko eta Astiko esparruetan batik bat– eragina duten hainbat proposamen egin ditu. Plana behin-behineko onartzen duen erabakiari jarraituz, Lurraldearen Arloko Planean ezartzen diren erabileren eta jardueren erregulazioa errespetatu beharko da esparru horietan. Horrek bi planen arteko kontraesanen bat jarri du agerian.

Bosgarrenaren arloan, aitzitik, ez da desberdintasun adierazgarririk antzeman.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren salbuespena izan ezik, Plan honek ez du eragin handirik indarrean dauden Lurraldearen Arloko Planetako edukian. Nolanahi ere, adierazi behar da aipatutako bigarren kasuan ere eragin zehatza baduela, aurrera ikusiko dugun moduan.

Bestalde, beste Lurraldearen Arloko Plan batzuk behin betiko onartu gabe garatu dira, eta dagozkien arloetan nahikoa landu diren irizpideak eta erreferentziak biltzen dituzte. Irizpide eta erreferentzia horiek ere aintzat hartu dira honako dokumentu hau idaztean. Egoera horretan honako Lurraldearen Arloko Plan hauek daude: Gipuzkoako errepideak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, EAEko itsasertza babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, euskal kultur ondarea antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, nekazaritza eta baso-lanak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana –ingurune naturala gaineratzen zuen lehen formulazioa barne–, eta etxebizitzaren sustapen publikorako lurzorua antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

## **VI.-UDALERRIETAN INDARREAN DAGOEN ETA BIDERATZEN ARI DEN HIRI PLANGINTZA**

Urola-Kostako eremu funtzionaleko hamaika udalerriek plangintza orokorreko dokumentuak dituzte, eta dokumentu horiek beren udal-mugarateak oso-osorik antolatzen dituzte. Guztiek indarrean dituzte dokumentu horiek, ez dira hamasei urte onartu zituztela. Orokorrean, zenbait aldaketa zehatz izan dituzte dokumentu horiek, eta, horrenbestez, behar bezala islatzen dituzte udal-proiektuak. Hala ere, Aizarnazabalek eta Zumaiak azken bi urteetan onartutako dokumentuak dituzte –Zumaiak zati batean–, eta beste sei udalerrik, berriz, hasiera eman diote beren

plangintza orokorra oso-osorik berraztertzeke prozesuari –Aiak, Azkoitiak, Azpeitiak, Getariak, Oriok eta Zarautzek–.

Urola-Kostako eremu funtzionalaren Lurraldearen Zatik Plan honek indarrean dauden eta zati handi batean egikarituta dauden udal-plangintza horien zehaztapenak hartu ditu kontuan. Formulatu duen proposamenean barne hartu ditu zehaztapen horiek; alabaina, denborarekin garatu beharreko beste zehaztapen batzuk ere proposatu ditu, eremu funtzionalaren osotasunerako ezartzen den lurralde-ereduaren edukiari jarraituz.

Laburbilduz, ondoren udalerriz udalerriko ibilbidea egingo da, bakoitzaren plangintza orokorreko tresna-mota deskribatuko da. Behin betiko onartu zen data adieraziko da, eta bertan aztergai dugun planaren ikuspegitik zehazten diren zenbait ezaugarri jasoko dira.

## **VI.1.- AIAKO UDALERRIKO PLANGINTZA OROKORRA**

Aiako Udalak 1993. urtean behin betiko onartu zen Arau Subsidiarioetako dokumentu bat du. Dokumentu horren garapenean, askotariko plangintza xehekatuko dokumentuak bideratu dira, eta Arau Subsidiario horien zenbait aldaketa zehatz ere egin da. 1999. urtean, Udalak bere plangintza orokorra berraztertzeari buruzko gogoeta-prozesu bati eman zion hasiera. Gogoeta-prozesu horren ondorio nagusi gisa Lurraldearen Zatik Plan honen ondorioei itzarotea planteatu zen, hau da, honako Lurraldearen Zatik Plan honen udalaz gaindiko hedadurako zehaztapenen edukiek duten eragina aztertzeke aukera izatea erabaki zen. Horrez gain, hirigunearen eta Santioko gunearen kasuan aldaketa zehatza bideratzea erabaki zen. Haatik, duela gutxi eman zaio hasiera Arau Subsidiario horiek berraztertzeke prozesuari.

Azken urteetan urteko batez beste 20 etxebizitza inguru eraikitzeke lizentzia eman da, eta esku-hartze horietako asko hirigunea birgaitzeke prozesuei dagokie.

Indarrean dauden eta bideratzen ari diren proposamenen indarrez –Plan honen proposamenekin kontraesanen ez dauden proposamenen indarrez jakina–, udal-plangintzak industriarako eta bizitegirako lurzoru berriak antolatu ditu. Lehen kasuan, batez ere bertako garapenei erantzuten zaie, eta bigarren kasuan 150 etxebizitza berri inguru eskainiko dira.

Aurretik aditzera eman dugun gogoeta-prozesuan hirigunearen eta Elkanoren inguruan beste lurzoru batzuk bizitegi-garapenerako bideratzea baloratu zen.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzak Oriako itsasadarraren ezker aldean, hau da, Aiako udalerrian arrantza-portu bat antolatzea sustatzen du.

## **VI.2.- AIZARNAZABALGO UDALERRIKO PLANGINTZA OROKORRA**

Aizarnazabalgo udalerriak 2003an behin betiko onartu zen Arau Subsidiarioetako dokumentu bat du, eta zati batean ordezkutzen du 1991. urtean onartutakoa. Dokumentu horren garapenean askotariko plangintza xehekatuko dokumentuak bideratu dira, eta zenbait aldaketa zehatz ere egin da. Aldaketa zehatz horien ondorioz garapen geldoa egin da, eta udalaren mailan bereziki planteatu diren berrurbanizatzeko eta birkualifikatzeko esku-hartze interesgarriak garatu dira.

Azken urteetan urteko batez beste 5 etxebizitza inguru eraikitzeke lizentzia eman da. Azken mende erdian, udalerriko biztanleria egonkor

mantentzen dela ikusten da, udalerraren kokapenak asko laguntzen ez duen arren.

Lurraldea garatzeko jarraibidearen ondorioz, Urolaren ibarraren gehiena babestu egin da hirigunetik eta Zubialdeko auzotik uretan behera eginez, bertan agertzen diren industria-ezarpen jakin batzuk izan ezik.

Indarrean dauden proposamenen indarrez, udal-plangintzak industriarako eta bizitegirako lurzoru berriak antolatu ditu. Azalera txikiko lurzoru horien bitartez, lehen kasuan bertako garapenei erantzun nahi zaie, eta bigarren kasuan dentsitate txikiko tipologiako etxebizitza gutxi batzuk eraiki nahi dira, udalerriko hirigune nagusia osatzeko.

### **VI.3.- AZKOITIKO UDALERRIKO PLANGINTZA OROKORRA**

Azkoitiko Udalak 1994. urtean behin betiko onartu zen Arau Subsidiarioetako dokumentu bat du. Dokumentu horren garapenean askotariko plangintza xehekatuko dokumentuak bideratu dira, eta Arau Subsidiario horien zenbait aldaketa zehatz ere egin da. Plangintza horren garapenaren eraginez, bere hirigunea berriro antolatzeko dinamika positibo batean murgilduta dago udalerrria. Dinamika horretan garrantzi handikoa izan da obra hidraulikoak egitea, saihesbidea eraikitzea, zaharkituta zeuden eremuak bizitegi-lurzorurako bideratzea, industria-lurzorua prestatzea, eta ekipamenduak finkatzea, irakaskuntza-ekipamendua batik bat.

Azken urteetan urteko batez beste 46 etxebizitza inguru eraikitzeke lizentzia eman da.

Udalak, gaur egun, udalerriko Arau Subsidiarioak berraztertzea ari da sustatzen.

Indarrean dauden proposamenen indarrez –Plan honen proposamenekin, funtsean, kontraesanean ez dauden proposamenen indarrez jakina–, udal-plangintzak industriarako eta bizitegirako lurzoru berriak antolatu ditu. Lehen kasuan, batez ere bertako garapenei erantzuten zaie, eta, bigarren kasuan, bizitegi-ezarpen berriak bertan finkatzeko aukera ematen da oraindik ere. Egoera horren aurrean, ezinbestekotzat jo da jada abian den berraztertzea.

#### **VI.4.- AZPEITIKO UDALERRIKO PLANGINTZA OROKORRA**

Azpeitiko Udalak 1992. urtean behin betiko onartu zen Arau Subsidiarioetako dokumentu bat du. Dokumentu horren garapenean askotariko plangintza xehekatuko dokumentuak bideratu dira, eta Arau Subsidiario horien zenbait aldaketa zehatz ere egin da. Plangintza horren garapenaren ondorioz, udalerriak industriarako eta bizitegirako lurzoruak berriro antolatzeari eta berriro urbanizatzeari ekin dio. Gainera, plangintza orokorra oso-osorik berraztertzeke komenigarritasuna planteatu da, garatu gabeko esparruan antolatzea aztertzeke eta etorkizunerako premiei erantzuteke. Bestalde, Arau Subsidiarioak aldatzea aztertzen ari da, eta jada aldatzen ari dira bizitegirako erabili ahal izango diren hainbat eremutan eta industriarako lurzoruak prestatzeke eremuetan.

Arlo horretan, azken urteetan urteko batez beste 86 etxebizitza inguru eraikitzeke lizentzia eman da.

Arau Subsidiarioen garapenean, dagoeneko kalifikatuta dauden industria-lurzoruak egikarrituta daude, neurri handi batean bederen –ondorio horretarako berriki kalifikatutako esparruak izan ezik–. Gainera, etxebizitza berrien bizitegi-eskaintza planteatzen da, oraingoz behar besteko eskaintza da, baina merkatuan oraindik ez dagoela antzematen da.



Era berean, Loiola eta bere ingurunea finkatzea eta balioztatzea aurreikusten da, baita ekipamendu berriak antolatzea ere.

#### **VI.5.- BEIZAMAKO UDALERRIKO PLANGINTZA OROKORRA**

Beizamako udalerriak 1990. urtean behin betiko onartu zen Arau Subsidiarioetako dokumentu bat du. Dokumentu horrek udalerria antolatzen du, hirigunean eraiki daitekeen bizitegi berrirako jarraibideak ezartzen ditu, eta lurzoru urbanizaezinaren antolamendua arautzen du.

Azken urteetan ez da ia lizentziarik eman etxebizitzak eraikitzeko, baina barreiatutako landagunean esku-hartze zehatz batzuk egin dira.

Udalerraren kokapenak eta tamainak eraginda, azken hamarkadetan etengabe galdu da bertan biztanleria. Hala ere, azkenaldian prozesu hori amaitu dela ematen du, eremu funtzionalaren bilakaera demografikoari buruzko memoria honetako taulan islatzen den moduan.

Behin betiko onartu denetik igaro den hamarkadan esku-hartze bakanak egin dira, eta horien artean hirigunean egin diren ekipamenduak nabarmendu behar dira. Hiriguneak oraindik garatu gabeko bizitegi eskaintza du.

Era berean, aldi horretan Arau Subsidiarioen aldaketa zehatz batzuk bideratu dira, baina ez dute hasiera batean aurreikusitako antolamendueredua aldatu.

## **VI.6.- ERREZILGO UDALERRIKO PLANGINTZA OROKORRA**

Errezilgo Udalak 1996. urtean behin betiko onartu zen Arau Subsidiarioetako dokumentu bat du.

Dokumentu horrek udalerria antolatzen du, hirigunean eraiki daitekeen bizitegi berrirako jarraibideak ezartzen ditu. Gainera, haranean aurretik dagoen industria-ezarpena garatzeko jarraibideak ezartzen ditu (ondoren onartutako antolamendua) eta lurzoru urbanizaezinaren antolamendua arautzen du.

Esparru horretan, azken urteetan urteko batez beste 4 etxebizitza inguru eraikitzeko lizentzia eman da.

Hein handi batean, gaur egun dagoen bizitegi-eskaintza ez da garatzen.

Udal-ekimenak, alabaina, hirigintzako esku-hartze txikiak eragin ditu hirigunean, baita bestelako esku-hartzeak ere. Bestalde, toki-mailako ekipamendu interesgarriak finkatu edo sortu ditu, eta Udala bizitegi-eskaintzaren kudeaketa eta garapena sustatzea ari da aztertzen.

## **VI.7.- GETARIAKO UDALERRIKO PLANGINTZA OROKORRA**

Getariako Udalak 1996. urtean behin betiko onartu zen Arau Subsidiarioetako dokumentu bat du.

Dokumentu horrek udalerria antolatzen du, eta bertan esku hartzeko jarraibideak ezartzen ditu. Dokumentu horrek egoki sustatu du hirigune historikoa birgaitzea –hirigune historikoa interes eta dimentsio handiko kokalekua izanik–, baita portua eta bere ingurunea garatzea ere.

Esparru horretan, azken urteetan urteko batez beste 20 etxebizitza berri inguru eraikitze ko eta beste horrenbeste etxebizitzatan birgaitze-lanak egiteko lizentzia eman da.

Era berean, plangintzaren garapenean, tokiko ekonomia-jardueretarako lurzorua prestatu da.

Udalaren esku-hartzeak, beste Administrazio batzuekin elkarlanean, askotariko urbanizazio-obrak eta ingurumen-birkualifikazioko lanak egin daitezzen sustatu du, baita ekipamendu-eraikinak egin daitezzen ere.

Arau Subsidiario horien egikaritze-maila eta hirigune historikoa leheneratzeko prozesu aurreratua kontuan izanik, duela gutxi hasi da udalerriko plangintza orokorra berraztertzen, etorkizuneko premiei erantzun ahal izatearren. Aztergai dugun kasuan, eta testuinguru horretan, lehentasuna duen zereginari ekiten zaio.

## **VI.8.- ORI KO UDALERRIKO PLANGINTZA OROKORRA**

Orioko Udalak 1993. urtean behin betiko onartu zen Arau Subsidiarioetako dokumentu bat du. Dokumentu horren garapenean askotariko plangintza xehatuko dokumentuak bideratu dira, eta Arau Subsidiario horien zenbait aldaketa zehatz ere egin da. Plangintza horren garapenaren ondorioz, udalerriak asko gehitu du bere bizitegi-eskaintza (Erriberak, Añibarko portua eta abar), eta alderantzikatu egin du laurogeiko hamarkadan nagusi zen biztanleria galtzeko prozesua. Gainera, hondartzako ingurunea eraldatu egin du, baita bertara heltzeko baldintzak ere.

Esparru horretan, eta eraikuntza-jardun urriko denboraldi baten ondoren, azken urteetan urtean batez beste 80 etxebizitza berri inguru eraikitze ko

lizentziak ematen ari dira. Kopuru hori oso handia da bere dimentsio demografikoko udalerrri baterako, baina laurogeiko hamarkadako dinamismo txikiak eta bere inguruneak eragin handia izan du horretan.

Udalak bere plangintza orokorra berraztertzeke lanei ekin die, eta, hala, aztergai dugun kasuan lehentasunekotzat jotzen den zereginari ekin zaio.

Indarrean dauden eta Plan honen proposamenekin kontraesanean ez dauden proposamenen indarrez, udal-plangintzak bizitegirako lurzoru berriak antolatu ditu, eta gaur egun etxebizitza kopuru handia eskaintzen da zenbait eremutan, Dikearen eremuan esate baterako.

#### **VI.9.- ZARAUZKO UDALERRIKO PLANGINTZA OROKORRA**

Zarauzko Udalak 1994. urtean behin betiko onartu zen Arau Subsidiarioetako dokumentu bat du. Dokumentu horren garapenean askotariko plangintza xehekatuko dokumentuak bideratu dira, eta Arau Subsidiario horien zenbait aldaketa zehatz ere egin da.

Dokumentu horretako aurreikuspenak hasiera batean aurreikusten zena baino erritmo handiagoan egin dira, eta, egoera horretaz jakitun, Udalak plangintza orokorra berraztertzeke lanak esleitu zituen, Aritzatalde eta Salbideko bizitegi-lurzoruak agortu ostean. Zeregin hori ezinbestekoa zen; izatez, bizitegi arloko eskaintza oso urria da, eta behar-beharrezkoa da udalerriko oinarrizko azpiegiturak berriro definitzea.

Esparru horretan, Udalak hiru arlotako proposamenak egin ditu: alde zentralak aurretik dauden auzoak birsortzea; industria-lurzoruak bizitegi-lurzoru bihurtzea (Hegoalde), zati batean bederen; eta eremu zentralak sortzea, hala nola Santa Klara-Salberdin.

Azken urteetan batez beste urtean 250 etxebizitza berri inguru eraikitze ko lizentziak eman dira. Zenbateko hori ez dagokio denboraldi labur bati, indarrean dauden Arau Subsidiarioen garapenarekin hasi zen etengabeko prozesu bati erantzuten dio.

## **VI.10.- ZESTOAKO UDALERRIKO PLANGINTZA OROKORRA**

Zestoako Udalak 1996. urtean behin betiko onartu zen Arau Subsidiarioetako dokumentu bat du. Nolanahi ere, udalaz gaindiko zenbait gaik aurka egin dio dokumentu horretan aurreikusten zen zenbait ekimeni, eta dokumentu horren aldaketa zehatzak ere sustatu dituzte. Dena den, gaur egun egoera hori berriro bideratu da, eta proposamenen garapenerako bultzada izan da, batez ere industria-izaerako proposamenetan.

Hala, azken urteetan urteko batez beste 30 etxebizitza berri inguru eraikitze ko lizentzia eman da.

Bizitegirako lurzoruen alorrean egiten diren proposamenez gain, ekimen publikoak Sansineneko industria-poligonoa antola dezan aurreikusten da, poligono horren hedadurak udalaz gaindiko antolamenduan baitu eragina.

Era berean, eremu funtzionalaren mailan beste eremu estrategiko baten antolamendua hartzen du aintzat plangintzak, eremu hori Ekaingo historiaurreko aztarnategiaren inguruneari dagokio. Gainera, ingurune horri lrikaitze ko aztarnategiarena gaineratu beharko zaio.

## **VI.11.- ZUMAIAKO UDALERRIKO PLANGINTZA OROKORRA**

Zumaiako Udalak, prozesu luze baten ondoren, 2004. urtean behin betiko onartu zuen –zati batean izan bazen ere– Arau Subsidiarioetako dokumentu bat. Horrela, laurogeita hamarreko hamarkadaren lehen erdian udalerraren garapena oso makala izanik ere, azken urteotan jardunak oso egin du gora, eta, bizitegiaren arloan, urtean batez beste 70 etxebizitza berri eraikitzeko lizentziak ematen dira.

Bertan aintzat hartu beharreko ekintza berezien artean honakoak nabarmentzen dira: Zuloagako hareatzak eta padurak babestea; Urola ibaiaren itsasadarreko hareatzak eta padurak babestea –Beduako ingururaino–; udalerriko hegoaldeko zabaldura garatzea; eta zabaldura hori Basustako muinoraino eta Narrondoko ibarreraino hedatzea, hegoaldean.

## **VI.12.- UDAL PLANGINTZA OROKORRARI BURUZKO LABURPENA**

Ondorio gisa aditzera eman behar da hamaika udalerriek dutela udal-mailako plangintza orokor eguneratua; alabaina, egoerarik gehienetan epe labur samarrerako lurzoru berriak prestatu beharra antzematen da, eta ondorio horretarako plangintza hori berraztertzeke beharrezko prozesuei hasiera eman zaie.

Horrenbestez, egoera hori oso egokia da eremu funtzionalaren Lurraldearen Zatik Plan onartzeko; izatez, erreferente egokia da toki-entitate gehienetan egiten ari diren edo egingo diren gogoeta-prozesuetarako. Horrela, honako Lurraldearen Zatik Plana behin betiko onartzearen ondorioz, udaletako plangintza orokorrak berraztertzeke legezko agindua ekimen naturala izango da. Izatez, dagoeneko abian da zenbait udalerritan.

## **VII.- PLANAREN EDUKIEN DESKRIBAPENA**

### **VII.1.- DESKRIBAPEN OROKORRA. LURRALDE EREDUA.**

Urola-Kostako eremu funtzionalaren gaur egungo egoera, egindako diagnostikoa eta bertarako finkatutako helburuak hartu dira oinarri honako Lurraldearen Zatiko Planaren proposamena formulatzeko.

Proposamenak definitzen duen lurralde-ereduak lurraldearen zatiak bereizi nahi ditu, baina, era berean, nortasun propioa duen eremu funtzionala egituratu batean integratu nahi ditu.

Ahalegin horretara bideratzen dira Planaren ekintzak dagokion denbora-horizontean (2005-2020).

Nolanahi ere, proposamena Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunerako formulatzen diren dinamiketan eta proiektuetan barne hartzen da, eta horien guztien gainera Europako esparruan formulatzen direnetan, hots, aintzat hartu beharreko lurralde-erreferentzia zabalena den Europako esparruan formulatzen diren dinamika eta proiektuetan. Ildo horretan, aditzera eman behar da ez dela espero eremu funtzionalaren ekialdean sortzen ari den fenomeno metropolitarrak (Baiona-Donostia korridoreak) eragin handia izatea eremu funtzional honetan eta Planaren denbora-horizontearen barruan. Haatik, prozesu hori bizkortzen bada, eta dokumentu honetan aintzat hartu ez diren ondorioak gertatzen badira, honako Plan hau berraztertze bidezko jarraipeneko mekanismoak planteatu dira.

Bestalde, lurralde-ereduak egoki integratu nahi du eremu funtzionala bere ingurune osoan, eta horretarako Iraurgiko haranaren zaku-hondoaren izaera hautsi nahi du, eta posible den hiru norabideetan hurbileko lurraldearekin lotu nahi du eremu funtzionala.

Testuinguru horretan, eremu funtzionalerako kokalekuen morfologia finkatzea izango da lurralde-ereduaren giltzarria. Barreiatze-prozesuen aurrean, metatze eta dentsifikatze kontrolatuko prozesuak bultzatuko dira, eta ingurunearen aniztasuna balioztatuko da. Eremu funtzionalaren barruan egituratzerako zein ingurunean integratzeko beharrezkoak diren ekipamenduak, azpiegiturak eta garraiabide publikoak osatuko dira.

Lurralde-ereduak proposatutako dimentsionamendu demografikoari (75.000 biztanle 2020an) eta bizitegi arloko dimentsionamenduari erantzuten dio (guztira 40.000tik gorako etxebizitza, data berean). Bestalde, askotariko ingurune batean jarduerak sektore askotakoak izan daitezten sustatuko duen garapen sozio-ekonomikoa gauzatzeko beharrezko baldintzak bultzatuko ditu.

Eraginkortasuneko irizpideei jarraituz, gaur egun dauden baliabideak optimizatzea planteatzen da, eta, zehazki, lurzoruaren baliabidea optimizatzea. Esparru zaharkituak birsortzeko esku-hartzeek eta hiri-hutsuneak okupatzeko esku-hartzeek lehentasuna izan dezaten proposatzen da. Gainera, garapen berriek aurretik daudenen continuumean integra daitezten lortu nahi da, baita hiri-bilbeak dentsifika daitezten eta lurraldean jardun barreiatuak nagusi ez daitezten ere.

Egindako diagnostikoa aintzat hartuta, Planak lau lurralde-esparru bereizten ditu, eta lurralde-esparru horiek haien baitan eta haien erlazioetan egituratzen dira, eremu funtzionala osatuz. Honakoak dira lau lurralde-esparru horiek:



\* Iraurgi, Urola ibaiaren haranaren barrualdean.

(Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Beizama eta Errezilgo hiriguneak barne hartzen ditu)

\* Ekialdeko kostaldea, Oria ibaiaren itsasadarra eta ibai horretara jotzen duten ibarrak.

(Orio, eta Aiako San Pedro eta Santio hiriguneak barne hartzen ditu)

\* Erdialdeko kosta, Zarautz eta Getaria arteko erlaiza, Pagoetaraino.

(Getaria, Zarautz eta Aiako hiriguneak barne hartzen ditu)

\* Mendebaldeko kosta, Urola eta Narrondoko itsasadarrak.

(Zumaia, Arroa Bekoa, Iraeta, Aizarnazabal eta Oikiako hiriguneak barne hartzen ditu)

Lurralde-esparru horiek bat datoz sendotu eta erlazionatu nahi diren pieza bereziekin, hala biztanleriaren eskaerei lurraldean bertan erantzun nahi zaie, eta, horrenbestez, bidezko garapena sustatuko da iraunkortasunaren irizpideetatik.

Bereizi diren lurralde-esparru horien eta horiek bereizten dituzten elementuen arteko harremanak lurralde-ereduaren funtsezko elementuak dira –bereziki beren arteko mugikortasuna eta horien eta beren periferiaren arteko mugikortasuna–. Izan ere, lurralde-ereduak errepide eta trenbideen arloko azpiegitura handien aurreikuspen estrategikoa jorratzen du, besteak beste. Bide horiek eta garraiabide publiko horiek gaur egungo eta etorkizuneko premietara egokitzea ezinbestekoa da eremu funtzionala egoki garatzeko.

## **VII.2.- EREMU FUNTZIONALEKO INGURUNEA ANTOLATZEKO PROPOSAMENEN DESKRIBAPENA**

Proposatutako lurralde-ereduak Oria beheko eta Urola behe eta erdialdeko lurraldearen ingurumen-berezitasunak eta -balioak hartu ditu aintzat. Espazio bakar eta berezi horretan, natura-baliabideak eta ingurunea bera garrantzi handikoak dira gizarte mailako eskari eta premia berrien testuinguruan, hots, garapen ekonomikoa ulertzeko modua aldatzen ari den testuinguruan (garapen iraunkorra).

Espazio iraunkorrak eraginkorrenak eta lehiakorrenak izango dira epe ertain eta luzera, eta gainera, etorkizun handiena eta onena duten espazioak dira. Proposamena formulatzean oinarrizko erreferente izango da hori.

Ikuskera hau ez dator bat orain arte nagusitu den lurralde-ereduarekin. Erabileren arteko lehiak eta presio ekonomikoek, orokorrean, lurzorua okupatzea ekarri dute, eta, okupazio horretan, ez dira aintzat hartu lurzoruaren berezko balioak, ezta jardun horien ondorioz lurraldea eta bere baliabideak leheneratzeko aukerarik ez egotea ere. Ingurumen-balioak kontuan ez dituen garapen-dinamika horrek ez du lekurik proposatzen den lurralde-ereduan. Lurralde-eredu berri horretan ingurune fisikoa funtsezko elementua da izakien ongizate eta bizi-kalitaterako zein garapen ekonomikorako.

Izatez, gizakien garapenak eta ongizateak behar-beharrezkoa du biztanleriaren, ingurunearen ahalmenaren eta produkzio-bizitzaren arteko oreka dinamikoa. Bizitza eta prozesu naturalak eusten dituzten funtzioak ezin dira mantendu, baldin eta eskaintzen dituzten baliabideen erabilera handiagoa bada birsortzeko ahalmena baino, edota handiagoa bada ekosistemen osotasuna eta oreka mantentzeko ahalmena baino.

Premisa horiek abiapuntu izanik, ezinbestekoa da ingurune fisikoa ezagutzea eta aztertzea. Hala, beren balio ekologiko, produktibo, paisajistiko, zientifiko-kultural eta abarreatatik kontserbatu behar diren lurraldearen eremu horiek antzeman ahal izango dira, eta lurraldean ezartzea baimen daitezkeen edo bateraezinak diren erabilerak finkatu ahal izango dira, betiere lurraldearen ezaugarrien arabera.

Dena den, lurraldearen antolamendua ez da gaur egun mantentzen diren balioak babestu eta zaintzera mugatu behar –alderdi horrek garrantzi handia duen arren–. Balio horiek sustatu egin beharko dira, eta, bereziki, ingurumenaren aldetik aldatu, degradatu edo narriatu diren espazioak hobetu eta leheneratu beharko dira. Gainera, garapen eta erabilera berriak haien ahalmen eta aukerengatik egokienak diren lurzoruetarantz bideratu beharko dira.

Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak ezartzen duenaren arabera, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek barne hartu behar duten zehaztapenen artean honakoa dago: beren balio ekologiko, kultural edo ekonomikoagatik zaintzeko babes bereziaren xede izan behar duten eremu edo esparruak mugatzea eta definitzea, eta, hala badagokio, bertan dauden natura-baliabideen arazoizko ustiapena ziurtatzea, kasuak kasu aplikatzekoa den berariazko legeriaren arabera.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek, bestalde, lurzoru urbanizaezinaren osotasunerako kategorizazioa sistematizatzeko proposamena egiten dute. Kategoriarik murriztaileena *Babes bereziko* kategoria da eta kategoria hori aplikatuko zaie ondo kontserbatutako bertako basoei, itsasadar eta estuarioei, egoera onean diren ibai-konplexuei, hondartzei, barrualdeko hezeguneei, itsaslabarrei, mendi-

gailurren eremuei, landaredia berezia duten eremuei, eta, orokorrean, ekologiaren, kulturaren, paisaiaren edota horien guztien ikuspuntutik elementu baliotsuak dituzten eremu guztiei.

Eremu horietarako, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek erabilera eta jardueri buruzko oinarrizko araudia eta araudi orokorra barne hartzen dute. Izaera loteslea duen araudi horrek espresuki debekatzen du atsedean erabilera intentsiboa, nekazaritza, negutegiak, nekazaritza-industriak, erauzpen-jarduerak, garraiorako bideak, A motako izaera ez linealeko zerbitzuen instalazio teknikoak, hondakindegia eta zabortegeak, eta eraikuntza-erabilera guztiak, herri-onurako eta gizarte-intereseko eraikinak izan ezik.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek, halaber, interes naturalistikoko espazioen zerrenda ireki bat gaineratzen dute, eta espazio horiek ez dira zehatz-mehatz mugatzen. Lurralde-plangintzak, arlokoak eta udal mailakoak espazio horiek aintzat hartu beharko dituzte, beren balio ekologikoak, kulturalak eta ekonomikoak zaintzeko. Artezpide horietan ezartzen denez, zerrendatzen diren espazio horiek Babes Berezikoko kategorian barne hartu ahal izango dira, betiere Lurraldearen Zatik Planek edo udal-plangintzak hala ezartzen dutenean.

Interes naturalistikoa duten espazioen artean honako tipologiak finkatu dira:

- Funtsezko prozesu ekologikoak mantentzeko zeregin garrantzitsua betetzen duten eremuak, hala nola lurzoruak babesteko, akuiferoak berriro kargatzeko eta abar.

- Desagertzeko arriskuan dauden ondo kontserbatutako habitat naturalen laginak, baita nazioarteko hitzarmenen indarrez edo berariazko xedapenen ondorioz, babes berezia behar dutenak ere.
- Desagertzeko arriskuan dauden espezieen zerrendako animaliak edo landareak dituzten espazioak, elementu endemiko ugari dituzten espazioak edota, nazioarteko hitzarmenen indarrez edo berariazko xedapenen ondorioz, babes berezia behar duten espazioak.
- Landa-paisaia edo paisaia malkartsu harmoniatsuak, edertasun eta berezitasun handikoak, edo lurraldean balio kultural handia dutenak, aztarnategi paleontologikoak, mineralak eta abar.
- Beren berezitasunagatik nabarmentzen diren edo interes zientifiko berezia duten natura-elementuak dituzten eremuak.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideez gain, testuinguru horretan honako dokumentuak, besteak beste, hartu dira aintzat: Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarra), abenduaren 22ko 415/1998 Dekretu bidez onartua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuak onartua. Horiez gain, bideratzen ari diren dokumentuetan aurreratzen diren proposamenak ditugu, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertza babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarena; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Baso Lanak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarena, Ingurune Naturalari dagozkion lehen iritziak barne.

Alderdi horiek guztiak abiapuntu izanik, eta, esparruan interes eta berezitasun handieneko espazioak antzematearren, aldez aurretik aukeratutako ingurune fisikoaren zenbait aldagai aztertu ondoren (landaredia, fauna, geologia, geomorfologia, paisaia, lurzoruaren ahalmen agrologikoa, baliabide hidrikoak, eta kutsadurarekiko urrakortasuna), Urola-Kostako eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plan honek formulatzen duen ingurunearen antolamendua definitzen da.

Espresuki adierazten da dokumentu honetan interesgarritzat jo diren eremuak eskumeneko lurraldearen zatiko plangintzaren mailatik ulertu behar direla. Izatez, lurraldearen arloko plangintzaren zein udal-plangintzaren beste maila batzuetan, aintzat hartu beharreko beste eremu batzuk ere daude.

Horrela, honako eremu interesgarri hauek mugatu dira Urola-Kostako eremu funtzionalaren lurraldean:

#### VII.2.1.- NATURA INTERESEKO EREMUAK

Aurreko guztiaren arabera, Urola-Kostako eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plan honek interesgarritzat jotzen dituen eremuak horrelakoak izan daitezke, betiere natura-ondarearen esparru eta elementu gisa ulertuta: espezie endemikoak edo arriskuan dauden espezieak dituzten espazioak, ondo kontserbatutako bertako basoak (pagoak eta haritzak nagusiki) eta galeriako zuhaitziak (haltzadiak), baso erreliktoen zuhaitzi bakanak (artelatzak eta arteak), harkaitzak, kostaldeko hareatzak, itsaslabarrak, padurak, dunak, hondartzak, itsasadarrak, estuarioak eta interes geologiko-geomorfologiko eta paisajistikoko eremuak.

Mota honetako espazioen kontserbazioaren bitartez, ekosistema naturalen, paisaiaren, interes geologiko eta geomorfologikoko eremuen

eta beste batzuen aniztasuna eta berezitasuna babestu nahi da; funtsezko prozesu ekologikoak mantendu nahi dira; basoko bizitza egiten duten fauna eta florako espezieen habitatak mantendu nahi dira; eta espazio horien produkzio-ahalmenari eutsi nahi zaio. Horretarako,, espezieen eta ekosistemen aprobetxamendu iraunkorra bermatuko da, eta espazio horiek lehenera eta hobe daitezen bultzatuko da, hala eskatzen duten kasuetan bederen.

Espazio horien barruan gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko Babestutako Natura Espazioen sarea (BNE) osatzen duten espazioak barne hartzen dira, Natura Parkeak zein Biotopo Babestuak eta Zuhaitz Bereziak. Era berean, Natura 2000 Sarean barne hartzen diren espazioak eta interes naturalistikoko beste batzuk ere barne hartzen dira. Izan ere, azken horiek halako deklaraziorik ez duten arren, halakotzat hartzen dira Lurraldearen Zatik Planaren dokumentu honetan, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan bertan definitutakoari jarraituz.

#### a) Euskal Autonomia Erkidegoko Babestutako Natura Espazioen sarea (BNE)

Espazio horiek legeria zehatza dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legea. Eta Natura Parkeen eta Biotopo Babestuen kasu zehatzetan, Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak ere hartu behar dira kontuan. Hori dela eta, Lurraldearen Zatik Plan honek espazio horien lurralde-muga finkatzen du –babeseko inguru periferikoak barne–, eta ez du espazio horien barne mailaketarik egiten. Gainera, ez du erabilera eta jarduerak arautzeko araudirik ezartzen, Baliabide Naturalak Antolatzeko Planetako eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planetako edukira jotzen baitu.

a.1.) Natura Parkeak honela definitzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesten duen Legeak 14. artikuluan: *“Natura-parkeak gizakiaren ustiaketa eta presentziak asko aldatu ez dituen tokiak dira. Ikusmiren edertasunak eta ekosistemen izaera erakusgarriak, edota landaredi, fauna nahiz eraketa geomorfologiko apartekoak bereizten ditu. Hala bada, herri-agintaritzaren aldetik lehentasuneko ekintza-bideak behar dituzte, bi helburu bateratu ahal izateko: batetik, natura-baliabideen aprobetxamendu antolatua eta erabilera publikoa; eta bestetik, balio ekologiko, estetiko edo heziketakoak gorde edo berriz oneratzeari”*.

Urola-Kostako eremu funtzionalean, Aia, Zarautz eta Zestoako lurretan hain zuzen ere, Pagoetako Natura Parkea dago. Irailaren 29ko 254/1998 Dekretuak deklaratu zuen parke hori, eta , irailaren 29ko 253/1998 Dekretu bidez, onartu zen parke horren Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana.

a.2.) Biotopo Babestuak haien ekosistema, komunitate, elementu biologiko, interes geologiko eta abarregatik babestu behar diren natura-ingurunearen espazio zehatzak dira; berezitasun, edertasun, bitxitasun, urrakortasun, eta abarreko formazioak dira. Natura-espazioen eta basoko flora eta faunaren kontserbazioari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 oinarrizko legeriaren edukia biltzen duen 16/1994 Legearen ondorioetarako, Biotopo Babestuak natura-erreserba, natura-monumentu edo paisaia babestu izena hartzen duten natura-espazioak dira.

Lurraldearen Zatik Plan honen esparruan Inurritzako Biotopo Babestua dago. Zarauzko udalerrian dagoen biotopo babestu hori martxoaren 11ko 40/1997 Dekretu bidez deklaratu zen halakotzat. Haatik, Plan honetan aintzat hartzen den interes naturalistikoko eremua Ori ibairantz zabaltzen da –dokumentuko II.1. eta II.2.1. planoen arabera–, eta Aiako udalerriri dagokion lurzorua ere sartzen da.



a.3.) Zuhaitz Berezi kategorian haien ezaugarri nabarmenen ondorioz (adina, historia, edertasun, kokapen, tamaina eta abarren ondorioz) babes berezia merezi duten zuhaitzak barne hartzen dira.

Eremu funtzional honetan honako zuhaitzak barne hartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Espazioen Sarean: Getariako artelatza, Aspiazuko artea eta Pagoetako hagina.

Getariako artelatza, *Quercus suber*, Garate-Santa Barbara interes naturalistikoko eremuaren barruan dago, eta maiatzaren 16ko 265/1995 bidez deklaratu zen zuhaitz berezi. Zuhaitz-espezie hori, gainera, babestuta dago Gipuzkoako Lurralde Historikoan 1990. urteaz geroztik. Beren interes ekologikoagatik eta kulturalagatik, eta bertan oso urriak izateagatik dago babestuta.

Aspiazuko artea, *Quercus ilex*, Aizarnazabalgo udalerrian dago, eta maiatzaren 16ko 265/1995 Dekretu bidez deklaratu zen zuhaitz berezi.

Pagoetako hagina, *Taxus baccata*, berriz, Aiako udalerrian dago, Pagoetako Natura Parkearen barruan, eta otsailaren 11ko 23/1997 Dekretu bidez deklaratu zen zuhaitz berezi.

#### b) Natura 2000 Sarea eta Interes Naturalistikoko Eremuak

b.1) Natura 2000 Sarea Europako sare ekologiko bat da, eta Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora Kontserbatzeari buruzko maiatzaren 21eko EEE 43/92 Arteztarauan du bere jatorria. Bertan, Arteztarau honen babesean Kontserbaziorako Zona Berezi gisa deklaratutako espazioak ez ezik, Basoko Hegaztiak eta beren Habitatak kontserbatzeari buruzko EEE 79/409 Arteztarauan Babeserako Zona Berezi gisa deklaratutako espazioak ere barne hartzen dira.

Arteztarau horren arabera eta Tratatuaren 130.R artikuluari jarraituz, Europar Batasunerako interes orokorreko zatitza jotzen da ingurumenaren kontserbazioa, babesa eta kalitatearen hobekuntza –habitat naturalen eta basoko floraren eta faunaren kontserbazioa barne–. Haatik, Batasuneko estatukideen osotasunaren lurraldean, aniztasuna bermatzea hartu behar da kontuan. Horretarako, kontserbaziorako zona bereziak izendatzeko eta Natura 2000 Sarea izeneko Europako sare ekologikoan barne hartzeko beharra adierazten du. Hala, habitat naturalak eta Batasunerako interesa duten espezieak lehenera daitezzen edo kontserbazio-egoera egokian mantentzen daitezzen bermatuko da.

Natura 2000 Sareko Habitat Naturalak Kontserbatzeari buruzko EEE 43/92 Arteztaraua egokitzen duen abenduaren 7ko 1997/1995 Errege Dekretuaren arabera, Autonomia Erkidegoei dagokie kontserbaziorako zona bereziak izendatzea.

Lurraldearen Zatikiko Plan honek bi eremu izendatu ditu 2000 Natura Sarean barne hartu beharreko Kontserbaziorako Zona Berezi gisa, 1997ko abenduaren 23ko gobernu-akordioaren arabera –2000ko azaroaren 28ko agindu bidez berraztertuta–. Izatez, bi eremuak Garrantzi Komunitarioko Lekuak dira. Honakoak dira:

- Ernio-Gazume
- Izarraitz

Garrantzi Komunitarioko Leku gisa izendatzeak, leku horiek berak Kontserbaziorako Zona Berezi gisa izendatzea dakar. Hori dela eta, eremu horietarako beharrezko kontserbazio-neurriak finkatu beharko dira, Arteztarau horren seigarren artikulua adierazten duen moduan. Kontserbazio-neurri horiek, nolana ere, kudeaketa-plan egokiak eskatuko dituzte, baita arauzko, administrazioko edo kontratuko neurri

egokiak ere. Hala, Arteztarau horretako 1. eta 2. Eranskinetako habitat naturalen eta espezieen eskakizun ekologikoei erantzun beharko zaie.

Horrenbestez, lurralde-plangintzako dokumentu honek, antolamendutresna den aldetik, babes bereziko esparrutzat joko ditu espazio horiek, eta ez du beren barne antolamendua aztertuko, hori plangintza bereziko tresnen xede izango baita.

Dagozkien plangintza-tresnak idazten eta onartzen ez diren artean, zona horietan egingo den edozein jardunerako edo esku-hartzerako ezinbestekoa izango da arlo horretako Administrazio eskudunaren aldeko txostena.

Lurraldearen Zatikoko Plan honek proposatzen du etorkizunean Ernio-Gazume Antolatzeko Plana aintzat hartzea eta gaur egungo Pagoetako Natura Parkearekin konexio-korridorea eremu horretan barne hartzea – Granada erreka ingurunean–. Izatez, *espazio bateratu* hori eremu funtzionaleko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko natura-esparru bakar berezi eta urrakorra da, eta Batasun mailan balioa eta interesa du. Hortaz, *Urola-Kostako natura-espazio handia* da. Proposamen honekin bat egiten du habitatak zati daitezen saihesteko interesak, horrek, oro har, ekosistemen urrakortasunera baitarama.

b.2) Interes Naturalistiko Eremuak interes handiko espazio bereziak eta urrakorrak dira (baso klimazikoak, espezie babestuak edo arriskuan dauden espezieak dituzten enklabeak, mendi-gailurretako eremuak, harkaitzak, itsas eraginpeko ekosistemak, padurak, itsaslabarrak, marea arteko zabalgunek, eta abar); alabaina, espazio horiek Natura Parkeek eta Kontserbaziorako Zona Bereziek baino espazio-tamaina txikiago badute ere, babestu eta kontserbatu egin behar dira, balore naturalistiko (botaniko, faunistiko, geologiko, paisajistiko...) bereziak eta bereziak

baitituzte.

Orokorrean, bat datoz Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako 21. kapituluko 3. Eranskineko zerrendarekin, zerrenda horretan aldaketa jakinen bat egin den arren.

Honakoak dira hala definitutako eremuak:

- Mendizorrotzeko errekak (eremu funtzional honetako Arkumetegi errekaren ezker aldean).
- Urola ibaiaren bokalea: Santiagoko hondartzaurrearen hareatza eta padura eta Beduako inguruneak.
- Koskollo errekaren urtegia (Aginaga-Orioko urtegia).
- Oriaren itsasadarreko padura-enklabeak.
- Zumaiako itsasertzeko zerrenda: Aitzuriko marea arteko zabalgunea eta badia.
- Garate-Santa Barbara.
- Irukurutzeta-Sorus (Karakate - Irukurutzeta - Sorus - Irimo mendigunea).
- Murumendi.
- Getariako San Anton

Ildo horretan, natura-intereseko espazio horiek aztertu ondoren, Lurraldearen Zatik Planak adierazten du esparru horiek beren artean oso desberdinak direla ingurumen-balioei, urrakortasunari eta berezitasunari dagokionez –eremu funtzionalaren barruan zein Autonomia Erkidegoaren barruan–. Bestalde, eta gutxienezko izaerarekin, honako esparruak EAEko Babestutako Natura Espazioen Sarean barne hartzea proposatzen du: Oria ibaiaren padura-enklabeak, Santiagoko hondartzaurrearen hareatza eta padura eta Beduako inguruneak, eta Zumaiako itsasertzeko zerrenda (Aitzuriko marea arteko zabalgunea eta badia).

Adierazitakoa kontuan izanik, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunean naturaren kontserbazioaren kudeaketa koherentea izan dadin –eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legean ezarritako irizpideen arabera–, Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak idatzi eta onartu beharko dira, hala definitutako espazioetako bakoitzerako. Dena den, espazio horiek, kasu batzuetan, eremu funtzionalaren mugez harantzago hedatu beharko dira. Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak Natura Intereseko Eremu horiek antolatzeko tresnak izango dira. Adierazitako Lege horren 2. artikulua arabera, eremu horiei lege horretan ezarritako babes-erregimenetakoren bat aplikatuko zaie, bidezkoa bada bederen. Hala, deskribatutako espazioen ezaugarrietara hobe egokitzen dena biotopo babestuarena da. Halaber, lege horren arabera, biotopo babestu izendatzeak baliabideen ustiapena mugatzea dakar, espazioen balioen kontserbazioarekin bateragarriak diren erabileren kasuan izan ezik.

“b.1” kasuan bezalaxe, Lurraldearen Zatik Planak gutxi gorabehera mugatzen du arestian adierazitako espazioen lurralde-esparrua. Izan ere, lurralde horien azterketa zehatz baten ondoren, etorkizuneko berriazko plangintzako tresnek ezarri beharko dituzte ingurumen-balio handiko

espazio interesgarri, sentikor eta urrakor horien behin betiko mugapena eta antolamendua, baita horiek erabiltzeko arteztarauak ere. Dena den, padura-enklabe batzuen egoera ikusirik, enklabe horiek ingurumen-arloan hobetu eta leheneratzeko beharra adierazten du dokumentu horrek. Ildo horretan, berariazko ekintzak planteatu dira, eta, esku-hartze horiek gabe, proposamenak ez du zentzurik.

Adierazitako gainerako eremuei buruz, lurralde-antolamenduko dokumentu honetan *inguru berezitzat* jotzen diren eremu horiek erabilera bateragarri eta bateraezinen erregulazio osagarria eskatzen dute, sektoreko antolamendutik eta udal-antolamendutik definitu beharreko joerari eta alde zuzeneko baloreei dagokienez.

Hasiera batean, eta xehapenaren mailan sartu gabe, espazio horietako gehienek balio naturalistikoak dituzte, eta balio horiek esku-hartze antropikoa mugatuz eta alde zuzenetik dagoen egoera mantenduz kontserbatu beharko dira. Halaxe gertatzen da, Getariako San Antonen, Koskollo erreka urtegiaren, Mendizorrotx erreka eta Urukutzera-Sorusen. Aitzitik, beste kasu batzuetan egoera guztiz bestelakoa da, hala nola Garate-Santa Barbaran. Eremu degradatuko kasu horretan, artelatze-basoa leheneratzeko jardun handiak egin beharko dira.

Dagozkien plangintzako tresnak idazten eta onartzen ez diren artean, eremu horietan egingo den edozein jardunerako edo esku-hartzerako ezinbestekoa izango da arlo horretan eskumena duen Administrazioaren aldeko txostena.

### c) Beste zenbait enklabe interesgarri

Azpikategoria honetan barne hartzen diren eremuak bereziak dira ikuspuntu naturaletik –botaniko eta faunistikotik bereziki–, eta

paisajistikotik, geologiko-geomorfologikotik eta abarretik, eta, gainera, isolatuta daude, beren artean loturarik gabe. Ereku horien berezitasunak mantendu egin behar dira, eta bertako balioak kontserbatzeko arriskurik ez duten jarduerak soilik baimenduko dira bertan.

Plan honetan ezaugarri horiek dituzten honako esparruak mugatu dira:

c.1) Itsaslabarrak eta hondartzak

Itsaslabarrak edertasun paisajistikoko handiko eta landaredia bereziko formazio malkartsuak dira, eta interes natural eta zientifikoko handia dute. Gainera, espazio horretan guztiz espezializatuta dagoen aniztasun urriko fauna ornoduna bizi da, baita harkaitzetako ohiko lurreko espezieak ere.

Itsaslabarrak espazio egokiak dira zenbait hegazti-espeziei habiak egiteko, batik bat beren bizi-zikloaren gainerakoa estuarioetan eta itsasertzeko ingurunean garatzen duten hegaztiak habiak egiteko.

Ereku funtzionaleko kostaldeko itsaslabar guztia hartzen du kategoria horrek, Getariako itsasaurrealdea (LZP honetan interes naturalistiko eremutzat hartua) eta Zarauzko ingurua (Inurritzako biotopo babestu izendatua) izan ezik.

Hondartzak iristeko nolabaiteko zailtasuna duten ingurune batean kokatzen dira, neurrizko erabilera izan duen aldaketa handirik gabeko ingurune batean hain zuzen ere. Balio paisajistikoko handiko eta balio bereziko enklabeak dira, nagusiki izaera naturalari eusten diotenak. Urola Beheko hondartza guztiak enklabe interesduntzat jotzen dira.

Kosta Legearen 3. eta 4. artikuluek adierazten dutenaren arabera, itsas-lehorreko jabari publikoko eremuak dira: itsasoaren edo itsas haizearen

eraginez, edo beste arrazoi natural edo artifizialen ondorioz, sortu diren harea, hartxintzar eta harri koskorren metatze-eremuak, hondartzak, zein itsaslabar bertikal samarrak.

Eremu funtzionaleko natura-espazio txiki, berezi eta bakar horiek babestu egin behar dira beren ekosistema kontserbatzeko. Bertan esku-hartze antropikoa mugatu egin behar da, eta beren ezaugarri morfodinamikoak zorrozki kontserbatzea eta bertako landaredia aktiboki kontserbatzea sustatu behar da. Lehentasuna izango du ingurumenaren eta paisaiaren kalitateari eustek. Garrantzia handiagoa izango du ingurumenaren eta paisaiaren kalitatea mantentzeak eta leheneratzeak beste edozein erabilerak baino. Saihestu egingo da bereziki gaur egun duten izaera naturala galtzea.

Itsas-lehorreko jabari publikoko espazio gisako mota horretako eremuetan egiten den beste edozein jardunek bete beharko dituzte Kosta Legearen zehaztapenak eta dagokion arloko lurralde-plangintzak. Nolanahi ere, itsasertzean kosta arloan indarrean dagoen legeria izango da aplikatzekoa, baita itsas-lehorreko jabari publikoari dagokionez onartzen diren mugaketak eta babes-eremuak ere.

### c.2) Haltzadi kantaularreko ibaietako ekosistema klimazikoak

Ondo kontserbatutako haltzadia Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde kantaularreko ur-lasterrekin lotzen den baso naturala da. Ur-bazterreko landaredia hori, galeria-basoa, asko murriztu da hiri-presioaren eta nekazaritza-presioaren ondorioz (ibai-tarte batzuk ubideratu egin dira, laborantzak zabaldu egin dira eta abar). Haran batzuetako behealdeetan oraindik ere geratzen dira ibaietako landaredi-baso txikiak; batzuk ondo kontserbatuta daude, eta beste batzuek birsortzeko esku-hartze bigunak behar dituzte, klimax-landaredirako bilakaera sustatzearen. Ur-bazterreko



baso nagusia haltzadia (*Alnus glutinosa*) da, eta batzuetan beste espezie batzuekin batera agertzen da, batez ere lizarrarekin (*Fraxinus excelsior*) eta, gutxiago bada ere, haritz kandudunarekin (*Quercus robur*), eta abar.

Haltzadiak ibaietako ur-bazterretako landaredia klimazikoa da, baina horretan soilik ez datza babestu beharraren arrazoia. Izan ere, zuhaitz horrek ingurune oso murriztaile batean nitrogenoa garatzeko eta finkatzeko propietate handiak ditu; hala, urmaeletako giroak osasuntsuago egiten ditu, eta lurrari eutsi egiten dio bere sustraiekin. Haltzadiak lurra babesten dute uholdeak gertatzen direnean, eta, beren ahalmen kolonizatzailearen ondorioz, ezpondetan, lur gorrietan eta sakonune oso hezeetan agertzen diren lehenak dira. Lurrari eusten diote eta, era berean, ibai-lasterretan itzala sortzen dute.

Lurraldearen Zatikoko Planean ondo kontserbatutako landaretza duten ur-bazter gisa definitutako esparruak, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaian eta Erreken ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean (isurialde kantauriarra) jasotzen dira, funtsean. Honako ibai-tarteetako ur-bazterretako landaretza-eremuei dagokie: Urola ibaiaren eta bere ibaiadarren (Narrondo, Goltzibar, Otaola, Errezil, Zinatx, Ibaieder, Katuin, Sistiaga, Altxolaras eta Aratz nagusiki) behe- eta goi-tarteak; Oria ibaiaren eta bere ibaiadarren (Santio edo San Pedro eta Artxodi edo Altxerri) behe-tarteak; eta Iñurritza ibaia. Arreta berezia merezi dute, halaber, Ibaieder urtegiaren arroa osatzen duten ibai-lasterrak (Aierza, Ibaieder eta Egurrola-Mantxantegi).

### c.3) Artadi kantauriarra

Artadi kantauriarrak izaera mediterraniar nabarmena du, aspaldiko garaietako eta klimetako aztarna da. Gaur egun, babesean dauden altuera txikiko zenbait haran eta sakanetan ikus daiteke. Ihar eta idor

bada ere, landaredia horrek bizirik irauteak badu azalpenik: nekazaritza eta abeltzaintzaren ustiapenerako egokiak ez diren lurretan kokatzen dira eta ikazkintza desagertu da.

Oinarrizko substratuko lurretan –batez ere kareharrizko lurretan eta, batzuetan, kareharri-marga alternantzian– dauden *quercus ilex* espezieko zuhaizti txikiak dira Lurraldearen Zatikoko Planean hala definitutako eremuak. Horien interes nagusia urritasunean datza, bai eremu funtzionalaren esparruan, bai Gipuzkoaren osotasunean. Hala ere, nolabaiteko aberastasuneko hegazti-komunitateak mantentzeko ahalmen handia dute, batez ere maila handiko harrapariak, hala nola mirotza eta gabiraia. Artadi horiek orokorrean zuhaixka-eitekoak dira, eta ingurumen-hobekuntza behar dute (oro har degradatuta dauden zuhaiztiak dira). Nagusiki, Zumaiako udalerrian (Urolaren bokalean eta Beduako ingurunean), Aizarnazabalgo udalerrian (Iraetaren ibarretik hurbil) eta Zestoako udalerrian (Urolaren ibarretik hurbil, Ertxin mendiaren SW mazelan, Akua haranean). Horrez gain, eta oso modu bakan eta zehatzean, Getaria, Zarautz eta Azpeitian ere agertzen dira. Espezie honetako zuhaiztirik handienetako bat Urola ibaiaren eskuinaldeko mazelan dago, Urolaren paduraren interes naturalistikoko espazioaren mugan hain zuzen ere.

#### c.4. Barrualdeko hezegunak.

Eremu funtzionalean babestu beharreko hezegunetzat Azkoitiko Sakonburuko putzua identifikatu da, habitat horretan “Potamogeton x variifolius” landarea aurki daiteke.

### VII.2.2.- NEKAZARITZA INTERESEKO EREMUAK.

Nekazaritza-jardunek eremu funtzionalean duten garrantzia dela eta, Planaren helburuen artean jardun horiek kontuan hartzea dago. Jardun

horiek ingurumenaren eta paisaiaren alorrean duten interesa eta jardun horiek jarraitzeak duen garrantzia hartu da aintzat.

Lurraldearen Zatiko Planeko lurralde-ereduan nekazaritza-intereseko eremu gisa definitutako eremuak ahalmen agrologiko handiena duten lurzoruak dira, funtsean. Hortaz, lurzoru horiek estrategikoak eta beharrezkoak dira nekazaritza-sektorea garatzeko eta nekazaritza-ustiapenak jarraitzeko.

Ikuspegi horretatik, beharrezkotzat jotzen da lurzoru horiek mantentzea eta babestea, beren desagertzea eragin dezaketen beste erabilera batzuen aurrean.

Lurzoru horiek Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan definitzen den Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Landazabaleko kategoriarekin lotzen dira. Horien mugapenean nekazaritza-ikuspegia ez ezik, bertan dauden premiak eta lurzoru-baliabidearen xedearen optimizazioa ere hartu da aintzat.

Definitutako eremu horiek balio agrologiko handiko lurrak izan daitezke, hau da, laborantza etengabe edo sistematikoki ustiapen-sistemekin landu daitezkeen lurrak izan daitezke (II eta III. klase agrologikoko lurzoruak). Haatik, nekazaritza-aprobetxamendurako ahalmena murrizten duten muga iraunkorrak dituzten lurzoruak ere izan daitezke, eta, hortaz, nekazaritza-helburuz erabiltzeko hobekuntzak behar dituzten lurrak ere izan daitezke (nagusiki IV. klase agrologikoko lurzoruak). Orokorrean, eremu funtzionaleko lurraldearen osotasunean II eta III. klaseko lurzoru urri dago, eta egoerak zertxobait egiten du hobera nekazaritza-aprobetxamenduen mugan dauden lurzoruak gaineratzen baditugu (IV. klasekoak).

Mota horretako lurren interesa bi alderditan dago: batetik, oso urriak dira

eremu funtzionalaren barruan (desagertu egin dira hiri-presioaren eraginez eta oraindik daudenak nekazaritzaz bestelako erabileren presio handia jasaten dute), eta, bestetik, nekazaritza-erabilerak (baratze-laborantza eta bazka-laborantza), larreak eta fruta-arbolak tartekatzeko eta txandakatzeko joera duten nekazaritza-ustiapenekin lotuta daude.

Oro har, lurzoru horiek aldapa gutxiko muino eta mazelez osatutako erliebe leunetako eta ibai-lasterren urbazterretako (ibarretako) material alubialekin eta alubial-kolubialekin lotzen dira.

Entitate eta ahalmen agrologiko handieneko eremuak eremu funtzionalaren iparraldeko erdian kokatzen dira, planoan antzeman daitekeen moduan. Aditzera eman behar da nekazaritza-intereseko eremu gisa definitutako esparruak, aldi berean, akuiferoak kutsatzeko eremu kalteberak badira, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera kontrolatu egin beharko dela, ingurumen arloan arazoak saihestearren.

Bestalde, Nekazaritza eta Baso-lanak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planari edo udal-plangintzari dagokio nekazaritza-interesa izanik hirigintza-jarduerak kolonizatzen dituen lurzoruak birjartzeko estrategiak ezartzea.

### VII.2.3.-INTERES GEOLOGIKO-GEOMORFOLOGIKOKO EREMUAK

Interes geologiko eta geomorfologikoko eremu izango dira haien balio geologiko eta/edo geomorfologikoen ondorioz aditzera eman behar diren espazioak, baita prozesuren baten adierazgarri direlako edo lurraldean oso agerpen zehatza dutelako nabarmendu behar diren espazioak ere (harkaitz-azaleratzeak, prozesu karstikoak, antzinako azalaren zatiak edo ordekak, eta abar). Balio horrez gain, interes kulturala eta hezkuntza-interesa dutenez gero, eremu funtzionalean kontserbatu beharreko

elementu bereziak dira.

1997ko azaroan Oria eta Urola ibaien behe-arroko eremu funtzionalaren Lurraldearen Zatik Planaren inguruko irizpide eta helburuei buruzko dokumentua idatzi zen. Dokumentu horretan zerrendatzen ziren guneak eta eremuak hartu dira aintzat, hain zuzen ere, bertako interes geologiko-geomorfologikoko guneak eta eremuak finkatzeko. Adierazgarritasunak, eskualde mailako interes eta garrantziak, kontserbazio-egoerak, balio didaktikoak eta antzeko beste irizpide batzuek guztiz baldintzatu dute lurralde-plangintzako maila honen barruan barne hartzea, baita irisgarritasun eta behaketako baldintzek ere. Dena den, LZP honetan interes naturalistikoko eremutzat hartzen diren esparruen barruan barne hartzen diren interes geologiko-geomorfologikoko guneak edo eremuak ez dira aintzat hartu. Izatez, espazio horiek natura-balio bat baino gehiago biltzen dute beren lurraldeetan (Zumaiako kostaldeko itsaslabarretan abrasio-plataformak, Ernio mendian gailurrak eta sinklinal iraulia, eta Erlo mendiko konplexu karstikoa, esate baterako).

Honakoak dira eremu edo gune interesgarri horiek:

- Altxerri haitzuloa
- Amalda haitzuloa
- Ekain haitzuloa
- Ibarrola erreka dolinak
- Urolaren haraneko mazalak eta gainazalak
- Urolaren egitura-korridorearen gaineko panoramika
- Aizarna-Akuako poljea
- Etzandiko toles sinsedimentarioak
- Mugaratzeko gainazalak
- Errezilgo ibarra

#### VII.2.4.- INTERES HIDROLOGIKOKO EREMUAK

Baliabide hidrikoen kontserbazioa eta, batik bat, baliabide hidrikoen kalitatearen eta kantitatearen kontserbazioa ezinbestekoa da giza osasunerako zein dagokien ekosistemen biziraupenerako. Hala, azken urteetan kontrolatzen ari den lur gaineko uren kalitatearen gaineko kezkarik, lurpeko uren kalitatea babesteko beharra gaineratu behar zaio, lurpeko urak industria, nekazaritza edo abeltzaintzako jardueren ondoriozko eraginpean egon ez daitezen babestu beharko dira.

Epigrafe honen barruan jabari publiko hidraulikoko eremuak ez ezik, itsas-lehorreko jabari publikoko eremuak ere barne hartzen dira. Jabari publiko hidraulikoko eremuak urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legeari lotzen zaizkio, betiere uren aprobetxamendu eta kudeaketarako lege-esparruari dagokionez. Aitzitik, itsas-lehorreko jabari publikoko eremuak indarrean dagoen kostei buruzko uztailaren 28ko Legearen mende egongo dira, horien garapenaren eta egikaritzearen alorrean.

Era berean, aditzera eman behar ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen 3/1998 Lege Orokorra eta bertan eragina duten arloko lurralde-plangintzak. Izatez, lege horrek uraren eta itsasertzaren ingurumena babesteko jardunak garatu beharra adierazten zuen.

##### VII.2.4.1.- LUR GAINEKO URAK

Plan honen ondorioetarako, eremu funtzionaleko ibaiak, errekek eta urtegiak eta horien babes-eremuak barne hartzen dira, hau da, Ibaien eta Erreken ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean (isurialde kantauriarra) zehazten direnak.

Ibaien eta Erreken ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean (isurialde kantauriarra) jasotzen diren ur-bazterrak antolatzeko irizpideak itsasadarren eta itsasertzeko zerrendan dauden ur-lasterren inguruneari aplikatzean, kontuan izan beharko dira, halaber, eremu horietan eragina izango duten arloko lurralde-plangintzen irizpideak ere. Alabaina, Kosta Legearen ondoriozko erregulazioari jarraituko zaio beti, batez ere azken dokumentu horiek onartu artean.

Mugatutako eremuak, dagokion planoan antzematen den moduan, bat datoz, nagusiki, Urola, Oria eta Inarritza ibaien arroekin, beren itsasadarrak barne, eta Ibaieder urtegiarekin –arreta berezia eskainiko zaie Ibaieder, Egurrola-Mantxantegi eta Aierzako errekei, urtegi horretan isurtzen baitituzte urak–.

Espazio horietan uren kalitatea kontserbatu egin beharko da, ibilguak eta ur-bazterrak okupa daitezen edo alda daitezen saihestu beharko da, eta arrisku naturalen ondoriozko kalteak murriztu beharko dira. Arreta berezia jarri beharko zaie hiri eta industrietako hondakin uren isurketei, dragatzeei eta zenbait ibai-tarte ezabatu eta desbideratzeari, baliabide hidrikoaren kalitatean eragin zuzena baitute. Horiez gain, erreparatu egin beharko zaie ibai-hondoak mugitzeari, substratu eta ur-bazterren aldaketa morfologiko eta funtzionalei, arroetako goragoko ibai-tarteetan urak eusteagatik eta husteagatik emaria eteteari, eta uraren uhertasunari, bertan bizi diren populazioen egonkortasunean eta bizi-iraupenean eragina dute-eta.

Antolamenduaren ondorioetarako, finkatu egin da indarrean dagoen plangintzak ezartzen duen tarteetan banatzeko irizpidea.

#### VII.2.4.2.- LURPEKO URAK

Lurralde osoa edozein motatako poluzioaz babesteko premia zehatzaren indarrez, baliabide hidrikoen babesaren barruan sartzen dira akuiferoen babesa eta akuiferoak kargatzeko eremuen babesa. Are gehiago, arreta berezia jarriko da urrakortasun-maila handia duten eremuetan, jarduera jakin batzuk bertan ezartzeak kutsatzeko arriskua handia izan dezake-eta.

Lurpeko baliabide hidrikoak babesteko alderdi kualitatiboak (kutsadura-iturriak saihestea) eta kuantitatiboak (ura-ateratzea) kontrolatzen dira eta, hala, aldi berean lur gaineko baliabide hidrikoak ere babesten ari dira (oinarrizko fluxuak akuiferoetatik). Lege-esparruan, mota horretako ur kontinentalak ere urei buruzko abuztuaren 29ko 29/1985 Legearen mende daude, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen otsailaren 28ko 3/1998 Lege Orokorraren mende ere bai.

Urola-Kostako eremu funtzionala iparraldeko antiklinorioaren domeinu hidrogeologikoaren barruan dago, eta, neurri txikiagoan, kostaldeko katearen domeinu hidrogeologikoaren eta Koaternarioko domeinu hidrogeologikoaren barruan. Eremu funtzional honetako zati handi baten portaera hidrogeologikoa nagusiki lotzen da Iparraldeko Antiklinorioaren Domeinu Hidrogeologikoarekin eta, zehatzago, Izarraitzeko unitate hidrogeologikoarekin (Izarraitz, Goltzibar eta Lastur-Arnoko azpiunitateak); Albizturko unitate hidrogeologikoarekin (Ugena, Igaran-Urrestilla eta Albizturko azpiunitateak) eta Gazumeko unitate hidrogeologikoarekin (Zestoa, Ilarratxo-Pagaluz, Gazume eta Jurasikoko azpiunitateak). Akuiferoak osatzen dituzten eremu horiek Behe Kretazeoko (Aptiarra) arrezife-kareharrizkoak eta kalkarenitak dira –iragazkortasun handikoak–, eta eremu funtzionalaren erdialdean, mendebaldean eta hego-ekialdean daude. Nolanahi ere, unitate hidrogeologikoak beste eremu funtzional batzuetara ere zabaltzen dira, *muga administratiboez* harantzago.



Plan honen esparruan, batez ere ondoren deskribatzen diren unitate eta domeinu hidrogeologikoak hartu dira aintzat. Planak arlo horretan ezartzen duen babes-eremuen mugapena egitean, aintzat hartu dira akuiferoen mugapena, iragazkortasun baldintzak eta sabai gisa dituzten materialen ezaugarrien ondoriozko eraginen arriskua. Mugapena ez da antolamendu-kategoria bat, esparru horietan baimentzen diren erabilerak ezartzeko edo garatzeko kontuan izan behar den zirkunstantzia osagarri bat baizik. Lurpeko urak kutsa ez daitezen bermatuko duten neurriak antolatzea aurreikusiko da, dagokion arloko araudian ezartzen denari jarraituz.

Izarraitzeko unitate hidrogeologikoa eremu funtzionalaren mendebaldean dago, Azpeitia-Azkoititik Mutrikora arte zabaltzen da, Deba eta Urola ibaien behe-arroak barne. Lau azpiunitate dituen unitate honetan dago, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko lurpeko uraren aprobeixamendurik garrantzitsuenak. Izarraitzeko azpiunitatea Azkoitia eta Azpeitiaren iparraldean dago. Izarraitzeko mendigune karstikoaren zatirik handiena hartzen du, eta Urola ibaiaren arrora drainatzen du oso-osorik. Bi ur-puntu nagusi ditu: Gasolinera izenekoa eta Motrailo (Azpeitian). Izarraitzeko azpiunitatearen iparraldean Goltzibarko azpiunitatea dago. Akuifero karstiko horrek Urola ibaira drainatzen du, nahiz eta nagusiki eremu funtzional honen esparruaz kanpo dagoen. Izen bereko errekan lau iturburu garrantzitsu ditu. Hala ere, unitate horretako azpiunitaterik garrantzitsuenak Lastur-Arnoko azpiunitatea da, hala hedaturagatik (Izarraitzetik Mutriku ingurura arte) nola aprobeixamendu-mailagatik (hogei iturburu). Azpiunitate hori ere karstikoa da, baina Deba ibaiaren arrora drainatzen du. Azpiunitate horren barruan barne hartzen den eremu funtzionalaren eremuak ez du iturburu nabarmenik; izatez, leize eta konduktu oso garatuetako sistema bateko akuiferoa denez gero, lurpean benetako ibaiak osatzen dira Izarraitzeko Marikutxako sarbegitik Kilimongo iturburuetara (Debarreneko eremu funtzionala).

Albizturko unitate hidrogeologikoa eremu funtzionalaren hego-ekialdean dago, Azpeititik (Urrestillatik), Errezil eta Beizaman barrena Tolosara arte (hau eremu funtzionalaz kanpo) hedatzen da, eta Urola, Urrestilla eta Errezil ibaietako arroak barne hartzen ditu mendebaldean eta Oria ibaiaren arroa ekialdeen dagoen tartean. Hegoaldetik iparraldera Albizturko azpiunitatea dago. Azpiunitate honetan iragazkortasun handiko materialak ageri dira (arrezife-kareharriak eta kalkarenita bioklastikoak). Dena den, azpiunitate hau batez ere eremu funtzional honetaz kanpo garatzen da, nagusiki Oria ibaiaren arroan barne hartzen baita. Ur-punturik nagusia Salubitako iturburu da (izen bereko erreka edo Albiztur erreka ibilguan, Toloserriko eremu funtzionalaren barruan (Bidegoian). Azpiunitate horren iparraldean Igaran-Urrestilla azpiunitatea dago, eta azpiunitate horretan kareharri bioklastikoak, Dogger garaiko silexa duten kareharriak eta kareharri grisak ageri dira. Bestalde, Urola eta Oria ibaien arroetara drainatzen du. Azpiunitate horretan bost ur-puntu nagusi daude, eta horietako bi eremu funtzional horren barruan daude: Oial eta Lavadero (Azpeitia), biak Ibaieder ibaiaren ertzetan. Azkenik, aurreko azpiunitatearen iparraldean eta beste kareharrizko zerrenda paralelo batean Ugena azpiunitatea dago. Azpiunitate horrek nagusiki Urola ibaiaren arrora drainatzen du, eta azpiunitate horretan iturburu nagusia Ugenakoa du, Ibaieder ibaiaren eskuinaldean. Lehen bi azpiunitateen arteko lotura agerikoa da.

Hirugarren unitate hidrogeologikoa Gazumeko unitate hidrogeologikoa da, eremu funtzional horretan agian unitaterik garrantzitsuena da. Izan ere, unitate horretako erreserben zatirik handiena bertako lurpean dago eta nagusiki Urola ibaiaren arrora drainatzen du, ekialdeen dagoen inguruak Oria ibaiaren arrora drainatzen duen arren. Unitate hori eremu funtzionalaren erdialdean, ekialdean eta hego-ekialdean dago, eta batez ere Zestoa, Aia eta Errezilgo udalerriak hartzen ditu. Unitate horren

barruan Zestoako azpiunitatea dago. Azpiunitate horretan elikatze-ingururik handienak Aizarna-Akuako sakonune karstikoak dira, eta deskarga-punturik nagusia Hamabiturriko iturburu da (Zestoa), ondoren Osinbeltzekoa. Azpiunitate horren gainazalean material karbonatatu iragazkorak –eremu horiek kutsadurarekiko urrakortasun handikoak dira– zein iragazkortasun txikiagoko identifikatu gabeko beste material batzuk ageri dira (kareharri-lutita gris urdinxkak eta horixkak, maiz marga-kareharriak tartekatuta). Nolanahi ere, iragazkortasun txikiko tarte horrek alboko aldaketa oso bortitzak ditu kareharri urgoniarrekin –LZP honetan ez dira aintzat hartu–, eta, horrekin lotuta, iturburu ugari ageri da. Izatez, kutsadurarekiko urrakortasun handiko lekuak dira. Hori dela eta, jarraian, polje handi horretan dauden iturburu guztien zerrenda egingo da, eta zerrenda horretan iragazkortasun txikiko materialetako eremuetan daudenak zein kareharrizko inguruetan daudenak bilduko dira. Hona hemen, beraz, iturburu horien zerrenda, dagozkien UTM koordinatuekin:

- Urrepitxarra Zestoan (UTM X:563.889 Y:4.786.252 Z: 273)
- Zabaletako zuloa Zestoan, Aizarna (UTM X:563.451 Y: 4.787.047 Z:222)
- Minazuloko urzuloa Zestoan (UTM X: 563.638 Y: 4.787.567 Z: 272)
- Bekoiturreko urzuloa Zestoan, Aizarna (UTM X:563.147 Y:4.787.397 Z: 219)
- Arano basoko leizea Zestoan, Aizarna (UTM X:563.125 Y:4.786.751 Z:260)
- Errekalde Zestoan, Akua (UTM X:561.312 Y:4.787.105 Z:115)
- Zabaleko zuloa II Zestoan, Aizarna (UTM X:563.451 Y:4.787.047 Z:222)
- Aranburuko urzuloa Zestoan, Aizarna (UTM X:563.042 Y:4.787.597 Z:199)
- Etxague Zestoan, Aizarna (UTM X:562.884 Y:4.787.693 Z:204)

Aizarnako esparruari dagokionez, eta lurpeko baliabide hidrikoak babestearren, gaur egun dauden kokalekuak eta ezarritako landa-erabilgarriak bateragarri egingo dituen lehentasuneko ekintzari ekitea planteatu da. Horretarako, saneamendu-sarea egikarrituko da.

Interesa duen beste azpiunitatea, Gazumeko azpiunitatea da, unitatean hegoaldeen dagoen eremuan kokatua. Aurreko kasuan bezalaxe, material karbonatatuaren bitartez gertatzen den zuzeneko infiltrazio bidez kargatzen da sistema, baita material supraurgoniarrei lotzen zaien lur gaineko isurketak hobietan gertatzen den infiltrazio bidez ere. Deskarga-puntu nagusienak Granadaerreka eta Utzetako (Zestoa eta Errezil) iturburuak dira. Akuifero jurasikoko azpiunitatea unitatean ekialdeen dagoen eremuan kokatzen da. Hidraulikoki oso eremu zatikatu eta zehatzak ditu eta deskarga-puntu nagusiak zamalkaduraren aurrealdeari lotzen zaizkio (Alzola, Intxausti, Zeteta, eta abar Aia eta Zestoan). Horrez gain, zenbait erreken ibilgura zuzenean jotzen duten irteerak daude (nagusiki Altzolaras errekarra). Unitate honekin lotzen diren beste bi azpiunitateak iparralderago eta ekialderago daude. Illarratxo-Pagaluz izeneko azpiunitate horiek interes hidrogeologikoko txikiagoko bi akuifero txiki dira.

Kostaldeko kateko domeinu hidrogeologikoa Tertziarioko materialez (batez ere hareharri, lutita eta hareharri estratifikatuez) osatuta dagoen kostaldeko zerrendarekin lotzen da. Domeinu hori hiru sektoretan banatzen da, eta eremu funtzionalaren lurraldea sektore horietako bi hartzen ditu: mendebaldeko sektorea (Urola ibaiaren bokaletik Inurritza ibaiaren bokalera bitarteko tartean, Zumaia, Getaria eta Zarauzko udalerriak hartuz) eta Erdialdeko sektorea (Oria ibaiaren bokaletik Urumea ibaiaren bokalera bitartean, Orio eta Donostiako udalerriak barne hartuz). Mendebaldeko sektorean hiru iturburu daude, eta horien artean Iruerreketa eta Altxerrikoa nabarmentzen dira. Erdialdeko sektorean,

berriz, 70 iturburu inguru daude, eta horien arteko garrantzitsuenak Itxais, San Juan, Polipazo Azpi eta Artikula Txiki dira. Deskarga ez da erreken ibilgura oso modu zehatzean gertatzen, ur-puntu askoren bitartez egiten da, eta oso garrantzitsua da zuzenean itsasora egiten den deskarga. Akuifero horiek, haatik, ez dira garrantzi handikoak: azalaramenduak errenkada mehe moduan gertatzen dira, maiz agertzen dira margartartekak, eta akuiferoen tamaina txikia da. Dena den, akuifero horietako batzuk hirigune eta baserrien hornidurarako (Zarautz, Orio eta Usurbil) erabiltzen direnez gero, berauek babestea hartu da aintzat.

Koaternarioko domeinu hidrogeologikoa ibai-ibilgu nagusien uholde-lautadak osatzen dituzten metakinei dagokie, nagusiki. Orokorrean finkatu gabe dauden akuifero detritikoekin lotzen dira. Metakin alubial horiek material detritiko oso heterogeneoek osatuta daude: hareak, lohiak, buztinak eta hartxingarrak. Akuifero koaternarioak dagozkien lur gaineko ibilguekin eta material finkatuetak hurbileko akuiferoekin lotuta egon ohi dira hidraulikoki. Metakin topografia ia lauak lagunduta, hiriguneak eta nekazaritza eta industriako jarduerak finkatu dira bertan, eta horrek kutsadura-arazo larriak eragin ditu, ibaien ibilguetara edo zuzenean akuiferoaren gainazalera egin diren isurketen ondorioz. Kostaldeko edo estuarioko koaternarioena da Urola-Kostako eremu funtzionalean mugatutako akuifero koaternario garrantzitsuenen tipologia. Metakin nagusiak Urola ibaian (Zumaia), Oria ibaian (Orio) eta Zarautzen daude. Oso aldapa txikiko lautadak dira, itsas mailatik oso hurbil dagoen kota topografikoan daude, eta mareen eraginpean dauden eremuak dira, itsasadarren bitartez barrualdera sar daitekeen eragina. Akuifero horien berezko baliabideak urriak diren arren, errenergia induzitu bitartez behar besteko ibilguak eragin ditzakete, zuzkidura defizitarioak osatzeko edo hornidurako arazo zehatzak ebazteko behar bestekoak alegia (esate baterako Urola ibaia koaternarioa, bertan Oikinako putzuak ustiatu dira Zumaia hornitzeko).

### VII.2.5.-BASO LANETARAKO ETA ABELTZAINZARAKO AHALMENA DUTEN EREMUAK

Ikuspegi zehatz honetatik, Planean ez da mugatzen babestu behar den eremurik.

Dena den, udal-plangintzan eta dagokion sektoreko plangintzan aintzat hartzearen ikuspegitik, baso-lanetarako eta abeltzaintzarako ahalmena izan daiteke orientabiderik egokiena orain arte identifikatutako eremuetan barne hartzen ez diren lurralde-esparruetarako. Lurzoru horiek ahalmen agrologiko txikiagoa dute, eta, orokorrean, ez dute lurraldearen produkzio-baloreaz harantzagoko *balio erantsirik*. Beren erabilera lurzoruaren ezaugarriek baldintzatzen dute (aldapa, higadura-prozesu eta abarrek), baita gaur egun bertan garatzen diren erabilerek ere, lurzoru horien joerarekin berarekin bateragarriak edo bateraezinak.

Adierazitako eremu horien baso eta abeltzaintzako erabilerarako orientabidea lurralde horren zati handi batean garatzen da jada, hein handi batean bederen, (koniferoak eta, neurri txikiagoan, hostoerokorrak landatzea, antzinako bertako basoen aztarnak, larreak, orokorrean, eta mendi-larreak zehazki). Dena den, eta salbuespen gisa, badira produkzio-erabilerarik ez duten eremuak (sastrakak, otalurrak eta abar), eta horietan baso eta abeltzaintzako erabilerarantz bideratuko diren ingurumen-hobekuntzako jardunak egin beharko dira, hau da, udal-plangintzaren zein sektoreko plangintzaren bitartez ekintza positiboko jardunak bultzatu beharko dira, gaur egungo erabilera egokitu eta berezko joerarekin gehiago lotzeko.

Dokumentu honetatik aditzera eman behar dugu komenigarritzat ematen dugula aldapa handiko lurzoruak eta/edo higadura-arazoak dituzten

egonkortasunik gabeko mazelako lurzoruak baso-erabilerarantz bideratzea eta, hala, lurzoru babestea, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen Lege Orokorraren III. Kapituluari jarraituz.

Aldi berean, degradatuta dauden edo produkzio-erabilerarik ez duten beste eremu horietan ingurumena hobetzeko ekintza zehatzak proposatzen dira, jardunak baso-berritzeetarantz edo larreetarantz bideratuz –lurzoru bakoitzaren joeraren arabera–.

#### VII.2.6.-INGURUMENA HOBETZEA ETA INGURUMENA LEHENERATZEA.

Esparruetako batzuk gaur egun duten narriadura- edo degradazio-egoera murrizteko asmoz, dokumentu honetan ingurumen-hobekuntza kategoriako eremuak identifikatu dira. Eremu horietan iraganean zeuden balio naturalak berreskuratu nahi dira, eta eremu horien ingurumen-birkualifikazioa sustatu nahi da.

Kategoria honen barruan sartzen da Azkoitiko hondakinen industria-zaborteia (Oñartxo).

#### **VII.3.- AZPIEGITURA HANDIAK HARTZEKO EGOKIAK DIREN ESPAZIOEN DESKRIBAPENA.**

Proposatutako ereduak eskatzen duen lurraldearen egituratzearen ondorioz, ez da korridore edo espazio berririk gaitu behar azpiegitura handiak bideratzeko. Gainera, egituratze horrek ez du gatazka handirik eragiten ingurunea babesteko eta balioz hornitzeko planteatutako neurriekin.

Aitzitik, azpiegituren arloko beharrak dagoeneko okupatuta dauden korridoretan gara daitezke, eta korridore horietako tarte batzuk garapen berrietarako gorde behar diren eremutzat jo daitezke, nagusi den ikuspegi paisajistikotik jakina.

Egindako diagnostikoaren ondorioz, eta 2020. urtearen horizonterako proposatzen diren helburuen ondorioz, askotariko azpiegiturak hartu behar dira aintzat.

#### VII.3.1.- Aireportu-azpiegitura.

Ezinbestekoa da azpiegitura hori aipatzea, garrantzi handikoa baita eremu funtzionalaren eta munduaren arteko erlazioan. Hala ere, esparru horren tamainak eta ezaugarri fisikoek ez dute aukera ematen mota horretako azpiegiturarik bertan finkatzeko. Horrenbestez, eremu funtzionala eta hurbilen dituen aireportu-azpiegiturak (Sondikako, Hondarribiko eta Miarrizeko aireportuak) lotzen dituzten garraiabideen eta komunikabideen hobekuntzara mugatuko dira arlo horretan egiten diren proposamenak.

#### VII.3.2.- Portu-azpiegiturak.

Eremu funtzionalean ez dira merkataritza-portuak aurreikusten, baina Bilboko, Pasaiaiko eta Baionako portuetara iristeko azpiegitura egokiak eduki behar direla aditzera ematen du.

Bestalde, eremu funtzionala kostaldean dagoenez gero, eta arrantzaren jardueraren eta ekonomia tradizionalen eraginez, itsasoan dibertimenduzko jarduerak duen gorakadaren ondorioz eta ekonomia-jarduerak anizteko interesaren ondorioz, portu-azpiegitura egokia eskaini beharko da. Azpiegitura horrek eremu funtzionalaren lurralde-dimentsioaz harantzagoko



hedadura du, eta eremu funtzionalaren garapenerako beste aktibo bat izango da.

Esparru horretan, Planaren horizonterako gaur egun bertan dauden hiru arrantza- eta kirol-portuen aukerak garatu nahi dira (Zumaia, Getaria eta Orio). Horretarako, azpiegitura horien prestazioak optimizatu nahi dira eta bertako zuzkidurak hobetu. Hiri-kokapenez baliatuta, ingurune horiek dinamizatuko dituzten askotariko hirugarren sektoreko erabilerak barne har daitezten sustatuko da.

Esku-hartze horiek bat datoz, oro har, dagokion sektoreko ekimenak formulatzen edo aztertzen dituen proposamenekin eta planekin.

Haatik, Ubiriko senaian kirol-portua ezartzeko aukera ez dago Planaren helburuekin kontraesanean.

### VII.3.3.- Garraio-azpiegitura.

Garraioa funtsezko helburu bat da ereduaren amaierako horizontean. Eremu funtzionalaren garapenerako ezinbestekoa da eremu funtzionalak irisgarritasun-baldintza onak edukitzea eta barne-mugikortasunerako baldintza onak edukitzea. Horretarako, portu-azpiegiturari eta aireportu-azpiegiturari dagokionez aditzera emandako esku-hartzeei gaineratu egin behar zaie errepide eta trenbideko komunikabide-sareak egokitzea.

Haatik, adierazitako sareak finkatzea eta osatzea –aurreraxeago ikusiko duguna– ez da nahikoa izango esparru horretan. Ezinbestekoa da maiztasuna hobetzea, bai aldiriko trenbide-sarearena, bai hori osatzen duten autobus-lineena.

Arlo horretako esku-hartze estrategikoak gauzatu beharko dira, eremu funtzionala bera finkatuko bada, eta hurbil edo urrun dauden beste lurralde batzuetara iristeko premiari erantzungo bazaio.

Errepideen eta trenbideen alorreko baterako esku-hartzeak eremu funtzionalean mugikortasun-baldintza egokiak izateko aukera emango du, eta bi garraiabide horien artean orekatu egingo dira bidaiarien eta merkantzien mugimenduak eta bizilekuaren eta lantokiaren arteko joan-etorriak.

Bestalde, errepide- eta trenbide-azpiegiturei lotuko zaien biltegitratzeko eremu logistikoa gaitzea aurreikusten da. Eremu logistiko hori Arroa Bekoko Sansinenean kokatuko da. Bestetik, garraiorako eremu bat aurreikusten da Lasaoan, eta ekipamendu horri dagozkion instalazioak izango ditu: kamioietarako aparkalekuak, zerbitzuak, eta abar.

Era berean, Zumaian modalitate arteko estazio bat egitea planteatzen da. Estazio horren bitartez lotuko dira Bilbo eta Donostia arteko trenbidea, berriro abiarazi nahi den Urolaren trenbidea, eta errepidean zeharreko autobus-garraioa. Esku-hartze hori Torreagako eremua eta udalerrri horretako hiriguneko estazioa birsortzeko prozesuan barne hartzen da.

#### VII.3.4.- Azpiegiturak: Bide-sarea.

Interesgarria iruditzen zaigu, hasteko, bide-sarearen ezaugarriek historikoki Gipuzkoako kokalekuetako kokatze orekatuan izan duten eragina nabarmentzea. Izan ere, alderdi hori ez dugu, inola ere, ahaztu behar honako plan hau formulatzean. Ildo horretan, 1324. urtean Getariatik Arrasatera Iraurgin barrean doan bidea nahitaez erabili beharra erabaki zen, eta erabaki horrek San Martin eta Salvatierra de Iraurgi izeneko hirigune berriak garatzea ekarri zuen (gaur egungo Azkoitia eta Azpeitia, hurrenez hurren).

Gisa horretako erreferentzien bitartez bide-sareak lurraldearen garapenean eta, zehazki, Planaren xede den lurraldearen garapenean duen eragin handia nabarmendu nahi da.

Horrenbestez, arlo horretan planak egiten duen proposamena garrantzi handikoa da, eta ekimen publikoak inbertsio handiak egin beharko ditu arlo horretan. Proposamen horietako batzuk dagoeneko barne hartzen dira Errepideen Plan Orokorrean; beste batzuk 1997. urtean onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio Azpiegituren Helburu, Irizpide eta Oinarrizko Orientabideari buruzko dokumentuan hartzen dira aintzat; beste batzuk, berriz, Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritzak sustatzen dituen proiektu eta azterlanen xede dira; eta, azkenik, bakan batzuk dokumentu honetan zehazki planteatzen dira.

Nolanahi ere, baieztatu daitezkeen aurreikusten diren esku-hartzeak bat datozela arloko ekimenak formulatzen dituen planekin eta proposamenekin.

Hortaz, planaren helburu gisa planteatzen da eremu funtzionala egituratzen duen bide-sarea baliagarria izatea, bai eremu funtzionala bera egituratzeko, bai eremu mugakideekin integratzeko, fluxuak eta trukeak erraztuz.

Eremu funtzionaleko bide-sarearen gaineko esku-hartzeak, lehen eskala batean eta proposatutako lurralde-ereduaren arabera, ibilbide ertain eta luzeko trafikora zuzenduko du A-8 autobidea. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako egitura-premiei erantzungo zaie, eta lurralde horretara kanpotik iristeko baldintzak ebatziko dira. Horretarako, A-8 autobidean, eremu funtzionala zeharkatzen duen tarte osoan, hirugarren erreiak eraikitzea planteatzen da Planaren programazioaren horizonterako.

Lehen planteamendu horren lehen ondorioa ibilbide horren lotuneen muga dugu. Izan ere, hiru lotune baino ez dira proiektatzen, bereizi diren lurralde-esparru bakoitzeko bat. Mendebaldean dagoen lotuneak, hau da, Arroakoak bi lurralde-esparruri egiten die zerbitzu, hau da, mendebaldeko

kostaldeari eta Iraurgiri egiten die zerbitzu. Beste bi lotuneak Zarautzen eta Orion (Txankan) kokatzen dira. Bi lehenengoak finkatu egiten dira, baina azkena Planak biltzen duen ekimen batekin lotzen da. Izatez, Planak beste erdilotune bat antolatu nahi du ekialdetik datozen eta ekialdera doazen mugimenduetarako.

Lehen planteamendu horrek badu bigarren ondorioa: eremu funtzionalaren beraren sarea antolatu beharra. Aukera horrek, eremu funtzional horretan, Debagoienekoaren moduko oinarrizko eredua garatzea ekarriko du. Oinarrizko eredu hori ez da Goierriko edo Toloserriko eremu funtzionalen ereduaren gisakoa izango, horietan egitura-ardatzek ibilbide luzeko mugimenduez gain, maila askotariko trafikoak biltzen baitituzte eta txertatze ugari baitituzte.

Hortaz, Planaren bide-sareak honako hierarkia izatea proposatzen da:

- 1.- KANPOKO SARBIDE SARE OROKORRA.  
(AUTOBIDEAK ETA AUTOBIAK)
- 2.- BANAKETA SARE NAGUSIA.  
(EREMU FUNTZIONALA EGITURATZEN DUEN SAREA)
- 3.- TOKIKO SARBIDE SAREA
- 4.- TOKIKO SARBIDE SARE SEKUNDARIOA

Ondoren hierarkia bakoitzerako formulatutako proposamenak deskribatu dira:

- 1.- KANPOKO SARBIDE SARE OROKORRA. AUTOBIDEAK ETA AUTOBIAK

Aditzera eman dugun moduan, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideei jarraituz, A-8 autobidea eskualdeaz kanpoko ibilbide

luzeetarako bide-ardatz gisa espezializatzea planteatzen da. Horrela, ekialde-mendebalde mugikortasuna zein hegoalde-iparralde mugikortasuna hartuko du –Eibar eta Gasteiz arteko autobia eraikitzen denean–. Izan ere, autobia hori abiarazten denean asko gehituko da A-8 autobideko trafikoa, eta justifikatu egingo da proposatzen den hirugarren erreien eraikuntza.

Horrenbestez, A-8 autobidea, hiri arteko bidaiez gain, eskualde arteko eta metropoli arteko bidaiak bilduko dituen ardatz gisa indartuko da. Orion, Txankan hain zuzen ere, beste erdilotune bat eraikitzea aurreikusten da.

## 2.- BANAKETA SARE NAGUSIA. EREMU FUNTZIONALA EGITURATZEN DUEN SAREA.

A-8 autobidearen ardatzaz gain, eskualdea behar bezala egituratuko duen ardatza behar da. Horixe bera, hain zuzen ere, sustatzen dute Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek. Eremu funtzionaleko hiri arteko komunikazioa egituratuko duen ardatz gisa Zarautz-Azkoitia-Azpeitia/Zumarraga bide-ardatza hobetu beharra sustatzen dute.

Ildo horretan, aurretik dauden korridoreetan bide-sarea berritzea proposatzen da. Iparraldean gauzatzen den ekialde-mendebalde norabideko ardatza Zarautz eta Arroa artean bitan banatuko da. Batek kostaldeko trazadurari jarraituko dio, Getarian zehar, eta besteak barrualdetik joko du, Meaga eta Oikian barrena. Bestalde, mendebaldeko iparralde-hegoalde ardatza izango dugu, Arroa eta Zumarraga lotzen dituen.

Hortaz, Arroa irisgarritasun handieneko leku bihurtu da, bertan iparraldeko eta mendebaldeko bi ardatzak gurutzatzen dira eta, gainera, A-8 autobideak lotunea du bertan.

Iparraldeko ardatza aurreikusten den A-8 autobidearen Txankako (Orio) lotunearen eta Arroako lotunearen artean trazatzen da, eta ekialderantz eta mendebalderantz jarraipena izango du, N-634 errepidearen bitartez. Mendebaldeko ardatzak lotu egiten ditu Arroako A-8 autobideko lotunea eta Beasain eta Durango lotzea aurreikusten duen Euskal Autonomia Erkidegoko bide-ardatz egituratzaile berria.

Iparraldeko ardatza egikaritzeko ezinbestekoa da jardun zehatz hauek egitea:

- Orioko saihesbidea. Oriko itsasadarraren gainean beste zubi bat eraikitzea aurreikusten da A-8 autobideko Txankako lotunetik abiatuta. Itsasadarraren hegoaldean proiektatzen da traza berria.
- Zarauzko saihesbidea. A-8 autobidearekiko paralelo eta horren alboan bideratuko den saihesbidea eraikitzea aurreikusten da. Saihesbidea autobidearen hegoaldetik bideratuko da Orioko gainetik Meagarako errepidearekin bat egin arte, Vista Alegre parean. Gainera, N-634 errepideari kostaldetik jarraipena emango dion sarbidea egitea aurreikusten du. Sarbide horren zati bat tunel gisa egin beharko da.
- Meagako errepidea guztiz birmoldatzea. Ekialdean trazadura zati batean egokitu beharko da, eta mendebaldeko bide-tartean beste traza bat egin beharko da. Meaga gaina zeharkatzeko tunel bat eraiki da Oikiara jaisteko, eta zubi bat eraiki beharko da Urola ibaiaren gainean A-8 autobidearekiko paralelo. Bestalde, gaur egun Txikierrira bitarteko bide-tarte hobetua berreskuratu beharko da.
- Zumaiako saihesbidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorrean ere proposatzen zena. Aldez aurretik dagoen trenbide-trazaren alboan gauzatzea aurreikusten da, Getariatik datorren N-634 errepidea Txikierridirekin lotuz.

- N-634 errepidearen trazadura berria Txikierdi eta Arroaren mendebaldearen artean. Gaur egungo trazadura eraldatzea aurreikusten da, batez ere hiri-trazadura baita. Gaur egungo trazadura Zumaia eta Arroa Bekoa lotuko dituen bizitegi-garapen berriaren ardatz egituratzaile bihurtuko da, eta, ondorioz, N-634 errepiderako beste ordezkoko ardatz bat proposatzen da. Ordezko ardatza hirigune horren hegoaldetik eta proiektatzen den industria-kokaleku berriaren iparraldetik bideratuko da.

Mendebaldeko ardatzak, eremu funtzionala egituratzeaz gain, garrantzi handiagoko lurralde-hedadura du, N-634 errepidea eta Beasain-Durango korridorea lotzen baititu. Izatez, bi ardatz horiek funtsezkoak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoa egituratzeko, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezartzen den bezalaxe. Mendebaldeko ardatza gauzatzeko ezinbestekoa da jardun zehatz hauek egitea:

- Zestoako saihesbidea. Zestoan GI-631 errepidearen trazadura berritzea aurreikusten da. Nolanahi ere, ekialdetik bideratuko den irtenbidea planteatuko da, eta “kanpoaldeko saihesbide” modalitatekoa nahiz “hiri-zeharbide” modalitatekoa izan daiteke ibilbidearen iparraldeko bide-tartean.
- GI-631 errepidearen berrikuntza Zestoa eta Azpeitia artean.
- Azpeitiko saihesbidea. Planaren horizontean, Landeta eta Juin-Txiki artean, eta Loiolaren hegoaldetik, traza berria eraikitzea proposatzen da. Lotune horiek birmoldatuko dira eta, horretarako, lehenean maila bikoitzeko bide-irtenbidea gauzatu beharko da. Ez da baztertzeko epe luzeagoan iparraldeko saihesbidea egiteko aukera, betiere bideen eta errepideen artean pertsonen eta merkantzien fluxuak nola banatzen diren ikusita, eta, jakina, errepidean zeharreko garraio kolektiborako bideratzen diren irtenbideen arabera.

- Azkoitiko saihesbideari hegoalderantz jarraipena ematea eta GI-631 errepidearen traza hobetzea, Zumarragara bitartean. Ekintza hori estrategikotzat hartzen da eremu funtzionalerako zein Urola Garairako. Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berrian, Santa Luzian, proiektatzen den geltokira behar bezala iristeko aukera emango du.

Iparraldeko trazaduraz (zati batean bitan banatua) eta mendebaldeko trazaduraz gain, GI-631 errepidea eta N-634 errepidea, Azkoitia eta Elgoibar artean –Azkarateko tunelean barrena– lotzen duen bide-ardatza hartu behar da aintzat.

### 3.- TOKIKO SARBIDE SAREA

Hierarkiaren hirugarren lerrunean Tokiko Sarbide Sarea dago. Sare horretan hiru bide-ardatz barne hartzen dira, eta horiek ere eremu funtzionaleko lurraldea egituratzeko ereduan dute garrantzia. Honako hauek dira:

- GI-2633 errepidea Oikia eta Iraeta artean. Mendebaldeko kostaldearen lurralde-esparrua egituratzeko elementua denez gero, errepidea hobetzea planteatzen da. Egin beharreko esku-hartzeen artean hauek nabarmendu behar dira: Meagatik Txikierdirako errepidearekiko lotunean eta GI-631 errepidearekiko lotunean egin beharreko jardunak –Plan honek eskema gisa aurreratzen dituen proposamenak kontuan izanik ebatziko direnak–.
- GI-2634 errepidea, Azpeitia eta Tolosa artean, Errezil eta Bidegoiandik barrena. Trazadura hobetzea planteatzen da eta esku-hartze horrek zenbait bihurgune zuzentzea ekarriko du, baita Errezilgo hirigunean saihesbide txiki bat egitea –proiektuaren eskalan definituko da horren soluzioa–, Bidaniko goi-ordokira iristeko tunel bat eraikitzea eta Landetan hiri-ardatza antolatzea ere.



- GI-2635 errepidea, Azpeitia eta Beasain artean, Mandubiatik barrena Errepide horretan jardun zehatzak egitea planteatzen da, hala nola gurutzaguneak hobetzea, sarrerak kontrolatzea eta bide-sekzioa hobetzea.

#### 4.- TOKIKO SARBIDE SARE SEKUNDARIOA

Kategoria honetan eremu funtzionalerako interesgarriak diren zenbait bide-ardatz barne hartzen da, eta kasu askotan horien hedadurak kategoria honen eskalaz harantzago doaz. Hona hemen bide-ardatz horiek:

- GI-2631 errepidea Orioko gaina eta Andazarrate artean. Aiako hirigunerako sarbideen antolamenduan esku hartu beharko da.
- Orioko hondartzarako sarbidea Txankatik.
- GI-3710 errepidea Orio eta Aia artean, San Pedrotik barrena. Errepide horren bi muturren lotuneak birmoldatzea eta Santioko hirigunearen saihesbidea ebazte aurreikusi da.
- GI-3391 errepidea Meaga eta Getaria (San Prudentzio) artean. Iparraldeko ardatz egituratzailea bitan banatzen da, eta bi trazadura horien eta Getariako sarbidearen arteko lotura erraztuko duen beste bide bat eraikitzea planteatzen da.
- GI-3740 errepidea Azpeitia eta Tolosa artean, Urrakin barrena.
- GI-3720 errepidea Nuarbe eta Santa Marinako bidegurutzaren artean, Beizamako hirigunerako sarbidea.

Eremu funtzionaleko sarea lurralderako eta, bereziki, landaguneetarako irisgarritasuna errazten duten beste errepide eta bide batzuk osatzen dute. Testuinguru horretan, Madariagarako sarbidea hobetzea proposatu da.

### VII.3.5.- Azpiegiturak: Trenbide-sarea.

Trenbide-sareak ere garrantzi handia du, funtsezkoa da Planaren proposamen orokorra behar bezala garatzeko eta haren lurralde-eredua lortzeko, proiektatzen dituen neurrien artean.

Aireportuen eta portuen arloan planteatu den moduan –eta proiektatzen den Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eremu funtzionaletik bideratzen ez denez gero–, sare horretan hurbilen dauden geltokietarako irisgarritasun-baldintzak hobetzera mugatuko dira hartu beharreko lehen neurriak. Santa Luzia, hegoaldean, eta Ergobia, ekialdean, dira hurbilen dauden geltokiak. Ildo horretan, errepideen arloan formulatzen diren proposamenek eskari horri erantzuten diote.

Bestalde, Planak beste bultzada bat eman nahi dio trenbideari, lurraldea egituratzeko garaian. Ildo horretan, jada formulatzen diren arloko proposamenekin bat eginez, 2020. urterako bi trenbide-ardatz edukitzea proposatzen da, bata iparraldekoa eta bestea mendebaldekoa. Trenbide horiek, bide-trazadurekiko paralelo bideratuz, gaur egun dagoen azpiegituraz baliatuko dira, eta garraiabide egokia izango dira merkantziatarako eta bidaiarientzako.

Eremu funtzionalaren barruko mugikortasunerako oinarrizko azpiegitura horrek geltoki-sare egokia izan beharko du, bizitegiaren eta lantokiaren arteko bidaietarako trenbidea erabili ahal izan dadin. Aukera hori Planaren proposamenekin lortzen da.

Egitura hori Donostialdeko aldiriko sarean barne hartzen da. Hala, Baiona-Donostiako Eurohiria osatzeko eta mendebalderantz izan dezakeen jarraipena gauzatzeko funtsezko elementua izango dena prestatzen du.

Era berean, Santa Luzian, eremu funtzionalaz kanpo, aurreikusten den Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren geltokia eta Urolaren ardatza (mendebaldeko ardatza) lotzeko aukerak aztertzea gomendatzen du Planak.

Erabiltzen den iparraldeko ardatzak ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du eremu funtzionala, Aginagatik Arroaz harantzagoraino, Debarako norabidean. Mendebaldeko ardatzak, aldiz, Zumaia eta Zumarraga lotzen ditu; alabaina, gaur egun ez du zerbitzurik eskaintzen, eta zati batzuetan beste erabilera batzuek okupatzen dute.

Iparraldeko ardatza finkatzeko ezinbestekoa da jardun zehatz hauek egitea:

- Sarea bitan banatu behar da, zerbitzuaren maiztasunak hobetearren.
- Aia-Orioko trenbide-pasagunea ezabatu behar da, eta Orioko geltokia birmoldatu egin behar da.
- Zarauzko hirigunean hiri-integrazioa hobetu behar da. Horretarako, tarte horren trazadura lurpean bideratzeko aukera jasotzen da, eta Asti inguruan beste geltoki bat aurreikusteko beharra planteatzen da.
- Zumaiaiko geltokia birmoldatzea. Modalitate arteko funtzioaz hornituko da, autobus bidezko bidaiarien garraioarekin lotuz.
- Basusta hegoaldean eta Narrondon (Zumaia) beste geltoki batzuk egin behar dira.
- Arroako geltokia hobetu behar da (Zestoa).

Bestalde, Urola ibaiaren haraneko trenbide-sarea –mendebaldeko ardatza– erabat leheneratzea aurreikusten da. Horretarako, honako jardun zehatzak egin beharko dira:

- Bertan behera utzitako antzinako trazadurari trenbide-erabilera itzultzea, azpiegitura zerbitzuan jartzeko azpiegiturak prestatzea, eta aldeez aurretik dauden geltokiak birmoldatzea.
- Trazadura eten egin duten guneeetan –hala nola Lasaoen– eta komendi den beste leku batzuetan, beste trazadura batzuk aurreikustea.
- Trenbide-traza berria egikaritzea Azpeitiko hirigunean. Trenaren Museoaren eta Sanjuandegiko mendebaldearen artean traza berria lurpean bideratu beharra proposatu da. Lur gainean hainbat geltoki gaitzea aurreikusi da.
- Trenbide-traza berria egitea Azkoitiko hirigunean. Hegoaldeko saihesbide gisako irtenbidea proposatzen da, eta geltokiak proposatzen dira Juinen eta Txalonerrekan (hirigune historikoaren eta Altzibarren garapenei jarraipena eman beharko dion bizitegi-eremu berria).

Jardun horiekin koordinaturik, geltokiekin lotuko diren dimentsio handiagoko edo txikiagoko aparkaleku gomendatuak antolatzea bultzatu behar da. Geltoki horiek lehentasunez udalaz gaindiko zuzkiduren alboan kokatu beharko dira. Hala, batetik, lan-egunetan eta lan-orduetan trenbide-sarerako irisgarritasunari erantzun nahi zaio, eta, bestetik, jai-egunetan eta ordu libreetan zuzkidura horien premiari erantzun nahi zaio.

#### VII.3.6.-Azpiegiturak: motorerik gabeko garraibideetarako sareak.

Planaren helburuen artean, motorerik gabeko mugikortasunerako eta garraiorako ordezeko sarea sortzea hartzen da aintzat.

Urolaren korridorean bidegorri-sare baten inguruko hainbat proposamen egiten da. Sare hori egiteko asmoa aspaldikoa bada ere, gauzatu gabe dago, eta orokorrean trenbide-traza zaharra xede horrekin berreskuratzearekin lotu da. Planak trenbide-arloan formulatzen duen proposamenaren ondorioz, beste trazadura bat bilatu behar da bidegorri-ardatz horretarako. Izan ere, bidegorri-ardatz hori egitea interesgarritzat

jotzen da, eta dagokion arloko ekimenetik garatu beharreko helburu gisa definitu da. Proposamen hori Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurraldearen osotasunerako sustatzen duen bidegorri-sarearen proiektuan aintzat hartzen da jada. Horrela, Planaren helburu gisa, espresuki gaineratzen da motorerik gabeko mugikortasunerako eta garraiorako ordezeko sarea sortzea.

Urolaren haranean proposatzen den bidegorri-ardatz horren trazadura zehazteko, behar-beharrezkotzat jo da GI-631 errepiderako planteatu diren egokitu, zuzendu eta hobetzeko obrekin koordinaturik gauzatzea ekimen hori, eta errepide horrek uzten dituen espazioak leheneratzea eta finkatzen diren espazioak eranstea.

Era berean, bidegorri horri Ibai Eder ibaiaren ibarrean zehar jarraipena ematea planteatu da.

Gainera, itsasertzean beste bidegorri bat antolatzea proposatu da.

Trazadurako eskemak Planaren II.4. planoan identifikatzen dira. Bidegorrien antolamendu-proposamenak garatzen dituzten plangintzako proiektuek eta tresnek Plan honetan proposatzen den eskema hartu beharko dute aintzat, eta bidegorriak diseinatzean eskema horren barruan integratzea justifikatu beharko dute.

Era berean, Planean oinezkoentzako ibilbide bat antolatzea hartzen da aintzat. Ibilbide horrek kostaldeko muinoak zeharkatuko ditu Kukuarri eta Igeldotik, ekialdean, Endata lur-muturreraino eta Debaraino, mendebaldean. Orioko hirigunea zeharkatuko du eta Oriaren beste aldean dagoen Txurruka aterpetik Inurritzara joko du. Zarauzko itsas pasealekua zeharkatu ondoren, Vista Alegre eta Santa Barbarara joko du Getariara heltzeko. Ondoren, Askizutik barrena Zumaiara iritsiko da Itziarrerantz

jotzeko. Ibilbide hori lehentasunez kostaldeko Santiago-bideari egokituko zaio. Kostaldearekiko paralelo luzatuko den oinezkoentzako ibilbide hori finkatzean, Santiago-bidearen trazadura hartuko da aintzat. Izan ere, 2000ko otsailaren 11ko EHAAren argitaratutako urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretu bidez multzo monumental izendatu zen Santiago-bidea.

Iparraldeko oinezkoentzako ardatz horrez gain, Gipuzkoa iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen mendiko ibilbide historiko bat finkatzea aurreikusten da, betiere eremu funtzionalean dagokion tartean. Mendiko ibilbide hori Donostiatik Arantzazu eta Arabara jotzen du, eta esparrua Iturriotzetik Murumendiraino zeharkatzen du, Zelatungo lepotik barrena Bidaniko gainera jaitsi eta bertatik, Beizamako Santa Ageda igaro ondoren, hegoalderantz jotzeko.

Bestalde, dimentsio txikiagoko baina aurreikus daitekeenez fluxu handiagoa izango duten oinezkoentzako beste ibilbide batzuk ezartzea edo egokitzea proiektatzen da. Mugatutako lurralde bakoitzeko ibilbide bat: Azkoitia-Azpeitia ibilbidea Loiolatik barrena; Oria ibaiaren itsasadarraren eskuinaldeko ur-bazterreko ibilbidea; Zarautz eta Getaria arteko ibilbidea kostaldetik; eta Narrondo ibaiaren itsasadarraren ur-bazterreko ibilbidea Arroa Bekotik Zumaiako itsasargiraino. Horietako lehena ekialdeko bidetartean (Azpeitia-Loiola) bereziki nabarmendu nahi da, Loiolako basilikaren zutean finkatuko den ardatz monumental nagusian barne hartuz.

### VII.3.7.-Azpiegiturak: Uraren zikloa

Ur-horniduraren arloan, aldez aurretik dagoen sare nagusia finkatu da. Sare nagusi hori batez ere Ibaieder urtegitik hornitzen da, eta demografiaren gorakada ikusirik eta proposatzen diren jardunen kokalekuak kontuan harturik, urtegi hori eremu funtzionalaren eskariari soilik erantzun beharko dio.

Ildo horretan, finkatu egiten da hirigune nagusiak hornitzen dituen Azpeitiko ur-araztegia eta ondorio horretarako diseinatu den sare nagusia –bere erregulazio-urandelak barne–. Dena den, horrek ez du eraginik izango hornidura egokia bermatzeko hartu beharreko neurri zehatzetan.

Gainera, beren kokapenaren altimetriaren ondorioz sare orokor horretaz baliatzen ez diren hirigune (Aia, Errezil, Beizama, Aizarna eta beste herrigune txikiago batzuk), auzo eta landagunetarako behar bezalako ur-hornidura ebaztea aurreikusten da.

Ingurunearen arloan, adierazitako proposamenen deskribapenean aditzera eman den moduan, Planak baliabide hidraulikoak babestea proposatzen du, bai lur gaineko urak babestea, bai lurpekoak babestea (batez ere azken horiek). Akuifero horiek oso ugariak dira, eta, etorkizunera begira, ur erreserba garrantzitsuak izan daitezke.

Saneamenduaren arloan, lau sare independente proiektatu dira, eta gutxi gorabehera bat datoz lurralde-esparruekin.

Lehen sare batean Iraurgi haraneko hondakin-uren isurketak biltzen dira, Iraeta inguruak barne. Sare horren araztegia Badiolegin (Lasao) kokatzen da.

Bigarren sare batek Mendebaldeko Kostaren saneamendua ebazten du, eta dagokion araztegia Basustan kokatzen da. Sarea Urola eta Narrondo itsasadarretatik uretan gora zabaltzea proiektatzen da. Hala, Planak esparru horietan proiektatzen dituen garapen berrien premiei erantzungo zaie.

Hirugarren sare batek, berriz, Erdialdeko eta Ekialdeko Kostako lurralde-esparruetako isurketak biltzen ditu, eta dagokion araztegia Inurritzan izango du. Bertatik itsasora isuriko dira urak, itsaspeko hustubide baten bitartez.

Azkenik, laugarren sareak Getariako hiriguneari egingo dio zerbitzu, eta bere araztegia Getariako portuan bertan kokatzea aurreikusten da.

Proposatutako irtenbideak abiarazteak Oria, Urola, Narrondo eta Ibaieder ibaien saneamendua areagotuko du, besteak beste, eta Kantauri Itsasoko itsasertzeko uren kalitatea hobetzea ekarriko du.

Nolanahi ere, neurri horiek osatzeko jardun zehatzak egin beharko dira kokaleku barreiatuetan, sare nagusiaz kanpo dauden horietan. Batzuetan kokaleku horien tamaina hartuko da kontuan (Aia, Errezil eta abar), eta beste batzuetan lurpeko akuiferoak kutsaduraz babestu beharra hartuko da aintzat (Aizarna). Zehazki, Aizarnako esparruan lehentasuneko ekintza bati ekitea planteatu da, hau da, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren ondoriozko hondakin-uren eta gaur egun dauden kokalekuetako hondakin-uren saneamenduari ekiteko.

Bestalde, planak uholdeen arazoei irtenbidea eman nahi die, eta ubideratzeko hainbat esku-hartze egitea proposatzen du, Azkoitian eta Zarautzen duela gutxi egindakoen ildotik. Izatez, Ibaieder eta Urola ibaiek bat egiten duten gunea aldatu nahi da, eta Narrondo ibaiaren meandroa hobetu nahi da. Horrela, ikuspuntu hidraulikotik gaur egun dagoen arazoa ebaztea aurreikusten da.



### VII.3.8.- Azpiegiturak: Telekomunikazio-sarea.

Planaren aurreikuspenen arabera, telekomunikazio-sarea eremu funtzionaleko lurraldearen osotasunera zabalduko da, funtsezkoa baita garapen osoa eta orekatua lortzeko.

Horretarako, bi ardatz izango dituen sarea aurreikusi da (iparraldeko ardatza eta mendebaldeko ardatza), eta sare horrek bitarteko egokiak izan beharko ditu barreiatuta dauden landa-kokalekuei zerbitzu egiteko.

Sarea finkatzean bitartekoak optimizatzea hartuko da aintzat, eta ekidin daitezkeen eraginak saihestuko dira, betiere beharrezko azpiegiturak –hala nola antenak eta beste elementu batzuk– kokatzeko jarraibide egokiak kontuan izanik.

### VII.3.9.- Azpiegiturak: Hondakinen tratamendurako sarea.

Lapatxeko eta Urtetako zaborteziak finkatu egin dira. Bestalde, Gipuzkoako Lurralde Historikoan arlo horretan berriki planteatu diren orientabide berrien arabera (Hiri Hondakinen Plan Integrala), birziklatzeko kota handiagoak lortu nahi dira hondakinen gaikako bilketaren bitartez, eta birziklatzen ez diren hondakinen tratamendurako beste proposamen batzuk aztertzea planteatzen da.

Azken ildo horretan balorizazio energetikoko plantak instalatzeko aukera aztertu beharko da, eta horien kokapena arloko ikuspegitik aztertu beharko da. Testuinguru horretan Gipuzkoan behar diren instalazioen kopurua eta horien balizko kokapena baloratu beharko da. Horren ondorioz, ikusi ahal izango da eremu funtzionalean mota horretako azpiegiturarik ezarri behar den edo ez –dokumentu honen edukiei dagokienez baloratu beharko da

hori-. Nolanahi ere, Planak Zarautzen dagoen Urtetako zabortegia eta Azpeitian dagoen Lapatxeko zabortegia finkatzea proposatzen du, eta azken zabortegi hori arlo horretako politikaren arabera premiei egokitzea planteatzen du.

#### VII.3.10.- Beste azpiegitura batzuk.

Finkatu egin dira energia elektrikoa hornitzeko eta gas naturala hornitzeko gaur egun eremu funtzionalean dauden sareak, eta gas naturala hornitzeko sarea eremu funtzionaleko herrigune gehiagotara zabaltzeko beharra planteatu da.

Plana behin-behineko onartzeko erabakiari jarraituz, Gazumeko parke eolikoaren aurreikuspena txertatu da –parke eoliko hori haize energia antolatzen Lurraldearen Arloko Planean ezartzen da–.

#### **VII.4.- EREMU FUNTZIONALERAKO INTERES KOMUNA DUTEN EKIPAMENDUEN ETA ESPAZIO LIBREEN KOKAPENAREN DESKRIBAPENA.**

Planteatutako bizi-kalitatearen hobekuntzak eta ereduak eskatzen duten egituraketa lortzeko, behar-beharrezkoa da lurralde-eskalan planteatu diren erronkak lortu ahal izateko zuzkidura berrien antolamenduari ekitea, toki-mailako beste ekimen batzuen kalterik gabe.

Aisialdiarekin eta turismoarekin lotzen diren jarduerak indartzea ere proposamen-maila honetan bertan barne hartzen da –bai zuzkidurako izaera hutsa duten jarduerak, bai hirugarren sektoreko izaera handiagoa dutenak–.

Planteatutako eredu orokorraren arabera, eta definitutako lurralde-esparru bakoitzaren nortasuna eta premiak kontuan izanik, arlo honetan jarraitu beharreko jardun-ildoak ezarri dira.

Horrenbestez, eta Planaren garapenean bateragarriak diren beste jardun osagarri batzuen kalterik gabe, honako jarduera egituratzaile zehatzak aurreikusi dira arlo horretan:

- Eremu funtzionalaren kulturagune nagusia Zarautzen finkatzea (liburutegia, erakusketak, biltzar txikietarako egoitza, eta abar). Santa Klaran ezartzea proposatu da.
- Loiolan dokumentazio-zentro bat garatzea, bere inguruan jarduera osagarriak gara daitezen sustatuz.
- Elkanoren irudiaren inguruan zentro tematiko bat sortzea Getariako portuaren ingurunean.
- Gaur egungo historiaurreko aztarnategien inguruan Zestoako Ekain eta Irikaizko parke tematikoak garatzea eta integratzea.
- Zestoako Hiri Termalaren proiektua garatzea.
- Gaur egungo museoak finkatzea (Balenciaga Getarian, Zuloaga eta Beobide Zumaian, Trenbidearena eta hurrena Azpeitian) eta museo berrietarako proposamenak (arraunari buruzkoa Orion, ontziolei buruzkoa Zumaian, pilota eta euskal kirolei buruzkoa Iraurgin, eta abar).
- Azkoitiko Munohandi hobi arkeologikoa balioz hornitzea.
- Lurralde-esparru bakoitzaren (Azkoitia-Azpeitia, Orio, Zarautz eta Zumaia) mailarako kirol-instalazioak finkatzea. Zarautz eta Zumaiakoak Astin eta Hegoaldeko Zabalduran, hurrenez hurren, osatzea aurreikusten da. Era berean, kirol-eremu handi bat antolatu nahi da Iraetan eremu funtzionalaren osotasunerako.
- Lurralde-esparru bakoitzerako irakaskuntza-ekipamendua finkatzea, eta Azkoitiko lanbide-heziketako ikastetxearekin lotzen den hezkuntza-ekipamendua eremu funtzionalaren mailan zabaltzea eta garatzea.

- Beste herriguneren batetik 3 kilometrora baino gehiagora dauden eta 100 biztanle baino gehiago dituzten herrigune guztietan, lehen mailako hezkuntzako gutxieneko zuzkidura garatzea.
- Eremu funtzionaleko lau lurralde-esparruetan hirugarren adinaren zerbitzurako zuzkidurak sustatzea.
- Interes orokorreko espazio libreen antolamendua, udal-plangintzak aurreikusten dituenak barne hartuz. Pagoetako atsedeneremuen ezarpena garatuko da, eta ekimen berriak sustatuko dira, hala nola Astiko erreka-ondoa parke lineal bat sortzea Zarautzen, eta azalera handiko parke bat eraikitzea Ezkabason (Zumaia eta Zestoa).
- Kostaldean dauden atsedenerako hondartzak finkatzea, ekipamendu egokiez hornituz. Jardun zehatzak eta lotzen zaizkien hirugarren sektoreko zuzkidurak aurreikusi dira, baita turismo-kanpalekuak ere Orion eta Santiagon (Zumaia).
- Hotelen eta, orokorrean, ostalaritzaren garapena, betiere bizitegi-garapenekin eta hirugarren sektoreko garapenekin bateragarria.
- Kirol-portuen zuzkidura garatzea eta pixkanaka egokitzea, eremu funtzionaleko eskaintza Kantauriko kostaldean askotariko eskaintza lehiakor berri bihurtzeko. Ildo horretan, dagoeneko planteatu diren eta aribidean diren Zumaia, Getaria eta Orioko ekimenak planaren mugen barruan garatzea proposatzen da, ekimen horien garapena hirugarren sektoreko beste garapen batzuekin bateragarri eginez. Eremu horiek estazio nautiko gisa hartzea planteatzen da.
- Udalaz gaindiko ekipamenduak finkatzea: suhiltzaile-parkea (Zarautz eta Azpeitia), bigarren mailako irakaskuntza (hainbat gune), Bastartxo antzokia (Azkoitia), Ertzaintza (Zarautz eta Azkoitia), Epaitegia (Azpeitia), eta abar.
- Barreiatutako landa-kokalekuetarako oinarritzko ekipamenduen zuzkidura (aparkaleku-eremu integratuak, harrera-espazioak, ostalaritza-azpiegiturak, eta abar).

Planean proiektatzen diren azpiegitura-ekipamendu horiei ereduarekin bat datozen beste ekimen batzuk gaineratu behar zaizkie, eta, ekimen horiek aintzat hartu behar badira ere, ez da gauzatu beharra planteatzen. Honakoak dira ekimen horiek: Aian zentro tematiko bat eratzea (Altxerri), Astiko kirolgunea beste zuzkidura-jarduera batzuekin osatzea –urarekin lotzen diren jarduerak–, edota Aizarnazabal eta Zestoan –Muitzeko ingurunean- golf-zelaia sortzea, betiere Urola ibaiaren ibarrean nagusi den esparru horren balio naturalak eta paisajistikoak errespetatuz.

#### **VII.5.- LEHENERATZEAREN XEDE DIREN ESPAZIOEN DESKRIBAPENA**

Planak proposatzen duen lurralde-ereduak aldeztu aurretik dauden kokalekuak finkatzea hartzen du aintzat. Alabaina, helburu orokor hori bi ildo bereizitan ñabartu behar da.

Batetik, Planak degradatutako bizitegi-eremuen gaineko esku-hartze positiboa aurreikusten du, eta berdin dio erdi-aroko jatorria duten hirigune historikoak izan edo erabat birgaitu behar diren garapen garaikideagoak izan.

Bestalde, Planak hiri-eremuak leheneratzeko prozesuak ere aztertzen ditu. Horretarako, eremu horien erabilera berriro orientatzen du eta, gainera, honakoa proposatzen du: denboraren poderioz bizitegi-bilbeen barruan barne hartuta geratu diren industria-erabilera bateraezinak lekuz aldatzea eta horien ordean espazio libreen eta ekipamenduen zuzkidura erantsiko duten bizitegi-eremuekin garatzea.

Lehen kasuan, ahalegin ekonomiko handia eskatzen duten esku-hartzeak gauzatu behar dira. Bigarren kasuan, berriz, aldez aurretik industria-lurzoru berriak prestatu beharko dira, lekualdatu diren industria-jarduerak bertan kokatzeko eta eguneratzeko; ondoren, lur-eremu horiek eraberritu egin beharko dira eta finkatutako bilbeetan integratu.

Planaren esparruan lehentasuna duten ondorengo ekintza zehatzak formulatzen dira, udal-plangintzen garapenean beste batzuk proposatzearen kaltetan izan gabe.

#### VII.5.1.- Birgaitze integraleko eremuak.

- Aia, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Zestoa, Aizarna, Azpeitia eta Azkoitiko hirigune historikoak birgaitzeko prozesuei jarraipena ematea.
- Zarauzko Zalbide Zahar eta Zelai-ondo bizitegi-auzoak birgaitzea.

#### VII.5.2.- Hiri-aldaketako eremuak

- Zarauzko Salberdin eta Hegoalderen hiri-eraberritzea.
- Getariako Indaux eremua hiri-eraberritzea.
- Zumaiaiko Txikiardi eta Narrondo ingurunea hiri-eraberritzea.
- Zestoako Arroa Bekoko Rezola eremua hiri-eraberritzea.
- Azpeitiko Soreasu eta Zezen Plaza eremua hiri-eraberritzea.
- Azkoitiko Insausti eremua hiri-eraberritzea.

### **VII.6.- PREZIO MUGATUKO ETXEBIZITZETARAKO LURZORU ERRESERBAREN KUANTIFIKAZIOAREN DESKRIBAPENA ETA KOKALEKU HORIETARAKO ORIENTABIDE PROPOSAMENEN DESKRIBAPENA**

Memoria honen III. atalean adierazten denez, datozen sei urteetarako Planaren helburua eremu funtzionalaren barruan urtean batez beste babes ofizialeko 300 etxebizitza eskaintzea da. Eskaintza horren zenbateko hori

pixkanaka jaitsiko litzateke hurrengo bi seiurtekoetan, urtean 200 etxebizitzatara eta 125 etxebizitzatara hurrenez hurren.

Zenbateko hori azken urteotan egin den batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da, baina bat dator Etxebide Planean formulatu diren aurreikuspenekin. Izatez, Plan horrek batez beste 214 etxebizitza egitea aurreikusten zuen, eta gutxienekotzat jotzen zen Plan horren ikuspegitik. Batez ere ikusirik zer alde dagoen, batetik, dokumentu honetan ezartzen den hazkunde demografikoko perspektibaren eta, bestetik, gai honen inguruan formulatutako Lurraldearen Arloko Planean ezartzen denaren artean.

Planaren horizontean, eremu funtzionalaren barruan 12.000 etxebizitza berri antolatzea aurreikusten da, eta, horietatik, 3.900 babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenpean bideratzea planteatzen da. Proposamen orokor horren barruan, hain zuzen ere, biltzen da honako aurreikuspen hau.

Aurrekontu horien ondorioz, eta erabilitako koefiziente zuzentzailea kontuan izanik, 2020. urteko horizontean guztira 40.000 etxebizitzako parkea izango da. Horietatik 31.000 baino gehiago etxebizitza nagusi izango dira, eta 9.000 inguru desokupatuta egongo dira (eraikitzen edo salmentan, bigarren bizitegi gisa edo besterik gabe hutsik).

Hala, datozen sei urteetan, urteko batez beste 600 etxebizitza baino zertxobait gehiago sortzea aurreikusten da (gaur egungo produkzioaren baliokidea). Ondoren, ratio hori hurrengo hamabi urteetan pixkanaka murriztea eta Planaren amaierako horizontean urteko 500 etxebizitza inguru sortzea aurreikusten da.

Ondorio horretarako, sustatu beharreko bizitegi-kokaleku berriek aurreko atalean adierazi diren hiri-eraberritzeko eragiketak osatuko dituzte, horixe da, hain zuzen ere, ereduaren orientabidea.

Horretarako, proposamena bi oinarrizko erreferentetan oinarritzen da: lurralde-esparru bereziak (Iraurgi, Mendebaldeko Kosta, Erdialdeko Kosta eta Ekialdeko Kosta) eta hirigune nagusiak indartzeko eta ehunak modu kontrolatuan trinkotzeko helburua. Orokorrean dentsitate handiak aukeratu dira bizitegi-erabilerak ezartzeko –merkataritzako eta hirugarren sektoreko jarduerekin, oro har, zuzenean loturik–, eta, hala, hiri-eremu mistoak eta dinamikoak gauzatuko dira.

Hortaz, bost esku-hartze estrategiko planteatzen dira etxebizitzaren arloan. Horietan guztietan zati bat babespeko etxebizitzak eraikitzen zuzenduko da, Planak gutxieneko helburu gisa formulatutako aurreikuspenak gutxienez bermatuz. Honakoak dira esku-hartze estrategiko horiek: Orioko iparraldeko zabalduaren garapena (Ekialdeko Kostaldeko lurralde-esparrua); Zarauzko ekialdeko Asti eta Artikoko zabaldua berria (Erdialdeko Kostako lurralde-esparrua); Zumaiako hegoaldeko zabaldua, hiri-eremu osatuz Txikiardi, Narrondo eta Rezolatik Zestoako Arroa Bekoraino (Mendebaldeko Kostako lurralde-esparrua); eta Azkoitiko hego-ekialdean eta Azpeitiko mendebaldean proposatzen diren bi garapenak (Iraurgiko lurralde-esparruan).

Oinarrizko esku-hartze egituratzaile horiei beste proposamen batzuk gaineratzen zaizkie, hots, lurraldearen garapen orekaturako interesgarriak diren hedadura txikiagoko beste proposamen batzuk, hala nola hiri-hutsuneak osatzera zuzentzen diren ekimenak (Dike, Orion; Itzurun, Zumaian; eta beste batzuk), tamaina txikiagoko hiriguneak osatzera zuzentzen direnak (Getaria, Zestoa, Aiako San Pedro, eta beste batzuk), edo dentsitate txikiko kokalekuen eskariari erantzutekoak –ekimen horiek



lurraldean kontrolik gabe ez garatzeko zenbait kokapen zehatz aurreikusi da-. Azken esku-hartze horiek aldeztatik dauden hiriguneak dituzte oinarri, eta bat datozen kokapen hauekin: Urrestilla eta Oñatzen mazela Azpeitian; Oikia Zumaian; Aizarnazabalgo hirigunea; Elkano Aia eta Zarautzen; Talai-mendi Zarautzen; Olaskoegia, Santio eta hirigunea Aian; eta Madariaga Azkoitian. Eskari hori, gainera, aldeztatik barreiatuta dagoen baserriak birgaitzera ere zuzentzen da, betiere hiru helbururi jarraituz: gaur egun dagoen ondarea erabiltzea eta balioztatzea, hutsik dauden etxebizitzaren parkea murriztea, eta paisaia mantentzea.

Horrez gain, proposamenak barreiatuta dauden landa-kokalekuak identifikatzen ditu. Landa-kokaleku horiek finkatu egin nahi dira, eta, horretarako, bidezko neurriak sustatzen dira –zehazki, askotariko zuzkidurak ezartzea sustatuko da-.

Horrela, dagokion antolamendu-planoan identifikatzen diren landa-kokaleku guztiak hartzen dira lurralderako sarreragunetzat –betiere Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako terminologiari jarraituz-. Honakoak nabarmentzen dira: Aizarna, Beizama, Kuku-Herri, Zuazola-Olaso, Madariaga, Errezil, Erdoizta, Endoia, Arroa Goikoa, Artadi, [Aratz-erreka](#), [Eizmendi](#), [Elosiaga](#), [Matxinbenta](#), Oñatz eta Nuarbe, eta udal-plangintza orokorrak horiek osatzearen kaltetan izan gabe.

Esparru orokor horretan, eremu funtzionalean bigarren bizitegi eskariari erantzuneko dion eskaintza ez da lurraldean nabarmenduko, eredu gisa proposatzen diren bizitegi-continuum mistoetan integratzen da-eta.

Horrenbestez, Planaren antolamendu-planoetan hainbat kokaleku/hirigune finkatuko morfologia bereizten eta irudikatzen dira (lehentasunez dentsitate handiko edo txikiko hiri-garapena izango duten eremuak eta landa-kokalekuak).

Formulatzen den proposamenak Iraurgi haraneko kokalekuen zeregin eta dimentsio tradizionala finkatzea planteatzen du. kokaleku horiek kostaldeko garapenak osatuko dituzte, eta horietan oso bestelako esku-hartzeak proposatzen dira. Izan ere, nolabaiteko oreka bilatu nahi da; batetik, Erdialdeko Kotako hazkundera gehiago mailakatu nahi da, eta, bestetik, Ekialdeko Kostako eta Mendebaldeko Kostako garapen egituratzaileak sustatu nahi dira –Mendebaldeko Kostakoen antolamendua atzeratuago dago–.

Ikuspuntu kuantitatibotik, proposamenak honako eraikuntza-ahalegina jasotzen du mugatutako lurralde-esparru bakoitzean eta etxebizitzaren arloan. Ohartarazi behar da lurralde-esparru horiek ez daudela aseta, edo ez dutela metatze handirik.

#### VII.6.1.- Iraurgi.

Eremu garatu batekin bat datorren lurralde-esparru bat izanik ere, harrera-ahalmen handia du.

Proposamenak bi hirigune nagusien –Azpeitia eta Azkoitiaren– hiri-izaera indartzea hartzen du aintzat, bere hiri-bilbeak indartzea eta bi hiriguneetan garapen berriak egitea proposatzen du. Bi kasuetan garapen berriak elkarrengana orientatuko dira, Loiolarako norabidean. Hala, indartu egingo da Iraurgiko haraneko bizitegi-kokalekuaren nortasuna.

Ildo horretan, Planak Loiolako ingurunea babestu egingo du, hori izango baita inolako zalantzarik gabe haraneko elementu zentrala eta isolatua, eta halakotzat finkatu beharko baita. Horrela, Loiolarekin lotzen duen “hiribideak” dimentsio monumentala ere edukitzea planteatzen da, betiere lekuaren eskala kontuan izanik. Hala ere, ekialdeko bidetartean bizitegi-garapenak sustatzea proposatu da.

Horrez gain, Zestoako hirigunea finkatzea planteatzen da, baita hirigunearen hazkunde naturala Ekain, Irikaitz eta bainuetxeko hurbileko ingurunerantz ere. Horrek hirugarren sektoreko ahalmen gehigarria gaineratzen dio hiriguneari.

Lurraldearen kalitatea, bizitegi-premiak eta aukeratutako eredia direla-eta, bideratzen dira ezarpen berriak dentsitate handiko hiri-morfologietarantz (San Martin, Altamira, Txalon erreka, Santa Klara eta abar Azkoitian eta Zezen Plaza, San Migel, Esklabak, Hiribidea eta abar Azpeitian), garapen berrien ondoriozkoak izan zein hiri-eraberritzeko esku-hartzeen ondoriozkoa izan.

Bestalde, dentsitate txikiko garapenen ordezkari erantzuten dio, eta, horretarako, zenbait hirigunetatik hurbil bizitegi-garapen berri txikiak antolatzea proposatzen da, batez ere Urrestillako hirigunetik hurbil eta, neurri txikiagoan, Errezil, Beizama, Aizarna, Nuarbe eta Madariagako hiriguneetatik hurbil. Gauzak horrela, eremu funtzionalerako proiektatutako bigarren bizitegiko eskaintza lurralde-esparrura orientatuko da. Halaber, Madariaga habitat alternatibotzat hartzea planteatu da.

Proiektaturiko lurralde-ereduaren arabera, eta Planaren horizontean bizitegi-garapena mailakatzeko ideiarekin, 3.600 etxebizitza berriko aurreikuspena egin da. Horietatik 1.200 etxebizitza babes ofizialeko erregimenpekoak izango dira eta 200 inguru dentsitate txikiko garapenei dagozkie.

#### VII.6.2.- Ekialdeko Kosta.

Funtsean bizitegi-erabilerak, hirugarren sektorekoak eta zuzkidurakoak ezartzeko harrera-ahalmen handia duen lurralde-esparru bat da.

Orio orientazio horretan espezializatzea proposatzen da bertan. Proposamen horri esker, Orioko hirigunearen nortasuna eta funtzionalitatea finkatu egingo da, eta, era berean, hirigunea prestatu egingo da –epe luzera hurbil dagoen Donostialdeko fenomeno metropolitarra garatuz gero, sor daitezkeen ondorioetarako prestatuko da–. Horrenbestez, hiri-ingurune horren hiri-izaera indartzea proposatzen da, hau da, hirigunea finkatzea eta hondartzarantz garatzea Oria itsasadarraren aurrealdean, dentsitate handiko tipologiekin. Bestalde, itsasadarraren hegoaldean, hau da, Aiako udalerrian, dentsitate txikiko garapenak bideratzea proposatzen da (Olaskoegia). Azkenik, Santion (Aia) gaur egun dauden entitate txikiagoko bizitegi-kokalekuak (Santio eta San Pedro) finkatzea proposatzen da, eta gunehoriek konfiguratzeko eta berrekipatzeko aukera emango duten garapen txikiak onartzen dira.

Ildo horretan, Orioko hirigunea habitat alternatibotzat hartzea planteatzen da, betiere Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezarritakoari jarraituz. Orokorrean, eremu funtzionalerako proiektatzen den bigarren bizitegiko eskaintzaren zati bat lurralde-esparru honetarantz bideratzen da.

Proiektaturiko lurralde-ereduaren arabera, 1.100 etxebizitza berriko aurreikuspena egin da. Horietatik 300 etxebizitzak gutxienez babes ofizialeko erregimenpekoak izan beharko dute.

### VII.6.3.- Erdialdeko Kosta.

Eremu garatu batekin bat egiten duen lurralde-esparru honen harrera-ahalmena gero eta txikiagoa da, eta, hortaz, egokia izan daiteke epe laburrera bertako hiri-bilbea finkatzeko eta sendotzeko esku-hartzeak bideratzea.

Bizitegi eta zerbitzuetako esparru bat zehaztea planteatzen da, betiere bertako aniztasun ekonomikoaren kaltetan izan gabe. Ildo horretan, Zarauzko hirigunearen hiri-izaera indartu nahi da, bere barne-finkapena areagotu nahi da, auzo berriak eraberritu, nagusiki industria-izaera duten gune zentralak bizitegi-eremu bihurtu, eta ekialderantz garapen berriak bideratu nahi dira autobidearen mugara arte (Artiko mendebaldea eta A-8 autobidearekiko lotunearen ekialdea eta Asti iparraldea). Bere garaian Inurritzako biotopo babestuan barne hartu ez ziren lurak okupatuko dira, eta, eremu babestu horren hegoaldean dagoen inguru degradatuago horretan, bizitegi eta hirugarren sektorerako premia zehatzei erantzungo dien joera finkatuko da. Haatik, Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean aintzat hartutako balio handieneko hezeguneak babestuko dira. Alabaina, plangintza orokorra idaztean, hezegune horien muga berregokitu ahal izango da –proposatzen den antolamenduaren emaitza gisa–; dena den, Lurraldearen Arloko Plan horretan ezartzen den erabileren eta jardueren erregulazioa errespetatu beharko da. Halaber, Getariako hirigune finkatzea proposatzen da, eta hegoalderantz pixka bat zabaltzea planteatzen da. Lurraldearen kalitatea, bizitegi-premiak eta aukeratutako ereduak direla-eta, bideratzen dira ezarpen berriak dentsitate handiko hiri-morfologietarantz, garapen berrien ondoriozkoak izan zein hiri-eraberritzeko esku-hartzeen ondoriozkoak izan.

Proposamen horiek programatzeko ondorioetarako, lehentasunekotzat jotzen da bilbe finkatuan (Santa Klara, Salberdin, Hegoalde, eta abarretan) eta Artikon esku-hartzea. Kokapen estrategiko horretarantz bideratu beharko da lehen fase batean babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza. Asti Iparraldea garatzea eta egikaritzea lehentasuneko bigarren maila batean dago.

Bestalde, ereduak dentsitate txikiko garapenen ordezkari erantzuten dio, eta horretarako Aia (hirigunea) eta Elkano (Aia-Zarautz) hiriguneen

inguruan bizitegi-garapen berriak antolatzea proposatzen da, baita Zarauzko Talai mendiren hegoaldeko mazelan ere. Ildo horretan, Elkanoko hirigunea habitat alternatibotzat hartzea planteatzen da, betiere Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezarritakoari jarraituz. Bestalde, orokorrean eremu funtzionalerako proiektatzen den bigarren bizitegi eskaintzaren zati bat lurralde-esparru honetarantz bideratzen da.

Proiektaturiko lurralde-ereduaren arabera, eta Planaren horizontean bizitegi-garapena mailakatzeko ideiarekin, 4.100 etxebizitza berriko aurreikuspena egin da. Horietatik, 1.200 etxebizitza babes ofizialeko erregimenpekoak izango dira, eta 500 inguru dentsitate txikiko garapenei dagozkie.

#### VII.6.4.- Mendebaldeko Kosta:

Behar besteko barne-egiturarik ez duen, baina bestetik harrera-ahalmen handia duen lurralde-esparru bat da.

Horrenbestez, proposamenak Zumaiako hirigunearen hiri-izaera sustatzea hartzen du aintzat, eta Urola eta Narrondo ibaien ibarretatik hegoalderantz hedatzea proiektatzen du, Txikiardi, Narrondo eta Arroa Bekoko garapen bakanduak bilduko dituen hiri-continuum osatuz. Plangintza horrek zenbait industria-kokaleku hirugarren sektorearekin bateragarria den bizitegi-erabilerako kokaleku bihurtzea dakar.

Bertan bizitegi eta zerbitzuetarako esparrua zehaztu nahi da, eta, horretarako, azpiegituren eta zuzkiduraren arloan egin berri diren eta Plan honetan osatzea aurreikusten diren hobekuntzak hartuko dira oinarri (bidea, modalitate arteko geltokia, Santiago hondartzaren ondoko garapenak, ekipamenduak eta abar).

Lurraldearen kalitatea, bizitegi-premiak eta aukeratutako ereduak direla-eta, bideratzen dira ezarpen berriak dentsitate handiko hiri-morfologietarantz, garapen berrien ondoriozkoak izan zein hiri-eraberritzeko esku-hartzeen ondoriozkoak izan.

Bestalde, ereduak dentsitate txikiko garapenen ordezkari eskariari erantzuten dio, eta horretarako Aizarnazabal (hirigunea) eta Oikiako (Zumaia) hiriguneen inguruan bizitegi-garapen berriak antolatzea proposatzen da.

Ildo horretan, Zumaia/Arroa Bekoa hiri-continuuma hazkunde hautakorreko eremutzat jotzea eta Oikiako hirigunea habitat alternatibotzat hartzea planteatzen da, betiere Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezarritakoari jarraituz. Bestalde, orokorrean eremu funtzionalerako proiektatzen den bigarren bizitegiko eskaintzaren zati bat lurralde-esparru honetarantz bideratzen da.

Proiektaturiko lurralde-ereduaren arabera, eta Planaren horizontean bizitegi-garapena mailakatzeko ideiarekin, 2.700 etxebizitza berriko aurreikuspena egin da. Horietatik, 1.200 etxebizitza babes ofizialeko erregimenpekoak izango dira, eta 200 inguru dentsitate txikiko garapenei dagozkie.

#### VII.6.5.- Eremu funtzionalaren osotasuna.

Eremu funtzionalaren osotasunerako bizitegi-eskaintza horrek guztira 12.000 etxebizitza berri sortzea dakar, horietatik 500 finkatutako eremuak birgaitzeko eragiketen ondoriozkoak dira –azalera eraikia handituta edo handitu gabe etxebizitzaren kopurua gehitzeko prozesuak gertatzen dira–, 1.200 dentsitate txikiko garapen berrien ondoriozkoak dira, eta 9.300 hiri-eraberritzeko eta dentsitate handiko garapen berriko eragiketen ondoriozkoak dira.

Ondoren agertzen den taulan bizitegi-eskaintza hori xehatu egiten da, baita udal-mailan ere. Lurraldearen harrera-ahalmenari eta udalerrien eta proposatutako lurralde-ereduaren hiri-egituraren ondoriozko inplikazioei erreparatu zaie. Dena den, aditzera ematen diren zenbatekoak adierazleak baino ez dira. Proposatutako lurralde-ereduaren arabera, udal-plangintza orokorrak bizitegi-dimentsionatzea kalkulatzeko erabili beharreko metodoa dokumentu honen araudian bertan ezartzen da, betiere Lurraldearen Arloko Planekin koordinaturik.

Bestalde, aldez aurretik dauden eta proposamenaren planoetan identifikatzen diren landa-kokalekuak finkatzea proiektatzen da, udal-plangintzaren zehaztapenen arabera garapen zehatza izatearen kalterik gabe.

Horrenbestez, honakoa da etxebizitzaren banaketa, udalerriz udalerriz:

**BIZITEGI-ESKAINZA BERRIAREN KUANTIFIKAZIOA**  
**ETA KOKAPENA UDALERRIZ UDALERRI:**

(Birgaitze-prozesuen emaitzazkoa salbuetsita: 500 etxebizitza)

| <u>UDALERRIA</u> | Gutxieneko<br>dimentsioa | Gehieneko<br>dimentsioa |
|------------------|--------------------------|-------------------------|
| AIA              | 350                      | 500                     |
| AIZARNAZABAL     | 50                       | 100                     |
| AZKOITIA         | 1.050                    | 1.500                   |
| AZPEITIA         | 1.350                    | 1.750                   |



| <u>UDALERRIA</u> | Gutxieneko<br>dimentsioa | Gehieneko<br>dimentsioa |
|------------------|--------------------------|-------------------------|
| BEIZAMA          | 20                       | 50                      |
| ERREZIL          | 50                       | ... 100                 |
| GETARIA          | 330                      | ...500                  |
| ORIO             | ...800                   | 1.000                   |
| ZARAUZ           | 2.400                    | 3.250                   |
| ZESTOA           | 500                      | 650                     |
| ZUMAIA           | 1.600                    | 2.100                   |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>8.500</b>             | <b>11.500</b>           |

#### **VII.7.- EKONOMIA JARDUERETARAKO LURZORUAREN SUSTAPEN PUBLIKORAKO LURZORU ERRESERBARI DAGOKION KUANTIFIKAZIOAREN DESKRIBAPENA**

Dokumentu honetan adierazten denari jarraituz, eremu funtzionalaren garapenak ezinbestekoa du, batetik, esparruan garatzen diren ekonomia-jardueren aniztasuna finkatzea eta hirugarren sektorearen arloan aurrerapen handia bultzatzea, eta, bestetik, lurralde horren sektore sendoen aldeko apustua egitea, hau da, eremu funtzionalean tradizioz ezarri diren jardueren alde egitea: metalen produkzioa eta eraldaketa, eta zuraren industria.

Horretarako, beste premia batzuen artean eta lurraldearen ikuspuntutik, etorkizuneko eskariari aurre egiteko beharrezko lurzorua prestatzeko neurriak nabarmendu behar dira.

Ildo horretan lau jardun-ildo nagusi zabaldu dira:

- Lehen ildoak eremu funtzionalean jada ezarrita dauden jardueren berezko garapen endogenoei eta naturalei erantzun behar die.
- Bigarren ildoak espazio, irisgarritasun eta abarreko baldintza berriak behar dituzten eta egoera zaharkituta duten jardueri edo sustatzen den lurralde-ereduarekin kokapen bateraezina duten jardueri erantzuten die, betiere eremu funtzionalean jada ezarrita daudenei. Nolanahi ere, ezarpen berrietarako lurzorua behar da.
- Hirugarren ildo bat dator eskari berriek eta hazkunde ekonomikoak eskatzen duten lurzorua prestatzearekin.
- Laugarren ildoak, azkenik, bat dator garrantzia bereziko lurzoru-erreserba aurreikusteko aukerarekin. Izatez, lurzoru-erreserba horrek kokapen eta irisgarritasuneko baldintza egokiak izango ditu bertan, eremu funtzionalaz harantzagoko garrantzia duten jarduera estrategikoak ere barne hartzeko moduan. Horretarako, eremu funtzionalaren kokapena, eskaintzen duen lurzorua, eta arlo horretan eskumena duen administrazioak planteatzen dituen ekimenak hartuko dira aintzat.

Jardun-ildo horiek erantzun egokia dute Planean, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren esparruan planteatzen diren arloko proposamenekin bat eginez.

Ildo horretan, eta Planean aurreikusten diren lurralde-esparruen mugapenaren arabera, honako proposamenak egin dira:

#### VII.7.1.- Iraurgi.

Aurretik aditzera eman den moduan, lurralde-esparru honek esku-laneko fluxuak erakartzen ditu, eta eremu funtzionaleko industria-enpleguaren zati handi bat eskaintzen da bertan. Hortaz, Planak egoera hori finkatu nahi du, eta lurralde-esparruaren barruan definitutako bertako hiru eskari-motei erantzun ematen zaie. Horretarako, Azpeitiko Urrestillako ardatzaren industria-garapena planteatzen da, eta, aldi berean, beste garapen batzuk planteatzen dira, hala nola Basarte, Oñartxo, Izarre Jandalo eta Balenziaga zabaltzea.

Zestoako hirigunean bizitegi, zuzkidura eta hirugarren sektoreko espezializazioa aurreikusten da, eta hori Hiri Termalaren proiektuaren eta Ekain-Irikaitzen finkatu beharreko parke tematikoaren garapenean oinarrituko da.

#### VII.7.2.- Ekialdeko Kosta.

Orioko hirigunean bizitegi, zuzkidura eta hirugarren sektoreko espezializazioa sustatzearen ildotik, Planak ez du udalerrri horretan industria-lurzoruak antolatzea proposatzen. Are gehiago, lurralde-ereduan proposatzen diren ordezeko ekimenei jarraituz, gaur egun bertan dauden batzuk hutsik uztea planteatzen da.

Hautabidez, lurralde-esparruan bertan, Aiako udalerriko lurretan, proposamen horiei ekiteko eta bertako premiei zehazki erantzun ahal izateko Santioko ibarrean lurzoru egokia prestatzea aurreikusten da.

Era berean, lehentasunez hondartzarekin, kirol-portuarekin, aisialdiarekin eta turismoarekin lotzen diren hirugarren sektoreko jarduerak garatzea aurreikusten da.

#### VII.7.3.- Erdialdeko Kosta.

Ekialdeko Kostarako aurreikusten den ildo beretik, Getaria eta Zarauzko hirigune nagusiek bizitegi, zuzkidura eta hirugarren sektorerako orientabidea izango dute. Beraz, Munantxon industria-lurzoru berria antolatzea planteatzen da, eta lurzoru horretan bertako premiei erantzun nahi zaie. Hala, hiri-bilbetik ateratzea aurreikusten den jarduerak kokatuko dira.

Era berean, Artikon eta Astin, Zarautz ekialdean, finkatu beharreko bizitegi-multzoan barne hartuko den zerbitzu sektorearekin lotutako hirugarren sektoreko jarduerak garatzea aurreikusten da, baita hondartzarekin, Getariako kirol-portuarekin, aisialdiarekin eta turismoarekin lotzen direnak ere.

#### VII.7.4.- Mendebaldeko Kosta.

Lurralde-esparru horrek espazio erabilgarriko baldintza egokiak ditu eta irisgarritasun paregabea du. Horrela, aurre egin ahal izango zaie eremu hau egituratzeko eta identifikatzeko premiei. Hori dela eta, lurralde-esparru horretan bertako garapenei eta esparruan bertan berriro kokatu behar diren industriei erantzun ahal izateko industria-lurzoru berriak antolatzea aurreikusten da, baita jarduera berriak –jarduera espezializatuak zein jarduera logistikoak– hartuko dituzten esparru berriak antolatzea ere. Gainera, lurralde-estrategia publiko zabalagoen esparruan hedadura handiagoko lurzoru-erreserbak antolatu nahi dira.

Lehen egoerari aurre egiteko, Aizarnazabalgo poligonoa eta, batez ere, Oikiako tamaina handiagoko poligonoa antolatu dira.

Horrez gain eta bigarren egoerari aurre egiteko, Sansineneko poligonoa (35 ha. inguru) antolatzea planteatzen da, eta Iraetako erreserbari esker (50 ha. inguru) aurreikusten den hirugarren motako eskariari erantzungo zaio. Ibaetako eremuaren hedadura handia dela-eta, eremu horretan udal-plangintzak bateragarri egingo ditu, batetik, industria-erabileretarako edo hirugarren sektoreko erabileretarako xedea eta, bestetik, nekazaritza-jarduera intentsiboetarako erabilera.

Bestalde, lehentasunez Santiago hondartzarekin, kirol-portuarekin, aisialdiarekin eta turismoarekin lotzen diren hirugarren sektoreko jarduerak garatzea aurreikusten da. Aizarnazabalgo Muitzeko muinoetan golf-zelai bat egiteko aukera ere aztergai dago.

Merkataritzaren alorrean, sustatu nahi diren hiri-bilbeetan eta hiri-garapen berrietan garapen berriak integratzea planteatzen da. Hala, eremu funtzionala orokorrean finkatzearen bitartez, gaur egun eremu funtzionalaz kanpo, batez ere Donostialdean, asetzen diren premiei erantzungo zaie.

Ildo berean, jarduera turistikoak ezar daitezen sustatu beharko da, bai barrualdean, bai kostaldean. Turismoa urte-sasoi jakin batzuetan metatzearen ondoriozko zailtasunak gainditu beharko dira eta, halaber, ekimen horiek bizitegi-mailako hiri-continuumean integraturik garatzea sustatu beharko da.

Era berean, Zestoa-Azpeitia bide-ardatzean –Lasao inguruan eta A-8 autobidearen Arroako lotunetik hurbil– garraioari zerbitzu egingo dion zentro bat gaitzea aurreikusten da.

Proiektatutako lurralde-ereduaren arabera eta arlo horretan formulatutako proposamenei jarraituz, eremu funtzionaleko udalerriak kategorietan mailakatu nahi dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren irizpideekin bat eginez:

- Industria-jardueretarako eta ekonomia-jarduera asimilatuetarako lurzorua antolatzeko eta sustatzeko lehentasuneko interesa duten udalerriak: Zarautz, Zumaia, Zestoa, Azkoitia eta Azpeitia.
- Industria-jardueretarako eta ekonomia-jarduera asimilatuetarako lurzoruaren hazkunde handi samarra duten udalerriak: Aia, Getaria, Orio eta Aizarnazabal.
- Industria-jardueretarako eta ekonomia-jarduera asimilatuetarako lurzoruaren garapen txikia duten udalerriak: Errezil eta Beizama.

Hazkunde handi samarra duten udalerriek aldeztu aurretik dauden industria-poligonoak zabaldu ahal izango dituzte, Plan honen irizpideen arabera.

Merkataritzaren eta turismoaren alorreko ekonomia-jardueren antolamenduari eta ezarpenari dagokienez, antzeko mailakatzea aurreikusten du Lurraldearen Zatik Planak:

- Merkataritzaren eta turismoaren alorreko ekonomia-jardueretarako lurzoruen antolamendu, kudeaketa eta hirigintza-sustapenerako "lehentasuneko interesa" duten udalerriak. Aia, Azkoitia, Azpeitia, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.
- Merkataritzaren eta turismoaren alorreko ekonomia-jardueretarako lurzoruaren "neurritzko hazkundea" duten udalerriak: Beizama, Errezil eta Aizarnazabal.
- Merkataritzaren eta turismoaren alorreko ekonomia-jardueretarako lurzoruen "garapen txikia" aurreikusten duten udalerriak: bat ere ez.

Orioko, Zarauzko, Zumaiako, Azpeitiko eta Azkoitiko hiriguneak eta Azkoitiko eta Zarauzko merkataritzaguneak merkataritza-zuzkiduratzat jo dira.

## VII.8.- KULTUR ONDAREARI DAGOZKION PROPOSAMENAK

Eremu funtzionalean ondasun interesgarri gisa izendatu eta kalifikatutako kultur ondarearen elementuei aplikatzekoa zaien araudiaren edukia Planean barne hartzen da, izendatze hori ondare eraiki, urbanizatu eta arkeologikoaren beste elementu batzuetara zabaltzearen kaltetan izan gabe.

Era berean, ikuspegi kulturaletik eta sozio-ekonomikotik ondare horren bi elementu garrantzitsu bereziki babestea eta balioztatzea hartzen du aintzat. Elementu horietako bat 1738. urtean Carlo Fontanak proiektatu zuen Loiolako Basilika da, eta bestea Ekain eta Irikaitzeko historiaurreko aztarnategiak dira. Ildo horretan, Administrazioak jada egiten dituen inbertsioei jarraipena ematea aurreikusten da.

Nolanahi ere, nabarmendu behar da eremuko kultur ondarea garrantzi handikoa dela eta funtsezko aktiboa dela, bere ingurunearekin batera, eremuaren garapenerako: monumentu megalitiko ugariak, Altzerri eta Amalda haitzuloak, burdinolak (Agorregi), mareako errotak (Orio), antzinako ontziolak (Bedua), garbitokiak (Aizarna eta Azpeitia), dorretxeak, hiri-jauregi mudejarrak, herrerianoak eta barrokoak, Iberoko eliza, baseliza ugari – Ugartemendia arkitektoak egindako Erdoiztarena adibidez–, barreatutako baserriak (Larrañaga Urrestillan eta beste batzuk) edo Zumaiako arrantzaleen etxeak, esate baterako, finkatu beharreko ondare aberatsaren

lagin bat baino ez dira. Hala, dagozkien arloko politikek bidezko neurriak hartuko dituzte.

Arlo horretan, aintzat hartu behar da eremu funtzionalean dauden hirigune historikoen kantitatea eta kalitatea, dagoeneko finkatuta dagoen hiri-kulturaren lekuko. Hirigune historiko horiek birgaitzeko prozesua oso aurreratuta dago, ildo horretan inbertsio egituratzaileak egin beharraren kalterik gabe.

Halaber, Santa Barbara mendiaren mazeletan dagoen ingurune arkeologikoaren garrantzia eta Zarauzko hirigune historikoko parrokiaren garrantzia nabarmendu da.

## **VII.9.- LURZORUAREN POLUZIOA PREBENITZEKO ETA ZUZENTZEKO PROPOSAMENAK.**

Plana behin-behineko onartzeko erabakiari jarraituz, eremu funtzionalari dagokion “Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua polui dezaketen jardueren kokalekuen inbentarioa” gaineratu zaio memoria honi eranskin informatzaile gisa (2. Eranskina). Horrela, udal-plangintzak “lurzoruaren kalitatea” aldagaia hartuko du aintzat, eta problematika horri ekingo dio, industria-eremu zaharkituak leheneratzeko edo berritzeko eragiketak definitzeko garaian.

Lurzoruaren poluzioa prebenitzeko eta zuzentzeko garaian, aplikatzekoa den Estatuko legerian xedatutakoari jarraituko zaio, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko Lege Orokorrari eta, hori indarrean jartzen denean, gai horri buruzko otsailaren 4ko 1/2005 Legeari ere.



## VII.10.- PLANGINTZAREN KOORDINAZIO ETA BATERAGARRITASUNENKO ESPARRUAK

Udal-plangintzaren koordinazio eta bateragarritasunerako neurriak hartzea eskatzen duten bi esparru zehatz hartzen ditu aintzat proposamenak.

Honako hauek dira:

- Oria itsasadarraren ingurunea, ezkerrekoa Orioko udalerriari dagokio eta eskuinaldea Orio eta Aiako udalerriari.  
Lurralde horretan bateragarritasuna ez da ezinbestekotzat jotzen, eta zehazten diren jardunen hedaduraren arabera soilik izango da beharrezko.
- Narrondo itsasadarraren ingurunea, iparraldekoa Zumaiako udalerriari dagokio eta hegoaldekoa Zestoako udalerriari.  
Lurralde-esparru horretan, bateragarritasuneko plan bat idatzi beharko da, eta plan horrek esparruaren erabateko garapenerako gauzatu beharreko ekintza guztiak koordinatu, ebaluatu eta programatu beharko ditu.

Bestalde, Planak aurreikusten duenez, Foru Aldundiak eta udalerriek antolamendu estrategikoko proiektuak landu beharko dituzte udalaz gaindiko izaera duten lurzoruak guztien artean antolatzeko. Udalaz gaindiko izaera duten lurzoru horiek Zarautz-Azpeitia korridorean daude, Meagan zehar Zarautzik Zestoara doan GI-2633 errepidean eta horren jarraipena den Iraetatik Azpeitira bitarteko GI-631 errepidean.

## **VII.11.- EREMU FUNTZIONALEN ARTEKO ERLAZIOEN ERREGULAZIOA**


Formulatzen diren proposamenen bitartez, eremu funtzionala bere hurbileko ingurunean baldintza egokian integra dadin errazten da.

Bide-sarea antolatzeko proposamena deskribatzean aditzera eman den bezalaxe –trenbide-sarea, bidegorri-sarea eta oinezkoentzako sarea barne–, eremu funtzionala egituratzen duten sareen sistemak eskualdea egituratzen du, eta baliagarria da eskualdea eremu mugakideetan integratzeko, fluxuak eta trukeak erraztuz –hurren go orrialdeko grafiakoan islatzen den oduan–.

Grafiko horretan, funtsean, eremu funtzional mugakideetan proposatutako komunikazio-sistemari jarraipena ematen zaiola egiazta daiteke.

Lurralde-continuumean sortzen dira, hain zuzen ere, eremu funtzionala bere hurbileko ingurunean integratzeko baldintza egoki horiek. Izan ere, antolatutako interes naturaleko eremuak eremu funtzionalaz kanpo hedatzen dira Ernion, Murumendin, Izarraitzen, Irukurutzetan, Kilimonen eta Zumaia eta Deba arteko itsasertzean.

Proposatutako lurralde-eredua eta planteatutako zehaztapenen iritsiera kontuan izanik, udal-plangintzari edo dagokion arloko lurralde-plangintzari dagokio integrazio-baldintza horiek zehaztea, baso-intereseko eremuak identifikatzean, nekazaritza eta abeltzaintzako intereseko eremuak identifikatzean, landazabaleko eta/edo mendiko larreetako intereseko eremuak identifikatzean eta abar.



## **VIII.- PLANAREN ESKU HARTZE ESTRATEGIKOEN LABURPENA**

Eremu funtzionala egituratuz gero, eta lurralde-antolamenduaren esparruan estrategikoki sortutako eragin sinergikoak lortuz gero, aukera egon daiteke, epe luzera, lurralde-garapen orekatua lortzeko eta gaur egun dagoeneko onartzen hasi den nortasun orokorra erdiesteko.

Bestalde, Planaren horizontez zertxobait harantzago, 2022. urteko irailean, Elkanok munduari lehen aldiz bira eman ziola 500 urte betetzen dira. Eremu funtzionalak prest egon beharko luke gertakizun hori behar bezala ospatzeko, eta Baiona-Donostia Eurohirian barne hartu ahal izateko.

Plana bera izango da esparru horretan lortu beharreko lehen helburua, tokian tokiko politikak eta arloko politikak bat egiteko gauza den plana egiteak izango du lehentasuna.

Laburbilduz, bertan oinarritzko 51 ekintza egituratzaile nabarmentzen dira. Izan ere, lortu nahi den eragin sinergikoa ekintza horietan oinarritzen da, baita Urola-Kostako eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatikiko Planaren zehaztapenak ere.

Ekintza horiek behar bezala programatuko dira, proposamenaren bideragarritasuna justifikatuz. Ekintza-ehun horren gainean, bestetik, arloko zein udal mailako garapen politikak bilduko dira, azken horiek hirigintza-antolamenduaren berezkoak.

51 ekintza horiek 16 tipologia bereizitan banatzen dira, eta tipologia horien arabera, hain zuzen ere, aurkeztuko dira. Dokumentuaren II.6. planoan grafikoki irudikatzen dira.

### **VIII.1.-HIRI IZAERA INDARTZEKO ESKU HARTZE ESTRATEGIKOAK.**

- 1.1.- ORIO IPARRALDEKO ZABALDURA.
- 1.2.- ZARAUTZEN ARTIKO ETA ASTIKO HIRI-ERABERRITZEA  
ETA GARAPEN BERRIAK.
- 1.3.- ZUMAIAKO HEGOALDEKO ZABALDURA ARROA  
BEKORAINO.
- 1.4.- AZKOITIKO HIRI GARAPEN BERRIA.
- 1.5.- AZPEITIKO HIRI GARAPEN BERRIA.

### **VIII.2.-BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZARAKO ESKU HARTZE ESTRATEGIKOAK**

- 2.1.- ORIO IPARRALDEKO ZABALDURA.
- 2.2.- ASTI ZARAUTZEN.
- 2.3.- ZUMAIAKO HEGOALDEKO ZABALDURA ARROA  
BEKORAINO.
- 2.4.- TXALON ERREKA AZKOITIAN.
- 2.5.- AZPEITIKO HIRI GARAPENA.

### **VIII.3.-INDUSTRIA LURZORUAREN SUSTAPEN PUBLIKORAKO LURZORUEN ERRESERBAKO ESKU HARTZE ESTRATEGIKOAK**

- 3.1.- SANSINENNEKO POLIGONOA ARROA BEKOAN.
- 3.2.- IRAETAKO ERRESERBA.

#### **VIII.4.-EKONOMIA JARDUERETAKO EREMUEN GARAPEN ESTRATEGIKOAK**

- 4.1.- MUNANTXON (ZARAUTZ) BERTAKO GARAPENAK ETA  
INDUSTRIEN KOKAPEN BERRIAK.
- 4.2.- OIKIAN BERTAKO GARAPENAK ETA INDUSTRIEN  
KOKAPEN BERRIAK.
- 4.3.- URRESTILLAKO INDUSTRIA ARDATZA.

#### **VIII.5.-BIDE SARE EGITURATZAILEA**

- 5.1.- A-8 AUTOBIDEAREKIKO ERDILOTUNEA ORION.
- 5.2.- ORIOKO SAIHESBIDEA.
- 5.3.- ZARAUZKO SAIHESBIDEA (HEGOALDEA ETA  
MENDEBALDEA).
- 5.4.- ZARAUTZ EKIALDEA/MEAGA/OIKIA/ARROA ARDATZA.
- 5.5.- ZUMIAIKO SAIHESBIDEA.
- 5.6.- ARROA/ZUMARRAGA ARDATZA (ZESTOAKO  
SAIHESBIDEA BARNE).
- 5.7.- AZPEITIKO SAIHESBIDEA.

#### **VIII.6.-TRENBIDE SARE EGITURATZAILEA**

- 6.1.- TRENBIDEA BITAN BANATZEA AGINAGA ETA ARROA  
ARTEAN.
- 6.2.- TRENBIDEA ZARAUZKO HIRI BILBEAN INTEGRATZEA.
- 6.3.- ZUMIAIKO MODALITATE ARTEKO GELTOKIA.
- 6.4.- UROLAKO TRENBIDEA BERRESKURATZEA.
- 6.5.- TRENBIDEA AZPEITIKO ETA AZKOITIKO HIRI BILBEAN  
INTEGRATZEA.

## **VIII.7.-ESKU HARTZE LOGISTIKO ESTRATEGIKOAK.**

7.1.- SANSINENENKO POLIGONOA.

## **VIII.8.-EREMU TURISTIKOEN ANTOLAMENDUA.**

8.1.- ORIOKO HONDARTZAREN INGURUNEA.

8.2.- SANTIAGO HONDARTZAREN INGURUNEA (ZUMAIA).

8.3.- ZESTOAKO HIRI TERMALA.

## **VIII.9.-ZERBITZUETAKO HIRUGARREN SEKTOREKO EREMU ESTRATEGIKOEN ANTOLAMENDUA.**

9.1.- ARTIKO EKIALDEA ZARAUTZEN.

## **VIII.10.-EKIPAMENDU ESTRATEGIKOAK.**

10.1.- SANTA KLARAKO KULTURAGUNEA ZARAUTZEN.

10.2.- ELKANORI BURUZKO ZENTRO TEMATIKOA GETARIAN.

10.3.- EKAIN-IRIKAIZKO PARKE TEMATIKOA.

10.4.- LOIOLAKO BASILIKA. ZENTRO DOKUMENTALA.

10.5.- IRAETAKO KIROL PARKEA.

## **VIII.11.-ESPAZIO LIBRE ESTRATEGIKOAK.**

11.1.- EZKABASOKO PARKE NAGUSIA.

## VIII.12.-ZERBITZU AZPIEGITURA ESTRATEGIKOAK.

12.1.- NARRONDOKO HODI BILTZAILEA ETA DAGOKION UR  
ZIKINEN ARAZTEGIA.

12.2.- IBAIEDERREKO HODI BILTZAILEA

## VIII.13.-HONDAKINEN TRATAMENDUA.

13.1.- LAPATX EGOKITZEA.

## VIII.14.-HIRIARTEKO ARTIKULAZIO ARDATZAK.

14.1.- ORIA ITSASADARRAREN PASEALEKUA.

14.2.- ZARAUTZ ETA GETARIA ARTEKO PASEALEKUA.

14.3.- NARRONDO ITSASADARRAREN PASEALEKUA.

14.4.- AZPEITIA-AZKOITIA PASEALEKUA ETA ARDATZ  
MONUMENTALA, LOIOLAN ZEHAR.

14.5.- UROLAKO KORRIDOREKO BIDEGORRI SAREA.

## VIII.15.-INGURUNEAREN GAINEKO ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOAK.

15.1.- PAGOETAKO PARKEAREN GARAPENA ETA GRANADA  
ETA ERNIO-GAZUMERANZKO HEDAPENA.

15.2.- ORIAREN PADURAK LEHENERATZEA.

15.3.- GARATE-SANTA BARBARAKO ARTELATZ BASOA  
LEHENERATZEA.

## VIII.16.-ONDARE KULTURALAREN BABESA

16.1.- ALTXERRI.

16.2.- LOIOLA.



## **IX.- PLANA APLIKATZEKO ARAUAK**

### **IX.1.- Araudiaren hedadura eta edukia.**

Antolamendu Arauak zehaztuko dira Urola-Kostako eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatik Plan honen proposamenak gauzatzeko, betiere Planaren beste dokumentu batzuen eta, zehazki, “D. Egikaritze Programa” dokumentuaren eta “F. Antolamendu Planoak” dokumentuaren edukiaren kaltetan izan gabe. Antolamendu-araudiak izaera loteslea du Plana gauzatzeko zein Urola-Kostako eremu funtzionalean edozein motatako eragina duten Planak idazteko.

“B. Antolamendu Arauak” dokumentuan ezartzen dira aurreikusitako lurralde-eredua definitzeko jarraitu behar diren zehaztapenak. Bestalde, dokumentu horretan, Urola-Kostako eremu funtzionalaren esparruan Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek dituzten zehaztapenak garatzen dira, Plana gauzatzeko arau orokorrak definitzen dira, hiri-antolamenduak bete beharreko arauak finkatzen dira, eta iragankortasuneko egoerak aintzat hartzeko arauak zehazten dira.

### **IX.2.- Egikaritze Programaren (“D” dokumentua) arauzko hedadura.**

“D. Egikaritze Programa” dokumentuak izaera arautzailea du, Plana bideragarri izatea eta egikaritzea bermatzearren. Haatik, inplikaturik dauden administrazioen artean adosten denari jarraituz finantzatzeko dira programatutako jarduerak, betiere horien planen eta programen arabera – behin behineko onarpenaren erabakiari jarraituz–.

### IX.3.- Dokumentazio grafikoaren ("F. Antolamendu Planoak" dokumentua) arauzko hedadura.

Antolamendu-planoek izaera arautzailea dute, eta informazio-planoek, aitzitik, proposamena argitu eta justifikatu besterik ez dute egiten.

Beren arauzko hedadurak lotura estua du egin diren eskalarekin. Hortaz, trazatutako marrak eta mugatutako eremuak kontzeptualki lotzen duten elementuak dira, ondoren planen eta proiektuen garapenean zehaztearen kalterik gabe.

## **X.- INDARREAN DAUDEN HIRIGINTZA PLANETAN PLANAK DUEN ERAGINA ETA BATERAGARRITASUNA**

Behin-behineko onarpenaren erabakiari jarraituz, ondoren zehaztu egin beharko da zein gune zehaztutan aldatzen diren Lurzoruaren Legean araututako hirigintza-planak, betiere behin betiko erabakian jaso daitezzen eta, hala, lurralde-antolamenduko legearen 15. artikulua bete dadin.

### X.1.- Aiako Arau Subsidiarioak.

Aiako Arau Subsidiarioetan Santioko paduraren ekialdean proiektatzen den saihesbidea ezabatzea eta Elkanon beste garapen batzuk egitea aurreikusten du Planak.

Plan honek ez ditu Arauak zuzenean aldatuko behin betiko onartzen denean.

X.2.- Aizarnazabalgo Arau Subsidiarioak.

Plan honek ez ditu Aizarnazabalgo Arau Subsidiarioak zuzenean aldatuko behin betiko onartzen denean.

X.3.- Azkoitiko Arau Subsidiarioak.

Insausti gisako hiri-eremuetan erabilerak aldatzearen eta trenbide-trazadura ezartzearen gisako aurreikuspenak gaineratzen ditu Planak. Alabaina, Plan honek ez ditu Azkoitiko Arau Subsidiarioak zuzenean aldatuko behin betiko onartzen denean.

X.4.- Azpeitiko Arau Subsidiarioak.

Plan honek ez ditu Azpeitiko Arau Subsidiarioak zuzenean aldatuko behin betiko onartzen denean.

X.5.- Beizamako Arau Subsidiarioak.

Plan honek ez ditu Beizamako Arau Subsidiarioak zuzenean aldatuko behin betiko onartzen denean.

X.6.- Errezilgo Arau Subsidiarioak.

Plan honek ez ditu Errezilgo Arau Subsidiarioak zuzenean aldatuko behin betiko onartzen denean.

X.7.- Getariako Arau Subsidiarioak.

Plan honek ez ditu Getariako Arau Subsidiarioak zuzenean aldatuko behin betiko onartzen denean.

X.8.- Orioko Arau Subsidiarioak.

Plan honek ez ditu Orioko Arau Subsidiarioak zuzenean aldatuko behin betiko onartzen denean.

X.9.- Zarauzko Arau Subsidiarioak.

Trenbide-proposamen berrien eta Artikorantz eta Astirantz jotzen duten garapen berrien aurreikuspenak barne hartzen ditu Planak, baita Santa Klararen, Salberdinen eta Hegoalderen hiri-berrikuntzako eta hiri-birsorkuntzako proposamenak ere. Alabaina, Plan honek ez ditu Zarauzko Arau Subsidiarioak zuzenean aldatuko behin betiko onartzen denean.

X.10.- Zestoako Arau Subsidiarioak.

Iraetako ibarraren industria-erreserbari dagokion garrantzi handiko ekimena aurreikusten du Planak –orain arte ez zen halakorik aurreikusi–. Gainera, Rezolako eta Azkueko hiri-eremuetako erabilerak aldatzea ere aurreikusten du Planak.

Dena den, Plan honek ez ditu Zestoako Arau Subsidiarioak zuzenean aldatuko behin betiko onartzen denean.

#### X.11.- Zumaiako Arau Subsidiarioak.

Torreagan modalitate arteko geltokia ezartzea eta Hegoaldeko zabaldurako eta Galvanizados Olaizolako hiri-eremuetako erabilerak aldatzea aurreikusten du Planak.

Plan honek ez ditu Zumaiako Arau Subsidiarioak zuzenean aldatuko behin betiko onartzen denean.

#### X.12.- Eraginen dokumentu osagarria

Eremu funtzionaleko udalerrietan indarrean dauden plangintza orokorreko dokumentuetako bat bera ere ez du zuzenean aldatzen Plan honek.

Hala ere, Antolamendu Arauen II. Eranskinean Lurraldearen Zatik Planaren eraginen dokumentu osagarria gaineratu da. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako aplikazio-arauden 9. artikuluan aurreikusten diren udalerrri inplikatu bakoitzerako gaineratu da.

### **XI.- PLANA BIDERATZEA ETA INDARREAN JARTZEA**

Dokumentu hau 2006ko otsailaren 21an behin betirako onartutako planaren testu bateratua da eta Euskal Lurralde Antolaketaarako maiatzaren 31eko 4/1990 Legearen 13.10 artikuluen arabera indarrez jarriko da.

Donostian, 2006eko otsailan

Sin.: Santiago Peñalba Garmendia, Arkitektoa

## **1. ERANSKINA-**

### **UROLA-KOSTAKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN PROPOSAMENEN EZAUGARRIEI BURUZKO TAULAK**

---

**TALDE IDAZLEA:**

**SANTIAGO PEÑALBA GARMENDIA ETA MANU ARRUABARRENA FLOREZ - Arkitektoak  
CARMEN SEGUROLA LÁZARO - Geografoa**

## 1.- ADIERAZLE NAGUSIAK

### 1.1.- BIZTANLERIA

| BIZTANLERIA            | 1991KO<br>BIZTANLERIA<br>(errolda) | 2001EKO<br>BIZTANLERIA<br>(00-12-31 err.) | 1991-2001EKO<br>INDIZEA | BALIZKO<br>BIZTANLERIA<br>HORIZONTEA<br>2020AN |
|------------------------|------------------------------------|---|-------------------------|--|
| UROLA-KOSTA ER. FUNTZ. | 62.022                             | 66.462                                    | + % 7,16                | 75.000   |

### 1.2.- ETXEBIZITZA

| ETXEBIZITZA            | 2000KO<br>PARKEA | ETXEBIZITZA<br>OKUPATUA<br>2000N | 2020KO<br>PARKEA | ETXEBIZITZA<br>OKUPATUA<br>2020AN |
|------------------------|------------------|----------------------------------|------------------|-----------------------------------|
| UROLA-KOSTA ER. FUNTZ. | 30.000           | 22.000                           | 40.000           | 31.000                            |

### 1.3.- EKONOMIA JARDUERETARAKO LURZORUA

| ESPARRU<br>ESTRATEGIKOAK | IRAETA | SANSINENEA | OIKIA | URRESTILLA | MUNANTXO |
|--------------------------|--------|------------|-------|------------|----------|
| AZALERAK                 | 50 ha  | 35 ha      | 25 ha | 25 ha      | 10 ha    |



## 1.4.- BABES BEREZIKO EREMUAK

| DIMENTSIO<br>HANDIENKO<br>ESPARRUAK | PAGOETA<br>GAZUME | IZARRAITZ | IRUKURUTZETA | MURUMENDI |
|-------------------------------------|-------------------|-----------|--------------|-----------|
| AZALERAK                            | 2.300 ha          | 1.100 ha  | 160 ha       | 130 ha    |

## 2.- UDALERRIZ UDALERRIKO ADIERAZLEAK

|                        | 2001EKO<br>BIZTANLERIA<br>(00-12-31 err.) | BIZTANLERIA<br>HORIZONTEA<br>2020AN | AURREIKUSITAKO<br>ETXEBIZITZA<br>BERRIAK |
|------------------------|---|-------------------------------------|--|
| AIA                    | 1.648                                     | 2.000                               | 500                                      |
| AIZARNAZABAL           | 533                                       | 550                                 | 100                                      |
| AZKOITIA               | 10.245                                    | 11.500                              | 1.500                                    |
| AZPEITIA               | 13.654                                    | 15.000                              | 1.750                                    |
| BEIZAMA                | 156                                       | 150                                 | 50                                       |
| ERREZIL                | 617                                       | 600                                 | 100                                      |
| GETARIA                | 2.464                                     | 2.700                               | 500                                      |
| ORIO                   | 4.392                                     | 5.000                               | 1.000                                    |
| ZARAUTZ                | 21.162                                    | 24.000                              | 3.250                                    |
| ZESTOA                 | 3.144                                     | 3.500                               | 650                                      |
| ZUMAIA                 | 8.447                                     | 10.000                              | 2.100                                    |
| UROLA-KOSTA ER. FUNTZ. | 66.462                                    | 75.000                              | 11.500                                   |

## **2. ERANSKINA.-**

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURZORUA  
POLUI DEZAKETEN JARDUEREN KOKALEKUEN  
INBENTARIOA, EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMEN  
ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILAK IDATZIA,  
EREMU FUNTZIONALARI DAGOKION ZATIA**

Planaren 2. Eranskin hau informatzailea da, Plana behin-behineko onartzeko erabakian ezarritakoari jarraituz.

Izan ere, eremu funtzionalaren geografiaren hainbat gunetan lurzoru poluituak agertzeak sortzen duen problematika hartu du aintzat Planak. Horri dagokionez, Planak ezartzen duenez, udal-plangintzak lurzoruaren kalitatearen aldagaia hartu beharko du aintzat, udalerriko lurralde-eredua definitzeko estrategietan. Hala, industria-eremu zaharkituak berritzeko edo birsortzeko eragiketak definitzean, problematika hori izan beharko da kontuan.

Ondoren aipatutako inbentario hori gaineratu da:















## LURZORUA POLUI DEZAKETEN JARDUEREN KOKALEKUAREN INBENTARIOA

|             |                               |     |                |                     |        |  |         |      |      |
|-------------|-------------------------------|-----|----------------|---------------------|--------|--|---------|------|------|
| 20027-00014 | poligono sorazu               | Ind | 20027-00014-01 | Termimek, SA        | 28.510 | TRATAMIENTO Y REVESTIMIENTO DE METAL   | Zestoa  |      | 2001 |
| 20027-00004 | barrio Agote, s/n. Arroa goia | Ind | 20027-00004-01 | talleres Gainza, SA | 28.753 | FABRICACIÓN DE OTROS PRODUCTOS METÁLICOS   | Zestoa  |      | 2001 |
| 20020-00001 | zona industrial s/n           | Ind | 20020-00001-01 | barnizados Illaun   | 24.3   | FABRICACIÓN DE PINTURAS, BARNICES Y REVESTIMIENTOS SIMILARES; TINTAS DE IMPRENTA | Beizama | 1998 | 2001 |
| 20066-00001 | akutu                         | w   | 20066-00001-01 |                     |        |  | Errezil |      |      |
| 20066-00002 | ibarbia                       | Ind | 20066-00002-01 | cooperativa Domusa  | 28.22  | FABRICACIÓN DE RADIADORES Y CALDERAS PARA CALEFACCIÓN CENTRAL                    | Errezil | 1989 | 2001 |

PTP Urola Kosta. Plano general

